

2017-02-17 EGUBAKOITZA / 717. ZENBAKIA / 17. URTEA  
 DEBAGOIENENKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

## Hondakinen gaikako bilketa historikoa


Batez beste, hondakinen %80 gaika batu dute Debagoiengan; emaitzen parekotasuna eta herritarren kontzientziario handia nabarmendu dituzte agintariek / 2



**Antzuolan industrialde berria sortzeko lehen pausoak eman ditu Udalak** / 30

**Bihar, zapatua, dator hamar urte bete dituen Txapel Txin, Txintxin umearekin etorri ere** / 18

**Aizkolari eta harri-jasotzaile onenak Oñatin izango dira lehian, etzi, domeka** / 39



Asier Mujika, Aretabaletako kirol teknikaria, haizeteak Ibarra kiroldegia eragindako kalte ikusgarriak erakusten. U. M.

## Kalteak aztertzen

Kalte handiak eragin ditu haizeteak, Aretxabaletan, bereziki / 6 eta 'Herriak' saila

### SINADURAK

	GOTZON IPARRAGIRRE / 8		IÑIGO MARTINEZ DE OKARIZ / 31
	MANEX ARRIOLABENGOA / 23		JOSU ZUBIA / 35
	PEDRO GARITANO / 27		MIKEL IRIZAR / 48



Ainara Hernando kirol kazetariari elkarrizketa

Txertatu Merkatuan proiektuari buruzko erreportajea

**SEAT ATECA BERRIA**

**DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**SEAT**

**Hemen GARBIKETAK**

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

Intxaurtxueta 16, behea ESKORIATZA  
 T. 943 71 48 45  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)  
[hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Herri desberdinak, bilketa sistema desberdinak, baina emaitzak bertsuak, esanguratsua eta eredugarriak: "Debagoieneko Mankomunitatearen ibilbidean, lehenengoz, gaikako bilketan %80ko ratioa lortu da".

Epigrafe horrekin abiarazi zuten Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan gaikako hondakin bilketaren 2016ko datuak aurkezteko eta baloratzeko prentsaurrekoa, nabarmenduz ja 2015eko datuak oso onak izanda ere, hobetzeko joera nagusitu dela. "2015eko datuak oso onak izan baziren -%77,8koa batez beste eskualdean-, aurten ja lehen aldiz %80tik pasatzea lortu dugu", azpimarratu zuen Unai Elkorok, Debagoieneko Mankomunitateko presidentek.

Datu orokorretik harago, eskualdea osatzen duten udalerrien datuen antzekotasuna da Elkorok nabarmendu zuen beste puntu bat: "Gaika gutxien biltzen duen herria %79,24an dago, eta gehien biltzen duena %84,03an. Hortaz, bost puntu baino txikiagokoak dira aldeak. (...) Uste dugu horrek bailara moduan beste kohezio maila bat erakusten duela beste batzuekin alderatuta".

**Kontzientziarioa eta inplikazioa**

Erakundearen Ingurumen Sailko buru Lander Arregik ere bilketa sistemen desberdintasunen gaintik emaitzen parekotasunari eman zion garrantzia; adierazi zuen hori herritarren kontzientziarioari eta inplikazioari esker lortu dela: "Kuri osoa da ze datu antzerakoak ditugun herri desberdinen artean -bai populazioz, bai industria aldetik oso desberdinak gara-, eta, hala ere, kasu honetan emaitzak oso-oso antzerakoak dira. Eta honen ondoan dago, baita ere, sistema oso desberdinak dauzkagula gaur egun: dauzkagu atez atekoak, bosgarren edukiontzia, Leintz Gatzagak bere sistema propioa dauka. Eta kasu guztietan emaitza oso ona eta, gainera, oso antzerakoa da; hortaz, hemen ikusten duguna da herriek eta sistemek garrantzi txikia izan ditzaizkela, baina inportanteena dela jendearen inplikazioa. Eta ikusten dugu bailaran jendea oso inplikaturik dagoela, oso kontzientziatuta eta lortutako emaitzak eurei esker direla". (...) Hori barik datu hauek lortzea ezinezkoa da", gehitu zuen Elkorok.



Ubarretxena, Kortabarria,, Lazkano, Elkorok, Arregi, Zubizarreta eta Lete, prentsaurrekoan, martitzenean. UBANE MADERA

# Gaikako bilketa historikoa

%80ko bilketa maila gainditu egin du, batez beste, Debagoieneko Mankomunitateak. Gehien batzen duen eta gutxien batzen duen udalerrien artean bost puntuko aldea baino ez dago. Gaiarekiko debagoiendarren kontzientziario handia azpimarratu dute

Arregik, era berean, datuen onuragarritasuna nabarmendu zuen, ingurumenarekiko ez eze, baita eraginkortasun ekonomikoarekiko ere. "Lortzen dugu gutxi ordaintzea ordaindu behar diren frakzioak -organikoa eta errefusa- eta beste frakzio batzuei etekina ateratzea, gure kasuan plastikoei", esplikatu zuen.

**Gipuzkoa 30 puntu azpitik**

Horrekin batera, eta lurraldean kokatuz, Debagoienean eskuratutako datu batzuk nabarmendu zituen Arregik Gipuzkoakoekin konparazioa eginez: oro har, birziklatze ratioa Gipuzkoan baino 30 puntu handiagoa da. Gipuzkoan jasotzen den kopuruaren %49 errefusa da, Debagoienean %19 bakarrik. Organikoaren kasuan -berez bilketarako zailtasun tekniko handiena duena-, Debagoienean %33 batzen da eta Gipuzkoan, %15 eta ontzi arinen kasuan, Debagoienak bikoiztu egiten du Gipuzkoako datua: %10 eta %5, hurrenez hurren.

**Ereduak, erraustegia...**

Datuak mahai gainean jarri ondoren, bertaratu ziren sei alkatetxek -Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola eta Elgeta- nor bere balorazioa eta irakurketa egin zuen, nor bere udalerraren eta iritzien ikuspuntutik.

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak atez ateko sistema defendatzeaz gainera, bertako eredu eta emaitzak Gipuzkoan errepikatuko balira, errauskailuaren beharrik ez dagoela azpimarratu zuen. Ildo beretik jo zuen Iraitz Lazkano Elgetako alkateak, Antzuolakoaren iritzia datuekin jantzita: "Debagoienean 4.600.000 kilo errefus sortu ditugu, (...) Proporzioak mantenduz Gipuzkoan 51.000.000 kilo sortu beharko lirake eta eraiki nahi den erraustegia horren hirukoitza erretzeko dago diseinatuta, hortaz uste duguna da bidea dela errefus kopurua murriztu, diru mordoak aurreztuko gurek-lako bai tasetan eta bai makroproiektuetan.", esan zuen. Puntualizazio bat ere egin zuen: "5. Edukiontzi sistema bezala deitu izan da, baina alde nabarmen bat badauka 5. edukiontzia-erriko ez delako borondatez ezartzen den organiko edukiontzi bat gehitzen, baizik eta herritar guz-

**Gaikako bilketari dagozkion 2016ko datuak\***

	Antzuola	Aretxabaleta	Arrasate	Bergara	Elgeta	Eskoriatza	Gatzaga	Oñati	Debagoiena	Aramaio
Etxe eta auzoko konpostatzea	17,47	7,36	4,97	8,76	32,72	12,23	119,9	16,71	10,08	-
Bildutako biohondakina	105,05	115,85	115,47	112,09	100,96	106,85	40,73	115,09	113,18	8.300
Bildutako papera, kartoiak	43,89	41,78	56,71	65,84	71,35	47,30	30,94	54,84	55,96	-
Ontzi arinak guztira	29,27	33,78	38,46	37,40	34,75	33,67	26,04	35,68	36,44	38.400
Beira guztira	33,41	33,70	36,63	39,82	36,09	31,51	56,10	41,91	37,63	-
Errekuperatutako tamaina handikoak	6,14	5,21	5,34	6,95	6,60	5,14	4,77	7,66	6,16	15.380
Egurra guztira	14,26	19,56	21,55	18,61	16,71	18,81	14,60	26,05	20,90	-
Arropa guztira	6,98	6,11	5,82	6,88	8,06	6,26	9,99	6,54	6,36	-
Olio guztira	0,68	1,19	1,05	1,03	1,24	1,11	1,58	1,34	1,11	1.216
Pilak guztira	0,12	0,18	0,19	0,16	0,14	0,17	0,13	0,33	0,20	-
Aparatu elektriko eta elektronikoak	3,04	4,20	4,49	3,86	3,50	4,05	3,23	6,12	4,50	-
Etxe hondakin arriskutsuak (RPH)	0,64	0,67	0,73	0,83	0,75	0,65	0,50	0,71	0,73	-
Plastikoa guztira	3,70	4,50	4,83	4,76	4,29	4,33	3,40	6,28	4,95	-
Txatarra guztira	2,56	2,84	3,06	3,35	3,00	2,74	2,12	5,61	3,52	-
Errefusa guztira	50,78	72,53	81,00	67,62	74,15	78,97	69,32	75,44	74,55	264.020
<b>Gaikako bilketa hiri hondakin osoarekiko</b>	<b>%84,03</b>	<b>%79,24</b>	<b>%78,70</b>	<b>%82,11</b>	<b>%81,20</b>	<b>%77,68</b>	<b>%81,92</b>	<b>%81,16</b>	<b>%80,19</b>	<b>-</b>

\* EMATEN DIREN DATUAK DIRA BIZILAGUN BAKOITZEKO URTEAN BATUTAKO KILO KOPURUA; ARAMAIOKOAK, BERRIZ, DIRA KILO KOPURUA

ITURRIA: DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA ETA ARAMAIOKO UDALA

## Balorazioak



**MARIA UBARRETXENA**  
ARRASATEKO ALKATEA

### "Jendea kontzientziatuta dagoela ikusten dugu"

"Arrasatearrak zoriondu nahi ditut. Jendea kontzientziatuta dagoela ikusten dugu, 2015etik 2016ra ere igo egin delako gaika jasotzen den kopurua, 72,02tik 78,70era. Maila batetik aurrera gora egitea oso zaila da; horrelako herri batean, akaso, zailagoa. (...) Beñardori brometan esaten diot Antzuola iruditzen zaidala *Le Petit Suisse*, txikia delako, beste urbanizazio mota bat duelako... eta, agian, eurek atez atekoa egiten dute, baina, akaso, atez atekoa egiteko herri aproposagoa da. Arrasatek bere ezaugarriak ditu, 22.000 bizilagun, dorre altuak ditu...".



**ELENA LETE**  
BERGARAKO ALKATEA

### "Sistema ez da gakoa, baizik eta nahia eta hezita egotea"

"Gizarte hezi baten aurrean gaude. (...) Herria zoriondu nahiko nuke eta erronka baten aurrean gaudela esan: inpropioak gutxi egin behar dira eta hobetu bereizi. Zergatik? Hortik etekin handia ateratzen dugu Mankomunitate mailan. Birziklatzen dugun hori guztiari saldu egiten dugu, prezio onean, eta hori jakitea inportantea da. 5. edukiontzia moldatu genuen, horrekin erakutsi da sistema ez dela gakoa, baizik eta nahia eta hezita egotea; baina hurrengo pauso bat eman behar dugu eraginkorragoak izateko".



**UNAI ELKORO**  
ARETXABALETAKO ALKATEA

### "Gutxiago kontsumitzea ere garrantzitsua da"

"Egia esan, %80tik oso hurbil ibiltzea datu oso ona da eta zoriondu egin nahiko nuke herria; baita ere animatu ea ahal den apur bat hobetu. (...) Baina ez dira datuak bakarrik. Kontsumoa ere garrantzitsua da, biztanleko zenbat kontsumitzen den. Herriaren tamainaren eta ezaugarrien arabera doa hori, baina Aretxabaletan bizilaguneko/kiloko kontsumo baxuenen artean gabilta. Ez da sailkatzea bakarrik, kontsumoa arrazionalizatzea ere bada. Nahiz eta puntuxo batzuk beherago izan, gutxiago kontsumitzea ere garrantzitsua da".

tiak bereiztera bultzatzen dituen sistema bat".

Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak, berriz, azpimarratu zuen herri bakoitzak bere ezaugarriak dituela, eta "sistemak baino gehiago balio" duela "ondo egiteak". Bergarako alkateak ere bat egin zuen sistema "ez dela gakoa" adierazita, "baizik eta nahia eta hezita egotea" eta, besteak beste, Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretak gogora ekarri zuen Eskoriatzan txip bako edukiontzia izan arren, "emaitzak oso onak" direla, Mankomunitatea osatzen duten gaitzako udalerrien parekoak. Ildo beretik jo zuen Lander Arregik: "Eskoriatzan errefusa libre dago eta Eskoriatzak oso datu onak ditu. Derrigortasunak kasu batzuetan, akaso, hasieran badu bere alde positiboa, baina gero, jendea sistematan inplikaturik dago, ez da ikusten hain beharrezkoa".

### Aramaio ere bide beretik

Bestalde, eta Aramaiori dago-kionez -hura ez dago Debagoieneko Mankomunitatean sartuta; beraz, Mankomunitateak ez ditu

hango datuak-, aipatzekoa da han ere errefusa murrizteko bidean dabilzala ahalegina egiten; datuen arabera, 2015etik 2016ra, %10 murriztu dute batutako errefusa -Oleta auzoa aparte-. Eta zentzu horretan, balorazio positiboa egin du Jon Toñak, Aramaioko Udaleko Ingurumen teknikariak: "Bide onetik goazela agerian uzten du, gero eta hondakin gutxiago Gardelegi edo Jundizko TMB plantara bidaliz". Ildo beretik, organikoaren bilketari dagozkion datu nabarmenak ere aipatu ditu Toñak: "8,3 tonako kopurua modu lokalean kudeatzeko gaitasuna izan du auzo konpostajearen parte hartzen duten herritarrek, hondakin hori zabortegira edota Jundizko TMB plantara bidali barik. Hau da, hain zuzen ere, Aramaioko Udalaren ustetan, hondakin organikoak kudeatzeko modurik jasangarriena, garraiorik behar ez duena eta era deslokalizatuan egiten den kudeaketa zuzena. Etorkizunari begira, erronka da pixkana Aramaiotik kanpora bidaltzen diren hondakin organikoaren kopurua murriztea", gaineratu dute, besteak beste.



**JOSERRA ZUBIZARRETA**  
ESKORIATZAKO ALKATEA

### "Txip bako edukiontzia izan arren, emaitzak oso onak dira"

"Hemen eman diren datuekin bat eginda, animatu egin behar ditut eskoriatzarrak, eta zoriondu, ze nahiz eta txip gabeko edukiontzia izan, emaitzak oso onak dira eta Mankomunitateak dituen maila berean mantentzen gara. Zentzu horretan, guretzat pozgarria da hartutako erabakia, herritar guztien artean hartutako erabakiarekin harro egoteko moduan gaudelako. Animatu, oraindik zer hobetua badugulako eta zer hobetu horretan; eskoriatzarrok zein debagoiendar guztiek, denok batera, gauzak hobeto egingo ditugu".



**BEÑARDO KORTABARRIA**  
ANTZUOLAKO ALKATEA

### "Atez atekoarekin lortzen ari da tasa handiena, Antzuolan"

"Antzuolarrak zoriondu nahiko nituzke, tasa handiena atez atekoaren bidez Antzuolan lortzen ari delako. (...) Nahasten dira jendearen sentsibilizazioa eta sistemaren onurak. (...) Aipatuko nuke errefusaren datua: 50 kilo errefus sortzen ditugu Antzuolan pertsonako/urteko; Debagoiengan, berriz, 75 kilo. Alde esanguratsua dago. (...) Antzuolan errefusean badugu zer hobetu. Eredu egokiarekin ari gara lanean. (...) Honek erakusten duen beste gauza bat da sortzen dugun zabor kopuruarekin eta dugun hondakin kopuruarekin errauskailua moduko proiektu baten beharrik ez dugula".



**IRAITZ LAZKANO**  
ELGETAKO ALKATEA

### "Elgetan sekula egon den batez besteko handiena da"

"Lortu dugun batez bestekoa %81etik gorakoa da, Elgetan sekula egon den handiena. Ez dago besterik: elgetarrak zoriondu eta lanean jarraitzeko dei egin. Datu esanguratsu bat: etxeko eta auzoko konpostaren bitartez organiko asko kudeatzen dugu: biztanleko eta urteko 32 kilo. (...) Kontrapuntuan, errefus gehiegi sortzen da: biztanleko eta urteko 74 kilo. Horregatik, eta autokonplazentzian jausteko arriskua saiheste aldera, bi lerro markatu: etxeko eta auzoko konpostak indartu, organiko gehiago bertan kudeatu eta errefusaren sorrera murriztu eta ahalik eta onena sortu".

**bertako**  
igogailuak | ascensores  
Igogailuen mantentze-lanak

**24 orduko**  
benetako zerbitzua



**Euskarazko**  
zerbitzu profesionala

**Pieza originalak barne**  
**100 eurotik aurrera**

**EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN**

**GARAIA Goiru 1A - Arrasate**  
943 90 34 50 • 691 64 79 65

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus) • [info@bertako.eus](mailto:info@bertako.eus)



Debagoieneko KoopFabrikako kideak Bagararen egoitza kanpoan ateratako talde argazkian. XABI GOROSTIDI

## KoopFabrika programa lehen urratsak egiten

'Berrekin, berregin' egitasmoaren edizio berritua da. Ekintzaileei, euren jarduna profesionalizatu duten elkarteei eta enpresa baten barruen proiektu berriak abiatu nahi dituztenei formazioa emango die, eredu sozioekonomiko justuagoa lortzeko

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

*Berrekin, berregin* programaren edizioa berritua da KoopFabrika. Gizarte eredu iraunkorrako eta justuagoa eraikitzea ipar hartuta, aktibitate ekonomikoak sustatzeko formazioa emateko programa da, Lanki ikertegiak, OlatuKoop Sareak, Bagarak eta hainbat udalek eta tokiko garapen agentziak lankidetzan antolatutakoa. Bagararen kasuan, bere strategiako ekonomia sozial eraldatzaile ildoan txertatzen den programa da.

### Hiru profil, ikuspegi bakarra

Ekintzaileei, euren aktibitatea profesionalizatu nahi duten elkarteei eta enpresa baten barruan proiektu berriak abiarazi nahi dituztenei dago zuzenduta. Partaideen jatorria ezberdina izan daitekeen arren, gizarte eraldaketa bultzatzeko asmoa elkarbanatzen dute guztiek.

"Bokazio bat elkarbanatzen dugu; denok nahi dugu gizarte eraldaketa bultzatu. Gure he-

riak eta inguruak justuagoak eta jasangarriagoak izatea, alegia. Gure baloreekin bat datozen ekintzak egiten ditugu, gure soldatapeko lanarekin zerikusirik ez dutenak. Nire kasuan, soldatapeko lan hori nire baloreekin lotutako zerbait izateko asmoz egin dut bat Koop Fabrikarekin", azaldu du Iratitz Salegi ekintzaileak.

Berritasun bezala, Gipuzkoako hiru eskualde hauetan landuko dute: Debagoienean, Beterri-Buruntzan eta Oarsoaldean. 40 lagunek hartuko dute parte, eta, Debagoienari dagokionez, hamabi lagunek eta zortzi proiektu egin dute bat programarekin.

Prestakuntza saioak eskualde bakoitzean bananduta egingo

### DEBAGOIENARI DAGOKIONEZ, HAMABI LAGUNEK ETA ZORTZI PROIEKTU EGIN DUTE BAT PROGRAMAREKIN

dituzte, baina, beste batzuetan, hiru eskualdeetako kide guztiek batuko dira. Hain zuzen, honela azaldu Elena Herrarte antolatzaileak zein dinamika jarraituko duten: "Aste Santura bitartean era intentsiboan arituko gara. Astean hiru goizetan elkartuko gara, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Saio batzuk teorikoak izango dira, eta gizarte aldaketa, krisi energetikoa, parte hartzearen paradigma bezalako jakintza orokorrak landuko ditugu. Beste saio batzuetan, euren jarduna aurrera eramateko hainbat tresna tekniko emango dizkiegu".

Programan zehar hainbat bisita eta irtenaldi egingo dituzte, elkarte eta aditu interesgarrien esperientzietatik edateko asmoz. Asteazkenean, Bartzelonako Sants auzoko esperientzia kooperatiboa gertutik ezagutzeko aukera izan zuten, eta atzo, eguea, Arrasaten dagoen Emun kooperatibaren jarduna eta ebo-luzioa landu zuten.

## Debagoiena Eredu bat egin du GuraSOS-en manifestazioarekin

Domekan Donostiara joateko dei egin dute hondakinen arazoari konponbide adostua ematea aldarrikatzeko

**X.G.** DEBAGOIENA

Zubietan egitekoa den errauskailua geratzea eskatu duen GuraSOS elkarteak manifestazioa deitu du domeka honetarako. Donostian izango da, eta eguerdiko hamabietan abiatuko da Donostiako Artzain Onaren katedraletik. *Elkarrekin, eta liskarrik gabe*, hondakinen gaiari konponbide adostua eta babes zabalekoa ematea aldarrikatuko dute bertan.

Errauskailuaren ordezkari Debagoieneko hondakin bilketa tasa arakastatsua hedatzea defen-

datzen du Debagoiena Eredu herri plataformak.

Debagoienarrei Donostiara joateko gonbidapena egin diete. Iraunkortasun argudioez gain, erraustegiaren finantzaketa eredu kritikatu dute. "Gehien birziklatzen dutenek garestiago ordainduko lukete sortutako errefusaren tratamendua. Hala, Debagoiena litzateke Gipuzkoako Mankomunitaterik kaltetuena, sortutako errefus tona bakoitza gaur egun ordaintzen duena baino hiru aldiz garestiago ordainduko lukeelako".



Juan Kruz Mendizabalen artxiboko irudi bat. BERNAT ALBERDI

## Gipuzkoako Fiskaltzak 'Kakux'-en kasua artxibatu du

Delituak preskribatuta daudela argudiatuta artxibatu ditu sexu abusuak ikertzeko abiatutako diligenziak

**X.G.** DEBAGOIENA

Asteazkenean Efe agentziak eman zuen albistea aditzera. Delituak preskribatuta daudela oinarri hartuta hartu zuen erabakia Gipuzkoako Fiskaltzak, baina, hala ere, salatutako delituei buruzko "datu berriak" agertzen badira, ez du baztertzeko hauek "baloratzea". Delituen preskripzio epea bost edo hamar urtekoa izaten da, delitua egiten denetik. Edozelan ere, sexu abusuaren ezberdina da; izan ere, 1999tik aurrera, kasu hauetarako preskripzioa adinez nagusi diren momentutik hasten da.

Donostiako Elizbarrutiak urtarrean igorritako prentsa-oharrean frogatutzat eman zuen bi adingabekori ukitze desegokiak egin zizkiela Xirimiri Gazte Taldeko arduradun zela.

### Aste honetan beste kasu bat

Orain arte hiru adingaberen kasuak ezagutzen baziren ere, martitzenean EITBk laugarren baten berri eman zuen. Testigantza eman zuen gizonak adierazi zuenez, bere ustetan, "kasu gehiago izango dira" eta era honetako kasuak salatzei tresna falta dagoela adierazi zuen.

# "Oraindik ere ezezaguna da haurren minbizia"

**NEKANE LEKUONA** ASPANOGI ELKARTEKO GIZARTE HEZITZAILEA

Eguaztenean, otsailaren 15ean, Haur Minbizidunen Nazioarteko Eguna izan zen; iaz, 2016an, haur minbizidunen lau kasu izan ziren Debagoiengan; leuzemiak, oro har

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Donostiako ospitalean, urtero, haur minbizidunen 20-25 kasu berri izaten dira.

**Zer da Aspanogi? Ze helburu ditu?**

Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte da eta gure helburua nagusia da haur minbizidunen eta haien familien bizi maila hobetzen laguntzea. Izan ere, diagnostikoak haurren bizitza erabat aldatzeaz gain, familia-rena ere erabat aldatzen du. Bestalde, gizarte informatzea ere gure helburu garrantzitsuetako bat da; hau da, jakinaraztea errealitate bat dagoela eta guztion laguntzarekin haur hauen eta familien bizimodua hobetu dezakegula.

**Gizarte kontziente al da?**

Orain, geroz eta kontzienteko garena uste dut. Inguruan beti daukagu norbait minbiziarekin. Haurretan, oraindik ere ezezaguna da, ez delako helduetan beste gertatzen. Baina, egiten ditugun ekintzak eta dinamikak direla eta, jendeak geroz eta gehiago jotzen du gugana.

**Zeintzuk dira ekintza eta dinamikak horiek?**

Ikastetxeetan hitzaldiak eman ditugu, adin desberdinetako ikasleei bideratuta, oso garrantzitsua iruditzen zaigulako errealitate honen berri ematea. Horrez gain, pasa den domekan, adibidez, martxa bat egin genuen. Eguaztenean, Haur Minbizidunen Nazioarteko Eguna zela aprobetxatuz, festa bat egin genuen, R2Kt robotarekin. Robot hau minbizia izan zuen neska baten bizitzan dago inspiratuta. Azkenik, zenbait kirol ekintza ere egiten ditugu, Markel Irizar, Joseba eta Haimar Zubeldia eta Porrotxen laguntzarekin.

**Zer aldarrikatzen du Haur Minbizidunen Nazioarteko Eguna?**

Zaintza aringarriak etxean. Guk eskatzen duguna da pediatrak egoteaz gainera, psikologoak ere egotea talde barruan. Hau-



Nekane Lekuona, Aspanogi elkartearen gizarte hezitzailea. ASPANOGI

## "ASKOTAN, HARRITUTA GELDITZEN ZARA IKUSITA NOLA EMATEN DIOTEN BUELTA EGOERARI"

rrak eta familiak arreta osoa behar dute eta arreta hori etxean eman behar da, erosen dauden lekuan.

**Zein kasu mota izaten dira gehien?**

2-5 urtekoen kasuan, leuzemiak izaten dira ohikoena. 11-12 urtetik aurrera, linfomak, hezur tumoreak, buruko tumoreak... Kasu arraroak ere egoten dira, baina, zorionez, haurrek tratamenduei aurre egiten diete gehienetan. Askotan, harrituta gelditzen zara ikusita nola ematen dioten buelta egoerari.

**Debagoieneko kasuak Donostian tratatzen al dira beti?**

Kasu batzuk Gurutzetara bideratzen dituzte, nahiz eta aukera izan Donostiako ospitalean tratatzeko. Oñatikoak, Arrasatekoak edota Bergarokoak izaten dira ohikoena. Baina Bizkaiko elkarteak abisatzen digu eta gu jartzten gara haiekin harrema-

netan. Ondoren, etxera bisita egiten diegu.

**Tratamendu aldetik zer moduz dago gaur egun kontua?**

Garrantzitsua da ikertzen jarraitzea. Zoritxarrez, badaude minbizi mota batzuk bidean gelditzen direnak, haur batzuk hil ere egiten dira, baina ebakuntza, erradioterapia eta kimioterapia bezalako tratamenduak oso eraginkorrak dira. Hala ere, ez da ahaztu behar umorea dela tratamendu onena.

**Asko aurreratu da azken urteetan? Bai. Protokoloak aldatzen ari dira. Minbizi mota ezberdinetarako tratamendu ezberdinak daude eta ikusten da orain behar den denbora ematen dutela haurrek ospitalean. Tratamendua jaso eta ahalik eta azkarren bidaltzen dituzte etxera.**

**Ze mezu helarazi nahiko zenioke gizarteari?**

Itxaropenezko mezu bat. Gehien-go, %75-80, sendatu egiten da, eta hori oso garrantzitsua da. Gu bezalako elkarteak laguntzeko daude, bai haurrei, baita familiei ere. Azkenik, zainketa aringarriak nonahi behar direla aldarrikatu nahi dut, baita psikologo beharra ere.

## 'B2B Negozioen Garapena' jardunaldia, otsailaren 22an

Garaian Gunean izango da, 16:00etan, Garaia Berrikuntza Guneak eta Loop Unique Companies-ek antolatuta

**E.A. ARRASATE**

Garaia Berrikuntza Guneak eta Loop Unique Companies-ek *B2B Negozioen Garapena* izeneko jardunaldia egingo dute datorren eguaztenean, otsailaren 22an, 16:00etan, Garaian Gunean. Bi enpresez gain, Oscar Torres Dassault Systemes multinazionalerako *B2B Management eta WorldWide Partner Development* alorrean aditua denak lagundu du jardunaldiak antolatzen.

Saioa euren arteko produktuen eta zerbitzuen salmentan diharduten enpresei dago zuzenduta

-B2B-. Inguratzen dituen eta geroz eta konplexuagoa den ingurune lehiakorra aztertzeaz gain, negozio eredu berrien ondoriozko erronek B2C alorrean eskatzen dituzten estrategia desberdinak landuko dira. Gainera, B2B sektoreko aukera anitzak aztertuko dira.

Loop Unique Companies-en lehen jardunaldia izango da. Urtarrilean heldu zen Garaia, eta, industria sektoreko negozio eredu berrien zerbitzuak desplazatzeaz gain, egoitza berri bat eraiki du.

## 64 urteko gizonezko arrasatear bat hil da Kurtzebarrin

Eguaztenean gertatu zen ez-beharra. Segurtasun Sailak aditzera eman zuenez, 11:00 aldera dei bat jaso zuten SOS Deietan. Mendizale batek ohar-tarazi zuen harekin batera mendian ziharduen gizonezkoa ondoezik lurrera erori zela, Kurtzebarriko gailurraren inguruan (Aretxabaleta). Berehala gerturatu ziren ertzainak eta hura

erreskatatzeari ekin zioten. Hain justu ere, mendi saileko ertzain taldea berehala gerturatu zen helikopteroz, baina lekura heldu zenerako, 64 urteko mendizale arrasateararen (J.R.B.) heriotza baieztatu besterik ez zuten egin ahal izan.

Haren gorpua Arrasateko Arruena parkeraino eroan zuten eguerdi aldera.

Ertzainek egunean bertan adierazi zuten, zantzu guztien arabera, bihotzekoa izan daiteke heriotzaren kausa.



**ANTZUOLAKO UDALA**

Antzuolako Hiri Antolaketa Arauen Aldaketa puntualaren hasierako onespina: abere ustiakuntzek bete beharreko distantziak.

Udalbatzarrak 2017ko otsailaren 7an egindako bileran ondokoa erabaki zuen:

**Lehenengo.-** Antzuolako Hiri Antolaketa Arauen aldaketa puntuala hasiera batez onartzea, lur urbanizazinean abere ustiakuntzak bete beharreko aldundura dela eta Eusko Jaurilaritzaren 515/2009 Dekretuaren araudira egokitzeak.

**Bigarren.-** Espediente jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz eta hilabetez egongo da jendaurrean, azken argitalpenetik kontatzen hasita.

Antzuolan, 2017ko otsailaren 8an.  
Bernardo Rafael Kortabarria Olabarria, alkatea.



Ibarra futbol zelaian zuhaitzak horma apurtu zuen. UBANE MADERA



Almenen gunean, bidean arbola ugari jausita. U.M.



Garaian, txapazko xafiak haizeak eramanda. U.M.



Bergarako Usondo parkean zuhaitza sustraietatik aterata. OIHANA ELORTZA



Oñatin, pinua bidean jausita . O.E.



Pinuak elektrizitate kable gainean, Aramaioa bidean. U.M.

**Imanol Beloki** DEBAGOIENA

Iragarrita zegoen. Baina ez horrenbesteraino. Ez, behintzat, eta bereziki Aretxabaletan izan ziren haize ufada gogorrak. "Bel-durgarriak", bertatik bertara jasan zituzten lekuko esanetan, eta udalerrian eragindako kalte ugariak ikusita, halaxe izan zen, "06:00etatik 07:00etara", bereziki, Aretxabaletako Galartza auzoko lekuko arabera. Aretxabaleta ez zen, baina, kalteak jasan zituen bakarra. Zuhaitz ugari ateratu zituen haizeak sustraietatik han-hemen, pinuak, batik bat, eta, horren ondorioz, hainbat errepede itxita izan ziren –Bergara-Antzuola, adibidez–, argindar eteteak izan ziren –Aramaion eta Eskoriatzako Almen ikaste-txean, adibidez–, eta eraikinak ere kaltetu zituzten –Ibarra futbol zelaia–.

Hori bai, Aretxabaletak jasan zituen kalte gehien, Ibarrako kirol eremuan, batez ere. Kiroldegiko fatxadako kristalak eraman zituen haizeak, argindar barik ere utzi zuen, eta harrezkero itxita dago. Bestalde, futbol zelaiko horma apurtu zuen zelaira jausitako zuhaitz batek, eta Iturrigorri pilotalekuko sabai

# Konponketak egiteko garaia

Asteheneneko haizete gogorren kalteak esanguratsuak izan ziren Debagoieneko hainbat herritan, Aretxabaletan bereziki; zuhaitzak sustraietatik aterata, errepede mozketak, argi barik geratzea eta pinudietan triskantzak eragin zituen, besteak beste

zati bat jausi egin zen. Eskoriatzan, Arizmendiko Almen gunean, eskolak eten zituzten zuhaitz erorketengatik, eta argindar barik geratu zirelako, baita Fagor Ederlanen ere. Kasu horretan, langileak etxera bidali zituzten.

Bestalde, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean txapazko xafia ugari airean eraman eta barreiatuta utzi zituen haizeak, baita kristalak ere. Ingurua hesitu egin behar izan zuten, nahiz eta biharamunean normal zabaldu zuten. Adierazi dute lehenbailehen hasiko dituztela kon-

ponketak. Hala ere, kalteen balorazioa egin beharko dute, eta ez dakite noiz amaituko dituzten egin beharreko lanak, ezta zein kostu izango duten ere.

Oñatin, Garai enpresan, txapazko teilatu zatia eroan zuen haizeak –bidegorria oztopatu zuen– eta Bergaran, aldiz, Usondo eta Errotaldeko parkeetan zuhaitzak atera zituen sustraietatik. Antzuola eta Bergara artean zuhaitz bat jausi zen errepedera eta bidea itxita egon zen, nahiz eta berehala zabaldu zuten. Aramaion argi barik egon ziren egu-

neko lehen orduetan, baina Udalak erosita duen argi sorgailu bati esker udalerrira bideratu zuten argia. Gantzaga, Arexola eta Oletarako bideak itxita egon ziren; baita Kruzetakoa ere.

**Basoetarako laguntzak**

Egoera onera bueltatu arren, kalteak zenbaterainokoak izan diren jakitea falta da orain, eta haiei bueltan ematea, jakina. Handiak izango dira, duda barik, basoetan. Horren harira, Diputazioko Landa Ingurune Sailak jakinarazi du badaudela diru

laguntza batzuk: "Hiru aste barru-edo basoko laguntzen deialdia argitaratzea espero dugu. Bertan aurreikusten dira laguntzak ematea horrelako kasuetan. Laguntzak zuzaitzen adinaren arabera izango dira, 1.500 euro eta 3.000 euro artean hektareako, baso trinkoen kasuan. Adin batetik aurrera ez da laguntzarik ematen. Kaltetutako sailaren gutxienezko azalera 0,5 hektareakoa izan behar du. Laguntzak jasotzeko, basozainekin kontaktatu behar da nekazari bulegoetan".

**Dei ugari suhiltzaileei**

Bestalde, beste datu bat aipatzearen, Oñatiko Zubillagako parkeko suhiltzaileek hogeitertean egin zituzten. Mikel Larrañaga parkeko arduradunaren esanetan: "Estatistikei begiraturaz, domeka eguerditik astehenen eguerdira bitartean hogeitertean eskaera babestu genituen, baina herri mailan ere konpondu zituzten beste hainbat ezbehar udaletako langileek... Bailarako herri guztietan zehar ibili ginen gu".

Haizetearen eraginaren gaineko xehetasun gehiago *Herriak* saillean dago.

## Txapeltxinek 10 urte

### IBAI ZANGITU

ATXABALTAKO KARNABALEN LAGUNAK  
ARETXABAETA

Aurten ere badatoz Aratusteak, Aretxabaletan urteko egunik politenatarikoak direnak. Jakina da aretxabaletarrok modu berezian bizi ditugula egun hauek, gazte eta ez hain gazteok ilusioaren mozorroa janzten dugu eta jai parte-hartzaile eta alai ospatzen dugu denok batera.

Karnabalen lagunok orain dela 10 urte ekin genion Aratusteak gainean genituela-eta Txapeltxin jai antolatzeari.

Ordutik, gure lagun berdea etxeko txikienean eta parrandazaleon lagun handi bilakatu da eta bada garaia hau horrela izateko lehen pausoak gurekin batera eman zituztenak omentzeko, Azpigarri eta Zelabaixota kuadrillak eta, nola ez, zu, Iñaki, zure lan egiteko modu eta ilusioa izan da guretzako irakasgai onena. Horregatik, bihar, otsailak 18, herriko plazan merezitako omenaldia jasoko duzue. Guk lanean jarraituko dugu Aratuste-domekero barruan daukagun guztia emanez eta Txapeltxinek gutxienez 100 urte gehiago bete arte!

Gora Karnabalak!  
Gora Txapeltxin!

## San Valentín: matxismoaren eta kontsumismoaren erakusleho goren

MAITE OTXANDIANO, ITSASO RUIZ DE LARRINAGA, JONE IRIBECAMPOS, ANE GURIDI, MARIXE RUIZ DE AUSTRI, ANE GARAI, GARAZI AZKARATE, LAURA BUENO, LIDE GALDOS, AMAGOIA MUNIOZGUREN ETA ANE AGIRRE

POTTOGORRIAK-EN IZENEAN  
ARRASATE

Arrosa, bonboi eta bihotz askoren eguna, faltsutasunez betetako eguna, merkatuak eta merkatuarentzat sortutako eguna. Badirudi otsailaren 14 batez opari kurtsiak egiteaz erakusten diogula munduari zenbat maite dugun gure

bikotekidea. Bikotekidea bai, eta, nola ez, heterosexuala.

Urte hauetan guztietan maitatu dugula jakina da, baita maitatzen jarraituko dugula ere, baina ez San Valentín egunean saltzen diguten maitasun eredu jarraituta.

Eredu horrek, beste behin ere, emakumeon zapalkuntza ekarri du: bikotekideak baldintzatuta egotea, arazoak izanda ere harremanaren iraupena luzatzera behartuta egotea –ezkontzetan esaten den lez, heriotzak banandu arte–, bikotekiderik eduki ezean pertsona osoa ez zaren ustean sinestea, zoriotsu izateko bikotekidea eduki beharra... Gainera, harremanaren osasunaren bermatzea emakumearen betebehartza jotzea da, baita sentimenduen ardura ere. Beste edozeren gainetik bikote harremana jartzea, bizitzaren erdigunea izango balitz bezala. Eta horrelako adibideekin egunkari bat bete genezake.

Ez dugu maitasun erromantikoan sinesten: ez dago printze urdinik –itota ez badago ez, behintzat–, ezta laranja erdirik ere –zukua egitekoa ez bada–. Nazkatuta gaude gizabanakoa pertsona osoa ez dela entzuteaz. Kokoteraino gaude San Valentín bezalako egunez. Kapitalismoaren erakusleho gorenean jartzen da ikusgai gizartea, maitasun erromantikoari men eginez.

Usteduko zaizkigu loreak, jango ditugu txokolate kaxa guztiak, irentsitako koloretako bihotzak botako ditugu, mutilak janzten uzten ez digun gona hori jantziko dugu, kalera aterako gara munduko irribarrerik handienarekin, ispilura begiratu eta irri bat marraztuko zaigu aurpegian, mundua jatera joango gara eta San Valentini su emango diogu. Gure burua maitatuko dugu eta erakutsiko diogu/diegu maite dugun/ditugun horri/horiei otsailaren 14 batez eta gainontzeko 364 egunetan zer sentitzen dugun. Orduan hasiko gara bizitzen!

## Olandixoko tunela eta mantentze-lanak

### UNAI BERGARETXE

ARRASATE

Aurreko astean zehar, Arrasate Olandixoko tunelean mantentze-lanak egin dituzte hiru egunetan zehar, astearte, asteazken eta ostegunez. Hiruretan ere egunez ari izan dira, trafikiko dezenteko orduetan. Lanak egin bitartean, tunelaren norabide bat zabalik egon da eta bestea itxita. Adibidez, ostegunean, 14:30etik 20:30era itxita egon zen Markuletetik Mugarri alderako norabidea. Uneoro, sekulako trafikoko ilarak sortu ziren inguruan, bai eta eragozpen ugari: kamioi astunen trafikoa Arrasate barrutik –Udala plaza eta Takolo artean–, eta maiz txoferrak noraezean, tunelaz aparteko beste ibilbidea ezezaguna zitzaielako.

Ez da ikusi udaltzain zein ertzainen behar besteko laguntzarik trafikoko bideratzeko, laguntzeko, azalpenak emateko...

Ikusita nolako arazoak sortzen diren Olandixoko tunelean mantentze-lanak egiten direnean eta bide bat ixten denean, ez ote daude beste aukera batzuk lan hauek egiteko?

1. Gueuz egitea lanok, trafikoko gutxiago dabilenean.
2. Orain bezala egitea, egunez, baina semaforo batzuen laguntzaz, norabide bietara txandaka emanez bidea.

Eta edozein kasutan ere, eskertuko litzateke udaltzain edo ertzainen laguntza errepide mozketak hauetan.

Herri barruak ere eskertuko luke, trafikoko handia sortzen da-eta herrigunean –kotxe eta kamioiak–.

## 52 bergarar torturatuak

### IBAI REDONDO

BERGARAKO SORTU  
BERGARA

Torturaren aurkako eguna pasa berri da, baina torturatuak izan diren euskal herritarrek ez dute instituzioen aldetik ez

errekonozimendu ezta erreparaziorik ere jaso. Euskal Memoriak eta Eusko Jaurlaritzak egin berri dituzten ikerketetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan gertatutako 5.567 tortura kasu egiaztatu dituzte. Kasu gehienetan Guardia Zibila eta Polizia Nazionala izan ziren torturatuak; 407 kasutan, berriz, Ertzaintza.

Asko poztu ginen Eusko Jaurlaritzak Paco Etxeberrirarekin batera egindako informeak torturen errealitatea begi bistara ateratzeko egindako ekarpenagatik. EITB, Euskadi Irratia eta Radio Euskadi bezalako komunikabide publikoetan torturatuen testigantza gogorrek entzuten hasi ginen, bazen garaia!

Uste genuen, behin pauso hau emanda, Eusko Jaurlaritzak eta EAJk, gutxienez, Ertzaintza euskal herritarrek torturatzeko erabili zutela onartzea. Azken hilabeteotan, ordea, kezkatuta geunden Urkullu lehendakaria behin baino gehiagotan torturen gaia zurriz saiitzen ari zela ikusirik.

Horregatik mobilizatu gara milaka herritar aste honetan, hilaren 13an Torturaren Aurkako Eguna izanik, torturatu guztientzat aitortza eta erreparazioa eskatzeko. Gustatuko litzaziguke Espainiako Estatuak, Gobernuak eta Guardia Zibilak edo Polizia Nazionalak aitortza hori egitea, baina estatu faxista honengandik ez dugu horrelakorik espero. EAJren eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik, ordea, bai, behin eta berriz eskatzen diote ETari eta Ezker Abertzaleari egindako mina onartzeko edo autokritika egiteko.

ETAk eta Euskal Preso Politikoaren Kolektiboak zein Ezker Abertzale osoak egindako mina aitortu dugu behin baino gehiagotan, sortutako kaltea erreparatzeko gure prestutasuna adierazi dugu aitzakiarik gabe. Gauza bera eskatzen diegu gainerako

alderdi eta instituzioei, ez gehiago, ezta gutxiago ere. Gauzak horrela, zoru etiko eta giza eskubideez leziorik ez dugu onartzen beraiek sortutako mina aitortzeko eta erreparatzeko prest ez dauden estatuengandik, ezta EAJrengandik ere.

Zentzu honetan, erabat salatzen ditugu Estefania Beltran de Herediak torturak ukatuz aste honetan egin dituen deklarazioak, honekin lortzen den bakarra oraindik aitortu ez dituzten biktimak gehiago mintzea delako.

Bukatzeko, besarkada sentikor bat bidaltzen diegu azken hamarkadetan polizien esku torturak jasan dituzten herritar guztiei eta, bereziki, 52 bergararre!

## Taldeak

### ANJEL LERTXUNDI

HTTPS://LABUR.EUS/RX3ZH

Taldeak bati delitu bat egozten zaionean –prebrikazioa, esku-arrantza, abusu nolana haren bat...– taldeak babestu egiten du: familiak senidea, eskolak irakaslea, gremioak bazkidea, sindikatuak afiliatua, elizak apaiza, alderdi politikoak militantea... Jokabideak izena du; beraz, izana du: korporatibismoa deitzen zaio, eta mundua memoria ere badenetik da ezaguna.

Baina korporatibismoak badu alde ilun bat –aurrekoaren ifrentzua– apenas aipatzen dena.

Demagun taldeak baten delitu guztia taldearen arrakalaren bat kritikatzeko izan dela eta demagun kritikak, zorrotza izan arren, parametro zibilizatu guztiak konplitu dituela.

Berdin dio: taldearen parte boteretsuenak (eta, denboragarrenean, talde osoak) taldekidea zigortzen du. Gupidarik gabe. Ozpin min guztiz. Konpai kritikoa taldetik bota arte edo konpaiak, harakiria eginez, taldea utzi arte.

Asteburuan Madrilan izandako kongresuek erruz eman digute batetik zein bestetik.



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

## Denboraren ajeak

Sarri-sarri aurkitu izan dut neure burua halako edo beste halako, urtetxo batzuk aurrerago nolakoak izan ote daitezkeen imajinatzen...

Handiko izkinatik gerturatzeko ari den ile zerratua duen hura burusoiltzen antzemango duzu, bekokitik buru gainerantz, edo garondo paretik bekokirantz; batek daki, igual Normandian tropa aliatuak bezala hasiko zaio buru-larrua azaleratzen, norabide guztietan, laster aeroplanoak bertan lur hartzeko eran gure laguna.

Eta gerri bueltak, zer? Ai, gerri bueltak! Gazte altu ihar hura laster irudikatuko duzu tripa ederraz, tripa engainagarri batez. Altuek ez dirudite halako tripatzarrik dutenik, baina, ondo erreparatzen badiozu, laster ohartuko zara itzela duela. Ia esternoiairen parean hasten zaio eta luze, zabal eta sakon da. A ze tripontzia!

Bere sorbalda zabalengatik lausenguak jasotako hura, berriz; ai, hura... Han ikusten duzu plaia ertzean, oraindik gazte, trajebainu pegatuaz, trinko... Baina tripak aurrera egin ahala, aurrera eta behera, bainujantzia gero eta nasaiago irudikatuko

duzu, eta izterraren eta bainujantziaren arteko zirrikitutik, deskuidu baten, barrabilen batek ihes egingo dio, hau ere barrabil-zorroan gero eta laxatuago... Ai, ama! Ze sexya, e, neskak!

Agian pentsatuko duzue: "Dena ez da, ba, hala izango". Ba ez, arrazoi duzue.

Normandiako burusoilari geratu zaizkion lau ileak, hauek tente gorantz begira daude, izan zirenari eutsi nahian, ondoan inor ez edukitzearen pisu ezagatik, horretxegatik bakarrik, tente daudela ohartu gabe.


Eta sudurra eta belarriak? Ño, hauek ere aurrera eta aurrera, eten gabe. A ze piura!

Badu, hala ere, bizitzak, zer irabazirik. Zaude lasai. Gardentasunean ikaragarri irabaziko duzu. Ez dizute emakumezkoek begiratuko, eta begiratuta, ikusi ere egingo. Bakarrik amaren lagunek ikusiko zaituzte.

A ze etorkizuna!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



ZEUK ESANA

## Panga jatea osasunarendako onuragarria da?

LEGATZ

OÑATI

Nik neuk sekula ere ez dut ikusi arrain mota hori arrandegietan. Eta, egia esatearren, sekula ez dut jan.

Badakit merkataritza-gune handietan eta horrelakoetan saltzen dutela panga edo dena delako hori; zergatik? Ohiko arrainak baino merkeagoa delako. Hortaz, galdera hau egin beharko genioke gure buruari: zergatik da merkeagoa? Erantzuna erraza da: ez ei da kalitatezkoa, auskalo nondik datorren,

merkurioa ei dauka, toxikoak diren hainbat substantzia ei dauzka.

Nahita jarri ditut *ei* horiek guztiak. Izan ere, argi dago arrain hori estigmatizatu egin nahi dutela... garestiagoak direnak eros ditzagun? Hortxe dago koska.

SASOI ETA OSASUNE

ARRASATE

Saldu egitten daue, merkauen dau; hortan, osasunandako ez da txarra izengo, ala? Denden kate batek ez dauela gehixago salduko? Eta, zer?

Enbutiduek be saltzen die; asko, gaiñera. Horreik onak die gorputzandako?

Azukrez betetako bollo industrialak eta edarixek be saltzen die. Horreik onak die gorputzandako?

Nere uestez, gaur egun, saltzen dien gauza danak kontuen hartuta: gehixau die osasunandako kaltegarriaguetik, onak baiño. Ez dauket dudarik.

Laster, ure bera be zalantzan jarriko dau norbaittek, eta, orduen, ze edango dogu?

HURRENGO ZENBAKIAN: MOZORROAK, SARRITAN, TEMATIKOAK IZATEN DIRA MUTILENDAKO ETA HORIEN BERTSIO SEXYAK, BERRIZ, NESKATILENDAKO. Iritzia emateko: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) / [goiena.eus](http://goiena.eus).

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.

### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.  
Erredaktore burua  
Ubane Madera.

### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
Zuzendari komertziala  
Mireia Larrañaga.

### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.  
Hizkuntza arduraduna  
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa  
arduraduna Marta Leturia.

### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber  
Aranburuzabala (Kultura),  
Leire Kortabarria (Ekonomia).

### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

### Publizitatea

Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza,  
Jokin Uribeetxeberria.

### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## PROTAGONISTA

# "Proba laburrak izango dira, baina oso zorrotzak"

## AITZOL ATUTXA AIZKOLARIA

Mireia Bikuña OÑATI

Aitzol Atutxa aizkolaria (Dima, 1987) Euskal Herriko txapelduna da azken bost urteetan. Domekan, Urrezko Aizkorako finalerdietako bat jokatu du Oñatin, Mugertzarekin bikote eginez. **Urrezko Aizkoraren azken hiru txapelketak irabazi dituzue Mugertzak eta biok. Oraingoan ere elkarrekin.**

Egia esan, 7 urte genituenetik egiten dugu aizkoran elkarrekin. Gure aitak aizkolariak ziren eta erakustaldiak egiten hasi ginen elkarrekin, txikitatik. Zortea izan dugu azken hiru aldietan txapeldun izan garelako.

**Nolako da Mugertza?**

Aizkolaria bikaina. Oso zorrotza egiten duen lanarekin. Anaia bat da niretako.

**Urrezko Aizkorako finalerdietako bat jokatu duzue elkarrekin. Ze asmorekin?**

Lehenengo pausoa finalerdia irabaztea da. Baina zaila



Aitzol Atutxa, aizkorarekin. KARKARA.EUS

izango da. Lopez de Azpilikueta aizkolaria beterranoa da eta badaki zertan dabilen. Haren bikotekide izango da Otaño. Aizkolaria gaztea, baina eskarmentua duena.

**Ze lan egin beharko duzue?**

Enborrak mozteko abiadurazko probak, enborra zutik eta etzanda egonda egin beharreko probak eta erabakigarria izaten den proba konbinatua. Proba

laburrak izaten dira, baina esijentzia maila handikoak. **Azken horretan erabakitzen da proba?**

Normalean, azken proban azkarrena denak irabazten du. Aurretik egiten diren proba guztietako denborak batzen dira. Aurrekoetan abantaila izan arren, azken proba konbinatuak erabakitzen du. **Oraingoan ere, Oñatin jokatu duzue. Nolako plaza da?**

Ederra. Ederra, plazak berak duen itxurarengatik, eta ederra, han egoten den giroarengatik. Ez bakarrik txapelketetan, baina erakustaldietan ere. Bereziki lan handia egiten dute Oñatin gazteak herri kiroletera hurbiltzeko. Halako gehiago egin beharko lirateke. **Urrezko Aizkoraren ostean, Euskal Herriko txapela seigarrenez jantzi gurako zenuke?**

Urteko hitzordu nagusia da guretako: Munduko Txapelketa edo Tourra bezala da. Gorri kolorearekin markatuta daukaguna. Baina urri edo azaro aldera izango da hori, eta, bitartean, banakako Urrezko Aizkora txapelketa eta beste hainbat erakustaldi egingo ditut. Urteko prestaketa, baina, Euskal Herriko txapelketari begirakoa izango da.

## HAU BE BADOGU!

**Haizeteak utzitako kalteak konpontzen**

Aste hasierako haizete bortitzak kalte ugari utzi ditu Debagoienean, baita ibarreko basoetan ere. Gipuzkoako basozainak lan eta lan dabilta zuhaitzak baztertuz, eta egurra aprobetxatuz:

@Basozainak\_Gipu: "Gure mendietan haizeteak eragindako kalteak baloratzen #haizetea"

@Basozainak\_Gipu: "Herri onurako mendietan haizeteak botatako zuhaitzak su-egurretarako aprobetxatzen #Haizetea".

**'Kakux', sare sozialetan hizpide, berriz ere**

Juan Kruz Mendizabalek ustez egindako sexu abusu delituak "preskribatuta" daudelako itxi du kasua Gipuzkoako Fiskaltzak.

@Zabalerro: "Munillak #Kakux epailearen aurrean ez salatzea legezkoa izango da, baina ezmorala ere bada" (itzulita).

@urbixxx: "Kakuxen sexu abusuen ingurukoak ikusten... 4 kasu dagoeneko, eta etorriko direnak. Sinesgarritasun gutxi ematen nion Elizari. Orain...".

**Ikurrina Whatsappen jartzea eskatu dute**

Aplikazio ezagunak dituen banderen artean ikurrina sartzeko eskaera egin dute *change.org* webgunean.

@Izaaaro: "Nik sinatu dot jada Whatsappek #ikurrina emotikonoa jar dezan".

@FranckDolosor: "Batziek ikurrina nahi dute Whatsappen gero gaztelaniaz / frantsesez barra barra aritzeko... #EtaDenaHola".

@Eñaut78: "Ikurrina Whatsappean jartzea eskatzen, gero erdaraz jartzeko mezuak? #EuskarazBiziNahiDut".

## ITURRI ONETIK

**Ziklismoarekin lotutako porrak, ibarrean bertan**

Algarveko Itzulia, Omango Tourra eta Andaluziako Itzulia jokatzeko ari direla, ziklismo-zaleak apunteak hartzen ibiliko dira...

Izan ere, hainbat herritan, kirol horrekin lotutako lehiaketak, porrak, antolatzen dituzte; adibidez, Arrasateko Hamalau tabernan eta Aretxabaletako Arlutz tabernan, UCI World Tour porrak abiaraziko dituzte oraingo domekan.

Eta, azken berrien arabera, Arrasateko Monte tabernak hiru itzuli handietan antolatuko ditu lehiaketak.

## GORA ETA BEHERA

**Musikazaleen esker ona Kooltur Ostegunei**

"Ez naiz Arrasatekoa, ezta eskualdeko beste herri batekoa ere, baina sarri joaten naiz Arrasateko gaztetxera, ostegunetan. Ostegunetako kontzertuak antolatzen duen taldeak izugarritzko lana egiten du". Berba horiek baliatuta Kooltur Ostegunak ekimena goraipatu du Gasteizko musikazale "amorratu" batek. Argazkian, Anari azaroaren 19ko kontzertuan.



# Gardentasuna, guztien "ardura eta betebeharra"

Udal Gobernuak "garrantzi handia" ematen dio gardentasunari eta uste du gaia "joko politikotik atera" behar dela; hainbat kritiken aurrean, informazioa publiko egiteko eta besteak beste, "pribilegio" batzuk eteteko egindako lanketen berri eman du

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Udal Gobernuak uste du alderdi politiko guztien "ardura eta betebeharra" dela gardentasunez jokatzeko eta uste du "joko politikotik kanpo" egon behar duen gai bat dela. Gardentasunari "garrantzi handia" ematen diotela "garbi" utzita, Udalean sartu zirenetik gardentasuna indartzeko ahaleginean egindako lanketak eman zituzten aditzera eguazteenan, EAJko zinegotzi guztiek parte hartu zuten agerraldian. Hala egin zuten, besteak beste, oposizioetik jasotako hainbat kritiken aurrean: Amaia sarreren harira, zein kirol taldeei ematen zaizen diru laguntzen harira, adibidez.

BAZEN 2016an jasotako datuen artean 1.041 kexa, iradokizun eta jakinarazpen jaso ziren; Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordea -671 ekarpen, %64,4- eta Udaltzaingoa -212 ekarpen, %20,4- izan dira gehienak. Gainerako batzordeetan 158 ekarpen jaso dira. "Ez dugu esango hau arrasatear guztien kezken isla denik, baina argazki orokor bat eskaintzen digu", uste du Anuska Ezkurak, EAJren udal taldearen bozeramaileak. "Erreminta ona da herritarren nahiak asetzen saiatzeko; horregatik, herritarrek animatzen ditugu zerbitzua erabiltzera".

## Egin dena eta egingo dena

Bestalde, herritarrei tramitazioak errazteko helburuaren baitan zenbait aldaketa bultzatu ditu gobernua, 2015ean dekretu bidez sortutako Hobekuntza Taldearen bitartez. Trafiko Zuzendaritzarekin hitzarmena sinatzea ibilgailuen helbide aldaketarako, TAO urtero ez berritzeko aldaketak egitea, ikastaroetan izena online ematekoa aukera eta familia ugarien agiria BAZetik tramitatu ahal izatea, kasu. Era berean, Udalaren webgunean *Gardentasun ataria* sortu eta bertan jaso-



Garai, Ezkurra, Arrupe, Ubarretxena, Mendieta, Zeziaga eta Azpiazu. ANE VITORIA

zuen da lehen ez zegoen hainbat informazio: Tokiko Gobernu Batzarren erabakiak, kontratu txikien informazioa, diru laguntzak -egun ez daude guztiak, baina laster jarriko dira- ordainsarien taula sinplifikatua eta zenbait hautetsiren gaineko informazioa -ondasunen aitortpena eta curriculum- Udal Gobernu osatzen duten EAJko zinegotziena, adibidez, ez hala oposizioenak, "zinegotzi bakarrik dauka" azpimarratu zuen alkateak.

Erronken berri ere eman zuten, Gardentasun Atarian txertatuko direnak: batzorde informatzaileetako, bozeramaileen batzordeetako eta Tokiko Gobernu Batzarreko deiak eta erabakiak, diru laguntzen zerrenda eta beste.

## Zinegotzien "pribilegioak"

Egunotan zinegotziak dituzten "pribilegioen" gainean irten diren albisteen harira, berriz, argi utzi gura izan zuten lanerako telefonoi, aparkatzeko txartelei zein Amaia antzokiko zuzeneko ikuskizunak ikusteko sarrerei dagokienez aurreko agintaldian baino zinegotzi gutxiago direla abantaila horiek dituztenak. Amaia sarreren harira, Maria Ubarretxena alkateak gogora ekarri

zuen gutxienez 1997a ezker egin izan dela hori: "Zuzeneko emanaldietarako bakarrik ematen dira eta kultura batzordeetara doazen zinegotzietatik alkateari. Helburuak ziren Udalak antolatzen zituen ikuskizun eszenikoei jarraipena egitea eta uneko eskaintzaren berri izatea; badirudi gutxienez duela 20 urte martxan jarri zen kontu bat orain bat-batean pribilegio bihurtu dela". Bada, gobernua erabaki du hasiera baten jarri ziren helburuak "erabat galbideratu" direnez eta "joko politikoen parte" bihurtu, aukera hori ez ematea. Aurreantzean ez da sarrera gehiago banatuko zinegotzientz artean.

## Diru laguntzak kirol taldeei

Kirol taldeei ematen zaizkien diru laguntzak ere eztabaida iturri izan direla-eta, berriz, alkateak azpimarratu zuen laguntzak justifikatu egin behar direla: "Martxoaren 1ean bilera egingo dugu kirol taldeekin diru laguntzaren justifikazioa ondo egin dezaten. 2015etik 2016ra 70.000 eurotik 100.000 eurora igo dugu partida eta aurten ere kopurua mantenduko dugu. Justifikazio horiek, legea betetzeko beharrak, eragin dituzte atzerapenak ordainketetan".



Jendea baseritarren azokan erosten. GOIENA

## Jaki eskaintza zabala izango da otsaileko baseritarren azokan

Zapatu honetan, bailaran ekoiztutako produktuak erosteko aukera izango da Seber Altube plazan

**Ane Vitoria** ARRASATE

Hamaika postu izango dira aste bukaera honetako azokan; gehienak, bailarako eta gertuko baseritarrenak. Oraingoan, baina, bertakoez gainera, Nafarroatik, Arabatik eta Ondarroatik ere etorriko dira ekoizleak. Hala, haiei esker, hemen izaten ez diren aldizkako produktuak erosteko aukera egongo da. Izan ere, produktu eskaintza zabala izango da. Alde batetik, sasoiako produktuak: babak, porruak, azaloreak, eta abar. Eta bestetik, urte osoan zehar ekoiztutako jakiak: arrautzak, ogia, gazta eta halakoak. Gainera, eta betiko dinamikari eutsiz, azokara gerturatuko diren bezero guztien artean otarre bat zozketatuko dute.

**'Zurekin Arrasate euskaldunago'**

AED elkartearen eskutik datoren ekimen hau zapatu goizean

izango da, Seber Altube plazan, 10:00etatik 14:00etara. Hainbat ekintza izango dira; besteak beste, argazki erakusketa, txapa tailerra eta otarre baten zozketa. Jarduera horri jarraipena emateko, arratsaldeko zazpitan, argazki erakusketa Jaizale tabernara lekualdatuko dute. Izan ere, beste bi ekimen gehiago izango dira bertan: bertso saioa eta txio lehiaketaren sari banaketa. Kanpaina horren helburua bazkideak elkartzea eta elkar-kide berriak lortzea da. Horrez gain, euren jardueren gainean ideia berriak eta iritzi ezberdinak jasotzeko espazio bat sortzeko aukera ona dela uste du Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzaileak. Azoka euren ekimena erakusteko aproposa ere badela aitortu du Artolak: "Euskara da azokaren balioetako bat, eta, beraz, bi ekintzak guztiz uztargarriak dira".

## Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako lelo lehiaketa, abian

Ekin, Elkarheitzien, IMME eta Udala egitaraua prestatzen ari dira Arrazakeriaren Aurkako Eguna dela eta; 12 eta 18 urte artekoendako lelo lehiaketa antolatuko dute: "Idatzi aniztasunaren eta bizikidetzaren aldeko leloa eta irabazi 100 euro herriko dendetan gastatzeko". Epea otsailaren 25ean amaituko da: *aniztasuna@ekinmakumeak.eus*.

## 'Familia solasean' ekimenaren bigarren saioa etzi, Okendon

Udaleko Gazteria Sailak abiatutako *Familia solasean* ekimenaren helburua da familiei aukera eta gune bat eskaintzea gurasoen eta seme-alaben arteko harremana era ludikoan gauzatzeko. Hurrengo hitzordua hilaren 19an izango da Okendoko ludotekan, 17:00etatik 19:00etara; 0 eta 8 urte arteko umeei eta haien familiei dago zuzenduta.

# Kiroldegien egoeraz eta kirol ereduaz kezkatuta

EH Bilduk salatu du Musakolan aldagela batzuk itxi egin dituztela eta Iturripeko garbiketa zerbitzua ez dela nahikoa; Kirol Kontseilua hiru alditan "bakarrik" bildu dela diote: "Bitartean, erabaki askotxo hartu dira; Uarkapeko gimnasioa, kasu"

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

EH Bildu kezkatuta dago kirol arloko hainbat gairekin. Haste-ko, salatu dute Musakolako kiroldegiko zenbait aldagela itxi egin dituztela. "Itxiko zirela iragarri zitzaigunean, zabalik geratuko zen aldagela bakoitzak hogeit bat lagunendako lekua duela eta nahikoa zela esan zen. Erantzun genuen praktikan ez direla sartzen 6-8 pertsona baino gehiago aldagela bakoitzean. Denborak eta erabiltzaile ugariaren kekek arrazoia eman digute", dio Eneko Fernandez zinegotziak. Iturripeko kiroldegian, berriz, garbiketa "arazo" bat dela uste du: "Ez gara hau pen-



Itxaro Artola, Eneko Fernandez eta Urki Larrea, Iturripeko kantxan. ENEKO AZURMENDI

tsatzen dugun bakarrak: harre-rako langilea, ikastetxeetako arduradunak, erabiltzaileak eta kirol elkarteak ere kexu dira". Duela bi urte arte Iturripen enpresa bateko bi garbitzailek ziharduten asteleheneetik domekara lanean eta gobernu berriak udaletxeko langile bat jarri zuen langile horien ordez asteleheneetik egubakoitzera, eta kanpoko garbitzaile bakarra asteburuetan: "Formulak ez du funtzionatu eta zuzentzea eskatzen dugu. Garbitasuna oinarritzko gaia da".

Bestalde, herriko kirol taldeei diru laguntzak berandu banatu zaizkiela jakinarazi du EH Bilduk: "Elkarteek urrian eta urtarrilean balantze ekonomikoak aurkeztu dituzte, faktura eta ziurtagiriak eskatu zaizkie, baina oraindik diru laguntza jaso gabe dute. Oraindik jaso gabeko diru bat justifikatu behar izatea nahiko zaila eta jasanezina da".

**Uarkapeko gimnasioa berbagai**

Kirol eredu zehazteke dagoela salatu dute: "Bitartean, erabaki askotxo hartu dira Kirol Sailean; Uarkapeko gimnasioa egitea, adibidez. Ez gaude aurka, baina

zalantzak ditugu prozedurarekin. Gobernuak berak bakarrik erabaki zuen hau, bizikletak garbitzeko mangera simple bat eskatu dugunean Kirol Kontseiluan aztertuko dela esan zaigunean". Kirol Kontseilua bera ere hiru alditan "bakarrik" bildu dela diote; horren harira, kontseilua gutxienez hiru hilabetean behin biltzea erreklamatu dute, bertako adituen artean eduki gehiago landu daitezkeen. Gainera, "kudeaketaren beste adierazle bat" dela uste dute Kirola, Gazteria, Berritasuna eta Hezkuntza arloko 28 batzordetatik lautan bakarrik onartu ahal izan dituztela aktak.

**Amaia antzokirako sarrerei uko**

Bestalde, "pribilegio" bat dela ulertuta, Amaia antzokirako sarrerei uko egitea erabaki du EH Bilduk. "EH Bilduk bakarrik erabaki du sarrera horiei uko egitea. Beste talde batzuek zoketatu egiten dituzte, ingurukoei banatu... Gure ustez, hori pribilegioei eustea da, eta ez gatoz bat. Hausnartzen jarraituko dugu, harik eta pribilegio kontsideratu daitezkeen guztiari uko egin arte", adierazi dute ohar bidez.

## Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte uending zerbitzua eskaintzen

merkatu  
Soziala

FAIRTRADE  
INTERNATIONAL

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"



www.bidebarri.org

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:  
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com

# Tortura eta dispertsioa salatzeneko agerraldiak

Torturaren Aurkako Egunaren eta joan den zapatuan Premin Sampedro presoaren senideek izandako istripuaren harira, Sortuk "gatzaka politikoaren kontakizun osoa" idatzi behar dela aldarrikatu du asteon, giza katea eta prentsaurrekoa eginda

## Jokin Bereziartua ARRASATE

Arrasateko Sortuk deituta, torturaren eta dispertsioaren aurkako agerraldi bana egin dute asteon. Astelehenean, Torturaren Aurkako Egunean, giza katea egin zuten erdiguneko kaleetan barrena "Euskal Herriko gatzaka politikoaren kontakizun osoa" idatzi behar dela aldarrikatzeko: "Arrasaten ere Memoria historiko osoa idatzi beharra dauka. Horretarako, ezinbestean estatuaren torturen biktima diren euskal herritarren aitortza eta erreparazioa behar ditugu eta praktika horiek ez errepikatzen bermea exijitu behar dugu".

EH Bilduk, era berean, tortura kasuen gaineko "ikerketak sakona" eskatu du: "Tortura kasuak Euskal Herri osoan bizi izan ditugu, eta Arrasate ez da salbuespena izan. Tortura kasuak salatu dituzte atxilotuek, justizia espainolak ikertu ez baditu ere. Garrantzitsua da memoria kolektibo bat aldarrikatzea, integratzailea, inklusiboa eta demokratikoa, non memoria etorkizunera begira eraike behar den, gatazkan sufritutakoak inoiz gehiago gertatu ez daitezten".

## Senideen mezua Udal Gobernuari

Jaengo espetxean preso dagoen Premin Sampedro arrasatearraren senideek istripua izan zuten joan den zapatuan. Etxeraten arabera, senideen autoak, aurretik zihoan kamioiaren gurgila lehertu ondoren, errepidean gelditu zen gurgil zatia- ren kontra jo zuen. Autoak kalte arinak izan zituen eta Guardia Zibilak atestatua egin ondoren Jaengo espetxerako bideari ekin zioten senideek.

Bada, "dispertsio politika" salatzeneko agerraldia deitu zuen Sortuk martitzeneko karteladaren ostean; bertan izan ziren Premin Sampedroren senideak ere. "Sakabanaketa politikak



Asteleheneko giza katearen amaiera, Herriko Plazan. MAITE TXINTXURRETA



Martitzeneko karteladaren osteko agerraldia, Seber Altube plazan. ENKO AZURMENDI

eraginda, azken hamasei urteetan bezala, Premin aurrez aurre ikusteko Jaenerako bideari ekin genion. 800 kilometro joan eta 800 kilometro etorri. Argi daukagu kilometro gehigarriek arrisku horiek biderkatzen dituztela. Hori esanda, senideok eskertu egin nahi dugu herritarrek erakutsitako babesa eta Udal Gobernuak alderdiei sakabanaketa politika bultzatzeko egin zuten indar berbera berau desaktibatzen erabiltzera gonbidatzen ditugu", adierazi zuen Preminen anaia, Iker Sampedrok.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

## Seber Altube plazak 40 urte, etzi

Josemari Velez de Mendizabalek *Hots Begi Danbolinak* blogean gogoratu duenez, 1977ko otsailaren 19an inauguratu zen Seber Altube plaza. Ekitaldian, orduko alkate Jose Antonio Altuna *Txatillo*-k Altube goraiatu zuen: "Idazle, filosofo, linguista, musikologo... Bere herriaren kulturaren alde lan handia egin zuen". Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zen egun berezi hartan.

## Anai-arreben arteko jelsia hizpide hilaren 20an Kulturaten

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, anai-arreben arteko jelsiaz egingo du berba familia psikologo eta birtartekari Sara Sanabriak. Honako galdera hauek erantzuten saiatuko da Sanabria otsailaren 20an, Kulturaten (18:00): *Zer da jelsia? Zergatik agertzen dira zeloak? Zer egin dezakegu?* Sarrera doakoa izango da.

## ARRASATE IRRATIA

### 'Idiot Txou' antzezlan

Ados antzerki taldeak *Idiot Txou* obra taularatuko du otsailaren 26an Amaia antzokian (19:30). Bada, antzezlaneko protagonistetako bat, Asier Hormaza aktore ezaguna, izango da datorren astean *Igo autobusera!* saioan obraren nondik norakoak azaltzeko. Sarrerak zozketatuko ditugu egubakoitzean; parte hartzeko: 943 25 05 edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus).

## PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Eduene Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa  
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Psikoterapia:  
umeak, gazteak eta helduak

Arreta psikologikoa  
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak

Estimulazio goiztiarra

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
[psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net](mailto:psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net) RPS 295/13

# Basurde gainpopulazioa kontrolatzeko eskaera

Arrasateko baserriar talde bat kexu da basurdeek egiten dituzten "triskantzak" direla-eta, eta, Gipuzkoako EHNE eta ENBA sindikatuen babesarekin, Diputazioari eta Ehiza Federazioari eskatu diote ardurak bete eta arazoa kontrola dezatela

## Jokin Bereziartua ARRASATE

"Azken urteotan behin eta berriz ari gara eskatzen ehizarako fun-  
damentua, nolabait esateko. Ez da posible, esaterako, *batidek* edo uxaldiek nola funtzionatzen duten; basurdeen populazioa ez da kontrolatzen. Ikusarazi nahi genuen, bertatik bertara, basurdeek nolako kalteak eragiten dituzten eta horiek nolako eragina duten baserriarrengan". Hitz horiekin azaldu zuen Gipuzkoako EHNE sindikatuko presidente Garikoitz Nazabalek Arrasateko baserriarrek bizi duten egoera basurdeen gainpopulazioa dela eta.

Horren aurrean, agerraldia egin zuten Udala auzoan herriko baserriarrek eta Gipuzkoako EHNE eta ENBA sindikatuek, eta eskatu zuten Diputazioak eta Ehiza Federazioak duten

hitzarmena berri eta bete dabil. Iaz, esaterako, Gipuzkoan 1.300 basurde ehizatu ziren. Hala ere, basurdeen populazioak gora egiten jarraitzen du; basurdeek belardietan egiten dituzten murtkadek soroa konpondu behar izatea eragiten dute, eta kaltetuek diote hori ez dela gauek goizera egiten den zerbait. Gainera, ez dute bermerik egindako lanak iraungo duenik, basurdeak behin eta berriz joaten zaizkielako. Hori gutxi balitz, negurako bazka izateko biltzen den belarra, belardietan biltzen ez bada, erosi egin behar izaten dutela ere azaldu dute, horrek dakarren gainkarga ekonomikoarekin.

## Protokoloa berrikusi eta bete

Basurdeen gainpopulazioaren kontrola egiteko Diputazioak eta Ehiza Federazioak hitzarmen

bat dute. Bertan, protokolo bat zehazten da, kalteen parte bat jaso bezain laster martxan jarri beharko litzatekeena, baina diote ez dela egiten. "Ehiza Federazioak ardura batzuk ditu ehizarako eskubideak dituen moduan batera. Baina ardura horren jabe ez dira egiten, behintzat, zona honetan", esan zuen Naza-



Arrasateko hainbat baserriar Udala auzoko belardi kaltetu baten. AMAIA TXINTXURRETA

balek. Gainera, protokoloa berrikusi egin behar dela etengabe errepikatu dute Diputazioan. Diote proposamenak mahai gainean jarri arren ez dagoela borondaterik. Horregatik, pro-

tokoloa berrikustea, betetzea eta, horrela, basurdeen gainpopulazioa kontrolatzea eskatu dute: "Ez gara dirua eskatzera etorri, egoera kontrolatzea eskatzen dugu".

## Diputazioaren erantzuna

Gipuzkoako Diputazioko Landa Ingurunea sailetik erantzun dute basurdeen populazioaren igoera Gipuzkoa osoan eman dela, eta gogora ekarri dute Aldundiak apirilera arte luzatu duela ehiza denboraldia; halaber, jakinarazi dute osteguna ere sartu dutela ehizatzeke egun (lehen bakarrik asteburuetan ehiza zitekeen). Azpimarratu dute basurde ehizaren jarraipena egiten dela eskualdeka, baita Debagoienean ere. "Aurreikusita zegoen ehizaren presioa handitzea denboraldia bukatu baino lehen. Harremanetan gaude Federazioarekin eta bertako koadrilekin, uxaldi gehiago egiteko", esplikatu dute. Adierazi dute Ehiza Federazioaren informazioaren arabera, Arrasaten jaso diren "kexa guztietan" protokoloa martxan jarri dela, eta "parteei kasu egin" zaiela. "Basurdearen populazioen igoeraren ondorioz, espezie horrek sortzen dituen kalteak handitu egin dira; ez da erraza hori guztiz kontrolatuta izatea", diote. Hala ere, Aldundia eta Federazioa "ahaleginak" egiten ari dira, "populazioa kontrolatu eta kalteen kopurua jaisteko. Era berean, kalteetan aplikatzen den protokoloa hobetzeko prozesuan gaude. Prozesuan kaltetuen eta nekazaritzako sindikatuen proposamenak kontuan hartu eta sartu ditugu", azaldu dute. Horrekin batera, besteak beste, aurtengo datuak helarazi dituzte: "219 basurde ehizatu dira eta 463 ikusi, eman diren 418 uxaldietan. Datu horiek basurdeak kontrolatzeko egiten ari den lana erakusten dute. Bistan da, populazio horiek kontrolatzeko modu bakarra ehiza dela, eta Federazioarekin eta ehiztariekin batera lan egin beharko dugula basurdeen populazioak maila jasangarrian izateko".

## ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

# HILEKO 3. ZAPATUA

Otsailak 18 | 2017 |



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

■ Enplegu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.

# Salamancara, onenei hortzak erakustera

Promesen mailako Espainiako Txapelketan urrea irabazita, asteburuan maila absolutuan lehiatuko dira Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena. Eta eurekin batera izango dira Iñigo Uribarren eta Maialen Axpe; podiumean egoteko kapaz dira denak

## Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasateko harrobiko lau atleta izango dira asteburuan Salamancan egingo duten Espainiako Atletismo Txapelketan, maila absolutuan. Hau da, estatuko onenekin lehiatuko dira. Asteburuan Madrilen urrezko domina irabazita etorri dira etxera bueltan Istar Dapena (5,20) eta Malen Ruiz de Azua (4,05), biak pertika-jauzian. Promes mailan onenak direla erakutsi dute, eta orain nagusiekin lehiatuko dira. Bien kasuan Madrilgo emaitza ona motibagarria izan da, baina badakite zapatuan koska bat gora egin beharko dutela: "Suposatzen da promes maila gure kategoria dela eta asteburuan onenekin lehiatuko garela. Alde horretatik baliteke presio gutxiago izatea, baina, hala ere, gauzak ondo egin gura izaten ditugu; horrenbestez...", dio Malen Ruiz de Azuak.

Ruiz de Azuarekin batera lehiatuko da Iruñean ikasten dabilen



Ezkerretik hasita Uribarren, Ruiz de Azua eta Dapena, aste barruan Mojategin. X.U.

–eta han entrenatzen da– Maialen Axpe: "Gustura nabil Iruñean, dena egiten dut bertan, eta askoz ere erosoa da". Besteek egiten dutenari begira egon barik, gaur egun gehiago erreparatu diot nik egiten dudanari. Entrenamenduetan landutakoa txapel-

egiten du berba: "Atleten artean giro ona dugu, orokorrean giro sanoa dela esango nuke, eta eskertzekoa da. Besteek egiten dutenari begira egon barik, gaur egun gehiago erreparatu diot nik egiten dudanari. Entrenamenduetan landutakoa txapel-

ketara eramatea lortu dudala ikusten badut, pozik geratzen naiz, eta horretan nabil orain, teknika berrira moldatzen".

## Dapena 5,20ko markarekin

Istar Dapenak bost zentimetro-ra du uztailean Polonian egingo duten Europako Txapelketarako marka –Ruiz de Azuak sailkatuta dago–. Eta Arrasateko gaztea normalean txapelketetan hazi egiten da, bere bertsiorik onena erakusten du. Joan den astean, esaterako, Aleix Pi Portet (5,15) kataluniarrak ondo estutu zuen Arrasatekoa, baina, hain zuzen, *pike* horiei etekin ona ateratzen die Dapenak. Zapatuan Dapenaren zeregina izango da besteak estutzea.

Pertikatik harago Iñigo Uribarren dago, salto hirukoitzean lehiatuko dena. Iaz laugarrena sailkatu zen, gogorra izan zen bere burua podiumetik kanpo ikustea, eta hiru onenen artean egon gura du. Lesionatuta ibili bada ere sasoiko dago, dagoeneko gaintu du iazko marka –15,81 pista estalian– eta momentuan rankingeko hirugarren marka onena du (15,86).

Eta bosgarren atleta falta da, denetan gazteena. Eneko Carrascal juniorra da, baina maila absolutuan lehiatzeko txartela du. Dena dela, lesio batetik erreperatu dabil, eta gurago izan dute martxoaren 5ean izango duen junior mailako Espainiako Txapelketara itxaron.



Beñat Arnaiz. EKAITZ FILARMENDI

## Tuteran garaipena Arnaizek, eskaintza bereziarekin

Beñat Arnaizek distantzia luze-ara egingo du salto maiatzean, Lanzaroteko ironmanean izango da eta. Hori prestatzeko, domekan Tuterako maratoni erdian lehiatu zen, eta, lehiatu bakarrik ez, lasterketa irabazi zuen (1.11.03). Garaipen berezia izan zen; duela gutxi zendu den Pili Otxoa amaginarrebari eskaini ahal izan zion txapela.

## Gimnasia txapelketa Uarkapen, eta erakustaldia

Eskolarteko B mailako txapelketa egingo dute zapatuan, baita benjaminen topaketa ere

## X.U. ARRASATE

Uarkapeko frontoia gimnastekin beteta egongo da zapatuan, hilak 18. Goizean –10:40an hasita– Eskolarteko B mailako txapelketa egingo dute alebin eta infantil mailako gimnastek, eta hor Dragoik ordezkaritza zabala izango du, bai bakarka eta baita talde-ka ere.

Arratsaldean, berriz, 17:00etan hasita Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko gimnasta benjaminen erakustaldia egingo dute. Taldeka sei gimnastaz osatutako lau taldek hartuko dute esku, eta bakarka beste hiru gimnastak jardungo dute.

## Espainiako Txapelketara begira dituzten asmoen gainean



**ISTAR DAPENA**  
REAL SOCIEDAD

"Gogotsu noa Salamancara, joan den asteko urrezko dominak motibatuzko balio duelako. 5,20ko marka egin nuen, horrek esan gura du 5 zentimetro-ra daukadala Europako Txapelketako gutxieneko marka. Iaz gustura geratu nintzen egindako lanarekin eta aurtun podiumean egon gura dut".



**MALEN RUIZ DE AZUA**  
BIDASOA IRUN

"Madrilgo lehen postuarekin pozik geratu nintzen, baina ez horrenbeste egindako markarekin (4,05). Lehia gogorra izango da Salamancako; izan ere, atleta askok egin dute koska bat gora, eta 6-7 gaude aurrean ibiltzeko aukerekin. Helburua 4,25 metroko saltoa egitea da".



**MAIALEN AXPE**  
ATLETICO SAN SEBASTIAN

"Iaz dena egin nuen erraz, baina aurtun teknika aldatu dut, eta kosta zait 4 metroko marka egitea! Lagun batek dioen moduan, batzuetan, aurrerapausoa egiteko pauso bat eman behar da atzera. Salamancan gozatu egin gurako nuke, egiten nabilen lanetik printza batzuk ikustea".



**IÑIGO URIBARREN**  
REAL SOCIEDAD

"Iaz laugarren postuan sailkatu nintzen, podiumetik kanpo geratu nintzen, eta amorrua eman zidan horrek, zapora gazi-gozaarekin etorri nintzen. Aurtun podiumean egon gura dut. Lesio askotxo izan dut, baina ondo erreperatu naiz eta 15,86 metroko markarekin aurkeztuko naiz txapelketara".



Dokumentalaren egile Asier Altuna *Txokito* arrasatearra eta Jon Goikoetxea gasteiztarra, Monterron parkean. JOKIN BEREZIARTUA

## 'Euskal balearen ehiza' dokumentala ikusgai

Arrasateko Asier Altuna 'Txokito'-k, Jon Goikoetxea gasteiztarra eta Oier Bartolome debarrak ekoiztutako ikus-entzunezkoa eskainiko dute eguaztenean Kulturaten; balearen ehiza olatu handienarekin konparatu dute dokumentalean, metafora gisa

J.B. / A.T. ARRASATE

Olatu handiak ehizatzen dituzten euskal surflarien testigantzak eta irudi ikusgarriak jaso dituzte, *Euskal balearen ehiza* dokumentalean, Bideolan ekoiztetxea osatzen duten Arrasateko Asier Altuna *Txokito*-k, Gasteizko Jon Goikoetxeak eta Debako Oier Bartolomek. Euren lagunak diren eta hain ezagunak ez diren olatu handien sei surflari dira ikus-entzunezkoan protagonista: Andoni Fernandez, Iker Muñoz, Julen Larrañaga, Pablo Gartzia, Josu Iribar eta Oier Bartolome bera. "Oriotarrak, getariarrak, debarrak... guk ezagutzen ditugun lagunak dira eta gura genuena da haiei aukera ematea jendeak ikus dezan zelako trebetasuna daukaten eta momentu batzuetan nolako une gogorretan egon behar izaten diren surfean dabilzanean", azaldu du *Txokito*-k. Balea arrantzan balira bezala, olatu erraldioen ehizak dakartzan esfortzu eta etekinak erakusten dituzte la-

nean, Euskal Herrian azkenaldian olatu handiak harrapatzen geroago eta jende gehiago dabilela azalduta.

### Astebetean egindakoa

Denbora laburrean ekoiztutako dokumentalaren emaitza izango da eguaztenean Arrasaten eskainiko dutena; izan ere, aste-bete besterik ez zuten behar izan ikus-entzunezkoa egiteko. Hiru egun behar izan zituzten elkarriketak grabatzeko eta bi egunetan muntaia guztia egitea lortu zuten: "Gaur egun Internet bidez jendeak azkartasuna bilatzen du, eta gu konturatu gara grabatutako bideoak egunean bertan sarera igota, bisita gehiago izaten dituztela eta oihartzun

### DRONE BAT ETA KALITATE HANDIKO BI ARGAZKI-KAMERA ERABILI DITUZTE GUZTIA GRABATZEKO

handiagora lortzen dituztela. Orduan, uste dut garrantzitsua izan zela ez produkzio handi bat egitea, baizik eta azkarrak izatea. Astebetean egin genuen dokumentala; hiru egunetan egin genituen elkarriketen grabaketak eta bi egunetan muntaia guztia. Gustura gelditu gara azken emaitzarekin", azaldu du Goikoetxeak.

Dokumentala iazko Donostiako SurfFilm Festibalean aurkeztu zuten, eta grabaketak egiteko drone bat erabili dute, baita kalitate handiko bi argazki-kamera ere.

### Kulturaten eskainiko dute

Udaleko Kirol Zerbitzuak aurrera daraman *Arrasaso*: *hamabi hile, hamaika gai* programaren barruan eskainiko da dokumentala, eguaztenean, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian. *Txokito* eta Goikoetxea ekoizleak ere bertan egongo dira, gainera, ikus-entzuleei dokumentalaren gaineko azalpenak emateko prest.

## Sexuaren gozamina sentitzeko, 'Hotzikara' ipuin erotikoak

Musikatutako helduendako ipuin kontaketa gaur, egubakoitza, eskainiko dute, Kulturaten, 20:00etan

A.T. ARRASATE

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak hogeitaz betetzen dituela eta, azken hilabeteetan hainbat ekintza antolatu dituzte; bakarrizketak eta antzerkiak, adibidez. Oraingoan, helduendako ipuin erotiko musikatuaren kontaketa antolatzea pentsatu dute, ipuinak ez direlako haurrendako soilik izan behar eta horien bitartez, zeharka, hainbat gai landu daitezkeelako; kasu honetan, erotika.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan izango da ipuin kontaketa, Kulturateko areto nagusian, eta Sexologia Zerbitzuak antolatutako helduendako lehenengo halako ekitaldia izango da. Sexologia Zerbitzuak herritarrak gonbidatu nahi izan ditu ipuinez gozatu eta une goxo eta entretenigarri bat pasatzera.

### Helduendako ikuskizuna

Ines Bengoak kontatuko ditu ipuinak, Josu Lizarragaren zuzeneko musikaren laguntzarekin. Bertan kontatuko dute erotismoa historian zehar nola bizi izan den; nola garai guztietako emakumeek eta gizonezkoek sexuatsuegina sentitu duten, jakin-nahia izan duten, baita beldurra eta askatasuna ere, maila desberdinetan.

Emanaldiaren bitartez, hainbat egoera proposatuko dira, pertsonaia ugari ezagutuko dira eta ikus-entzuleei historien bitartez bidaia batean sartzeko gonbidapena egingo diete protagonistek pasioaren, zoramenaren eta umorearen bitartez. "Bidaian sartzen dena sexuaren gozamina sentitzera hurbilduko da, hotzikara gisan", azaldu du Sexologia Zerbitzuak.

## San Baleriotik Meatzerrekara bisita gidatua, domekan

Iraganeko Oinatzak elkarteko Ugutz Basaurik gidatuta, domekan 11:00etan bisita gidatua egingo dute San Baleriotik Meatzerrekara, euskaraz. Arrasaten meatzeek izan duten garrantzia azpimarratuko dute bertan; zein izaten zen burniaren garapena, altzairua ateratzeko. Azalduko dute baita ere Euskal Herrian ezagutzen den lehen

feria Arrasaten egin zela 1351n, Santamas feria. San Balerioko ermitaren nondik norakoak ere kontatuko dituzte, erakutsiko dute baita ere han jarri dituzten panelak, eta ermitatik gora joanda landatu diren zuhaitzen berri ere emango dute, besteak beste.

Bisita bera gazteleraz martxoaren 5ean egiteko aukera izango da. *Dinbi danba mailukaren hotsa* erakusketaren inguruan antolatutako bisitak dira.

## Latinoamerikako literatur solasaldia, eguaztenean

Urtarrilean hasi ziren Udal Bibliotekan Latinoamerikako literatura solasaldietako zikloarekin, eta hurrengo solasaldian Alejo Carpentier idazle kubatarren *El reino de este mundo* liburua landuko dute, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Eguaztenean izango da hori, 18:15ean. Latinoamerikako literaturako klasiko bat den obra aztertuko

aukera izango dute bertaraten direnek eta bi ordu inguruko saioa izango da, gainontzeko solasaldietan egiten den moduan.

Ziklo horren barruan, hurrengo solasaldia martxoan egingo da Uruguai Juan Carlos Onetiren *Los adioses* liburuarekin, hain zuzen. Solasaldi horiek gaztelerazkoak dira.

Pasa den eguaztenean, berriz, euskarazkoa egin zen eta bi poeta emakumezkoen lanei buruz hitz egiteko aukera izan zuten bertaratu ziren irakurleek.

# Kiroldegia astelehena arte, behintzat, itxita

Haizetearen ondorioei aurre egiten ibili dira egunotan eta dagoeneko txukunduta daude bazter gehienak. Ibarra kiroldegiak kalte handiak jasan zituen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko jarri beharreko aldamiok jarri arte ez dute zabalduko

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

Domeka gauean hasi eta astelehen eguerdia bitarteko haize zakarra Aretxabaletako bazterrek astindu zituen. Aste guztian ibili dira konpontze eta txukuntze lanetan eta herria bere onera itzuliko da Ibarra kiroldegia zabalitzen dutenean, ondo bidean, astelehenean.

## Segurtasuna bermatzea oinarri

Kirol instalazioek izan dituzte kalterik handienak. Ibarra futbol zelaian, horma apurtu zuten haizeak botatuko pinuek, eta Iturrigorri pilotalekuan sabai zati bat apurtu.

Kalte handienak, baina, Ibarra kiroldegiak izan zituen. Kanpoaldeak, hain zuzen ere; au-

rrealde guztia inguratzen duen kristalak apurtu zituen haizeak eta horiek jausi ziren barruko bi sabai-leihoen gainera. Leiho horiek ez ziren apurtu, baina ezin dute bermatu erabiltzaileen segurtasuna. "Segurtasun hori bermatzeko aldamiok jarriko dituzte barrualdean, gaur eta bihar artean. Horiek jarritakoan

zabalduko dugu", jakinarazi du Asier Mujikak, Kirol teknikariak, eta Unai Elkoro alkateak gaineratu du: "Helburua da astelehenean zabaltea, baina, bihar zapatua, berriro elkartuko gara eta orduan hartuko dugu azken erabakia". Behin kiroldegia zabaldua ere oraindik lan asko egin beharko dute datozen asteetan: "Lehenengo fasean aurrealdeko garbitu behar da eta solariumeko zikinkeria guztia jaso eta hori babestu urik ez dadin pasatu. Eta bigarren fasean, fatxada berria jarriko da, aurretik zer jarri erabakita. Uste dut argi dugula guztiok material berdina ez dugula jarriko", dio Mujikak.

Itxita dagoen bitartean pazientzia izateko eskatu die abonatuak alkateak, eta ez zaiela kobratuko aste hori jakinarazi du.

## Odoloste dastatzea gaur Pagaldaixenean UDAREN eskutik

Odolosteak eskainiko ditu Aretxabaletako kirol elkarteak gaur, egubakoitza, Pagaldaixenean, 18:30ean hasita. Aretxarte merkatariaren elkartearekin elkarlanean jardun dute, eta dastatze horretarako txartelak banatu dituzte komertzioetako kideek.

Bestetik, hurrengo egubakoitzean, otsailaren 24an, (20:00) Borobil Teatroa taldearen *Jokoz kanpo* antzezlanak izango da Ibarra kiroldegian Real Sociedad Fundazioak, Aretxabaletako Udalak eta UDAK antolatuta. Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota aktore ezagunek futboleko gertatzen diren kontuak jarriko dituzte agerian, betiere, umore ukituarekin.

## Herriko gunerik kaltetuenak



### Ibarra kiroldegia

Kalte handiak jasan ditu kanpoaldeak –barrualdeak ez du inolako kalterik—. Kiroldegian aurrealdeko kristalak apurtu eta barruko bi sabai-leihoen gainera erori ziren. Leiho horiek ez dira apurtu, baina erabiltzaileen segurtasuna ezin dute bermatu.



### Futbol zelaia

Futbol zelaiaren eta alboko lantegiaren artean dauden pinuak botatu zituen haizeak eta, ondorioz, hegoaldeko horma jausi egin zen. Zuhaitzak dagoeneko kendu dituzte trabatik eta martitzena ezkererantz normaltasunez dabilta entretenatzen neska-mutikoak.



### Iturrigorri pilotalekua

Sabaiaren zati bat apurtu du eta zulo handia egin. Aurretik ere hori konpontzeko asmoa bazuen Udalak, itoginak daudelako, eta kondentsazio arazoak. 2017ko udal aurrekontuan 60.000 euro inguru gordeta dituzte horretarako.



### Ikus-entzunezko fakultatea

Mondragon Unibertsitatearen fakultate aurrean dagoen pinuaren adar handi bat apurtu zuen haizeak. Makai lorezaintza enpresako kideek astelehen goizean bertan kendu zuten trabatik hori, eta inguru guztia txukundu.



### Loramendi kalea

Herriko gunerik kaltetuenetakoa izan zen Loramendi inguru guztia. Teilak jausi ziren hainbat etxebizitzetatik eta zuhaitz asko botatu zituen lorategietan. Hainbat komertzio eta etxebizitzatan, Udal Euskaltegian, adibidez, argi barik egon ziren ordu askoan.



### Txarapea eta Markole

Haizeak gogor jo zuen bi inguru horietan ere. Edukiontzia hara eta hona hegan ibili ziren eta kiroldegi aurrean Deba ibaira botatu zuten bat; beste batzuek autoekin zuten talka. Balkoietatik ere hegan joan ziren mahaiak, aulkiak eta beste kontu batzuk.



### Apotzagaetxebarri eta Galartza

Kalte handiak jasan dituzte pinudiek bi auzoetan. Astelehen goizean pinu mordoak agertu ziren apurtuta eta jausita. Galartza auzoko errepidea, esaterako, itxita egon zen eta baso bide batzuek oraindik ere itxita jarraitzen dute.



### Urkulu eta bidegorria

Urkulura doan bidegorrian eta urtegiaren bueltan zuhaitz mordoak daude jausita, baita pinudiak txikituta ere. Horien ugazabek eta inguruotako bizilagunek lan handia izan dute egunotan zuhaitzok trabatik kentzen.

## Onintza Enbeitarekin eta Unai Agirrekin bertso afaria

Loramendik urtero antolatzen duen bertso afaria martxoaren 3an, egubakoitza, izango da. Onintza Enbeita (Muxika, 1979) eta Unai Agirre (Hernani, 1975) bertsolari ezagunak izango dituzte afalostea giroetan, aurten, Uratz Alde elkartean. Ordurako txartelak dagoeneko salgai daude: Taberna Berri eta Urbaltz tabernetan eta Loramendiren bulegoan –astelehenetik eguenera: 15:30-19:30; eta egubakoitzean: 15:30-18:30—. Bazkideek 18 eurotan dituzte txartelak eta gainerakoek, 20 eurotan. "Bertso afari mundiala izango denez, txartelak lehenbailehen erostea gomendatzen dugu", jakinarazi dute Loramendiko kideek.

## Miguel Angel Marinen eta Albert Boiraren bakarriketa saioa

Bakarriketa saioa izango da gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arkupen. Katalunian bizi den Miguel Angel Marin (Jaen, 1973) eta Albert Boira (Bartzelona, 1961) etorriko dira oraingoan aretxabaletarre barre eragitera. Istorio xelebreekin girotuko dute Arkupe aktore eta komiko izaera duten eskarmentu handiko bi umoristek.





Zuzendaritza batzordeko hainbat kide; erdian, Jose Inazio Isasmendi presidentea. MIRARI ALTUBE

# Basotxo: lanean jarraitzeko ordezkoko bila

Martxoaren 10ean egingo du batzar orokorra erretiratuen elkarteak eta zuzendaritzako hainbat kargu berritzeko boluntarioak gura dituzte; hain zuzen ere, orain arte egindako lan onari jarraipena emateko gertu dauden herritarren bila dabilta

## Mirari Altube ARETXABALETA

Batzar orokorra egingo du Basotxok martxoaren 10ean eta zuzendaritza batzordeko bost kide aldatuko dituzte orduan; presidentek, diruzainak eta hiru bokalek batzordea utziko dute eta beste bost bazkide sartuko dira horien ordezkari. Kargu horietarako boluntario bila dabilta azken asteotan.

## Herrian indarra hartzen

Jose Inazio Isasmendi presidentek lau urte beteko ditu zuzendaritzan –bat idazkari lanetan eta beste hirurak presidente– eta beste batzuei lekua uzteko ordua dela uste du: "Bi urterako izan ohi da, eta nik beste bi ere egin ditut. Oso gustura egin dut lan baina ideia berriak dituen jendea sartzeko ordua da orain".

Basotxok 975 bazkide ditu eta azken urteetan egin den lanari esker elkarte garrantzitsua dela herrian uste dute zuzendaritza batzordeko kideek. "Gero eta gehiago deitzen digute handik eta hemendik, laguntzera joate-

ko, adibidez". Eta orain arte egindakoari eutsi gura diote. "Hitzaldiak, bidaiak, ospakizunak...

Ekintza asko egin ditugu urtean zehar eta horrek behera egiterik ez dugu gura. Horregatik oso garrantzitsua da lanerako gogoz dauden boluntarioak sartzea", diote. Iaz hamahiru bidaiak egin zituzten, hamabost hitzaldi jaso eta memoria lantzeko ikastaroa egin, besteak beste. Horrez gain hiru ospakizun izan zituzten, eta kantu taldea eta dantza taldea indartzen joan da.

## Giro ona taldean

Zuzendaritzan sartzen direnek talde indartsua eta giro ona topatuko dituztela diote. "Lanerako indarrarekin eta ekimen berriak abian jartzeko gogotsu dagoen taldea; yoga eskolak jarri gura ditugu, adibidez". Horretarako aparteko ezagutzarik ez dela behar argitu dute, gogoak bakarrik. "Bulegoan bertan ordubete egoten gara (11:00-12:00), eta bakoitzak etxean dituen ardurak ere kontuan hartzen ditugu", diote. Orain irtengo direnak, gainera, laguntzeko gertu agertu dira.

## Hitzorduak

### Otsailak 23

- **Hitzaldia** *Ikusmenean eta entzumenean hobekuntzak*. 17:00etan Basotxon; bukatutakoan mokadutxoa.

### Otsailak 28

- **Irteera** Tolosako Inauteriak ospatzera. 10:00etan irten eta bazkaria Urrietako Oianume sagardotegian.

### Martxoak 1

- **Ospakizuna** Aingeru Guarda eguna: Salda Basotxon (12:00) eta bazkaria eta dantzaldia Sara jatetxean (13:15ean autobusa joateko).

## Nerabeen gurasoei eskainitako bigarren jardunaldiak martxoan

11 eta 17 urte arteko gazteen gurasoek trebakuntza ikastaroa izango dute komunikazioa indartzeko

### M.A. ARETXABALETA

Ikasturteko bigarren guraso eskolak antolatu ditu Guraso Foroak –Arizmendiko eta Pausokako guraso elkarteak, Gura-barri eta Batera guraso elkarteak, Kukumiku eta Udala– 11 eta 17 urte arteko seme-alabak dituztenentzako. Komunikazioa indartzea da helburua beste behin, eta hiru gai landuko dituzte hiru zapatutan, 09:30etik 12:30era, Arkupen. Arrasateko Ardatz Formazio Zentroko kideak izango dira gidari oraingoan ere.

Izen-emate epea zabalik dago martxoaren 2a arte. Horretarako bideak hona hemen: Arkupe kultur etxea, 943-08 10 01 eta [gazteria@aretxabaleta.eus](mailto:gazteria@aretxabaleta.eus). Izena hiru saioetarako eman behar da derrigorrean.

Egoera eta esperientzia berrietara egokitu beharrean izaten direla gurasoak jakinarazi dute

Guraso Foroko kideek, eta, sarritan, "nola jokatu asmatu ezinda" ibiltzen direla. Horregatik, guraso eskolak bidelagun izan gura du, eta baliabideak eskainiko dizkie gurasoei.

## Egutegia

### Martxoak 11

Komunikazioa hobetzeko jarraibideak

### Martxoak 25

Gatazken ebazpena eta negoziazioetarako teknikak

### Apirilak 1

Familia sistema gisala lantzea (arauak, rolak...)

## Uarkapen egingo den erakustaldira doaz UDAko gimnastak

Gimnasia txapelketa jokatu eta erakustaldia egingo dute bihar, otsailak 18, Arrasateko Uarkape frontoian, eta Aretxabaleta kirol elkarterako kideak ere hain izango dira. Eskolarteko B mailako txapelketa goizean jokatuko dute alebin eta infantil mailetakoko gimnastek; aretxabaletarrak, baina, benjamin mailakoak, arratsaldean (17:00)

egingo den erakustaldian izango dira.

Esther Barcenillasen aginduetara dihardute lanean UDAko gimnastek eta erakustaldirako gogotsu daude. Honako hauek izango dira Uarkapen: lehenengo taldean, Marta Abarrategi, Alaitz Santamaria, Izaro Sebastian, Uxue Bengoa, Nora Roldan eta Iraia Perez; eta bigarren taldean, Uxue Vicario, Maddi Moto, Nora de Cesero, Goiatz Markaide eta Zorione Gallastegi.

## 'Txober' eta 'Txetxu' eskalatazaileen filma eguenean kiroldegian

*Ostegun eskalatazaileak* ekimena jarri du abian Debagoiena Eskalatazaileak taldeak Ibarra kiroldegian, eta datorren otsailaren 23an (19:00) *Raneroko Otsok* bideo emanaldia eskainiko dute *Txober* eta *Txetxu* eskalatazaile bizkaitarrek; Karrantzako eskualdean (Bizkaia) irekitako bide berrien inguruko ikus-entzunezkoa da.

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

# Txintxinek lagunduta dator bihar Txapel Txin

Txapelak jantzita eta torradak dastatzeko gertu elkartuko dira bihar kuadrillak Herriko Plazan. Txintxin umearekin etorriko da dagoeneko hamar urte bete dituen Txapel Txin, Aratusteen berri eman eta mozorro jaia girotzera

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aratusteen girotzen hasteko gertu dago Txapel Txin, eta gaur, egubakoitza, ikastetxeetako neska-mutikoei egingo die bisita. 10:00 aldera gerturatuko da Kurtzebarri eskolara eta ondoren Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunera. Gainera, ez dela bakarrik etorriko iragarri du: "Txintxin jaio da eta Aratusteen ospatzen hasteko gertu dago!".

**Ondo errotutako jaia**

Hamar urte beteko ditu bihar Txapel Txin egunak. Urteurren borobil horretan, sorrerako lagunak izan gura ditu gogoan: "Karnabalen Lagunek orain dela hamar urte ekin zioten Txapel Txin jaia antolatzeari, eta ordutik hona ondo errotu da herrian. Orain, ordukoak gogoan izatea komeni dela uste dugu". Hori horrela, jakinarazi du "ondo merezitako omenaldia" eskainiko diotela bihar.

Egitarauari dagokionez ez dago berrikuntzarik; ohi legez, kale animazioa, torrada lehiaketa eta pregoia izango dira protagonistak. Ekitaldiak, baina, goi-



Txapel Txin besoetan Txintxin daukala. KARNABALEN LAGUNAK

zago hasiko dituzte –pregoia esaterako, 19:00etan–, herritarrek hala eskatuta.

**Kuadrillak lanean**

Aratusteen ere ate-joka daude eta otsailaren 26ko hitzorduari

begira lan eta lan dihardute kuadrillek herrian. Azbeko erai-kinean dabilta asko muntaiak gertatzen; hain zuzen ere, hamar kuadrillak hartu dute hango giltza –horietako hiru adingabeak dira–.

## Aratusteei ongietorria Loramendik

Goiena komunitatea / Loramendi elkarte / ARETXABALETA

Larunbat honetan Txapel Txin jaiarekin batera, Loramendi elkarteak aurtengo udalekuekara begira proposamen kutxa bat jarriko du Herriko Plazan. Udaleku parte hartzaile batzuk sortzeko herritarren hitza ezinbestekoa iruditzen zaigu, horregatik hemendik eta uztaiera arte ludotekan eta Loramendi elkartearen zuten iritziak emateko aukera egongo da.

Bestetik, euskal jaien inguruko hitzaldi eta emanaldi zikloa jarri dugu martxan. Gure herrian ospatzen diren jaien jatorrian eta izaeran sakontzea da helburua. Horretarako, jai nagusien inguruan proposamen ezberdinak eskainiko ditugu. Lehenengoa, noski, Aratusteetan. Kulturgintzan aditu Juan Antonio Urbeltzek hitzaldia eskainiko du eta Aratusteen Euskal Herrian duten esanahia azalduko digu. Gai honetan sakontzeko eta benetako aditu baten azalpenak entzuteko aukera paregabea dugu datorren egunean, otsailaren 23an, udaletxe zaharrean, 18:30ean.

## Antzerki Astean murgilduta daude Kurtzebarri eskolan

**M.A. ARETXABALETA**

Antzerkigintza lantzen dabilta Kurtzebarri eskolako neska-mutikoeak eguaztenaz geroztik. Azken hiru hilabeteetan hainbat tailer egin dituzte, besteak beste, ahozko hizkuntza, bertsoaritzak, antzerki teknikak, sormena eta komunikazioa lantzeko, eta orain, antzezlan bidez erakutsiko dute ikasitako hori guztia. Ikuskizunak 17:30ean egingo dituzte, datorren egunera bitartean, eta gurasoak, gainerako senideak eta lagunak gonbidatu dituzte. "Esperientzia polita izan da; ea nolako ikuskizunak egiten dituzten!", diote eskolako kideek.

Astelehenean eta eguaztenean 3. eta 4. mailakoek hainbat



Antzezlan bat. KURTZEBARRI ESKOLA

antzezlan eskainiko dituzte; *Barre egiten ez zekien printzesa*, esaterako; eta martitzen eta egunean 5. eta 6. mailakoek antzezlanekin batera musikalak egingo dituzte; adibidez, *Altxorren uhartea*.



ARIZMENDI IKASTOLA

## Estatu mailako lehiaketara

Arizmendi Ikastolako batxilergoko hamabi kide izan dira Gipuzkoako European Youth Parliament jardunaldietako saioan, eta horietako hiru hurrengo faserako sailkatu dira; hiru aretxabaletar, hain zuzen ere: Nerea Fernandez de Antona, Asier Mongelos eta Lierni Castilla. Apirillean Gironan jokatuko den National Sessionerako txartela lortu dute.

## Musika eskolako bandaren kontzertua dago gaur komentuan

Leizarra musika eskolako bandaren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Santa Rita komentuan, 18:30ean.

Aratusteetako banda gaztea pausoz pauso dabil indarra hartzen azken urteotan, eta gaur, Jon Lopezen zuzendaritzapean, abesti ezagunekin osatutako kontzertua eskainiko die herritarrei.

## 'Ipuinen lapikoa' eskainiko du Izaskun Mujikak bihar

Izaskun Mujika ipuin kontalari eta aktore urnietarrak *Ipuinen lapikoa* kontaketa eskainiko die 5 urtetik aurrerako neska-mutikoei bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

Egungo ipuinak eta ipuin klasikoak tartekatzea du gustuko Mujikak, eta, horrela, magia munduan murgilduko ditu ekitaldira gerturatzen direnak.

## Egitaraua

- **12:00** Kalejira trikitilarekin, eta ondoren, kuadrillen arteko ginkana.
- **17:30** Birloque taldearekin kalejira.
- **18:00** Torrada lehiaketa, Herriko Plazan.
- **19:00** Aratusteetako pregoia eta ondoren, txapel dotoreenari eta torrada onenei sariak.
- **19:15** Txistor eta torrada mokadua, sagardoarekin.
- **19:30** DJ AviTxinen eskutik musika.



Iaz, Urdelardero egunean gaztetxoak kantuan Herriko Plazan, ziria eskuetan dutela. I.B

## Gaztetxoak prest daude Urdelardero egunerako

Ohitura zaharrari eutsiz, otsailaren 23an ospatuko den Urdelardero egunean, ziritan hainbat jaki sartu eta kanta-eskean arituko dira Eskoriatzako ikastetxeko neska-mutiko gaztetxoak. Horrez gain, hainbat ekintza izango dira Herriko Plazan

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Aratusteei hasiera emateko, txorizoak, sagarrak, ogia, erroskillak... ziritan sartu eta, ohitura jarraituz, baserriar jantzita, Urdelardero eguna ospatzeko kantu-eskean irtengo dira Eskoriatzako neska-mutiko gaztetxoak, kalez kale, otsailaren 23an, gozoki batzuk eskuratzeko asmoz.

Urdelardero eguna aspaldiko ohitura da; Francoren garaian debekatu egin zuten eta 1979. urte inguruan berreskuratu zen, Eskoriatzan. Gaur egun, Eskoriatzan soilik egiten den ospakizuna da, eta, hala, eskolaurreko Arizmendiko Jose Arana guneko eta Luis Ezeiza herri eskolako umeak kantu-eskean irtengo dira kalera, santa-eskean bezala.

Lehen, baserri baserri joaten ziren eskean, eta txarriboda garaia zenez, urdaia, txorizoa...

ematen zizkieten baserriarrek, baina gaur egun denetik sartzen dute gaztetxoek zirian.

Herrian kantuan aritu ostean plazara hurbilduko dira gaztetxoak, eta bertan txistor-jana izango dute.

### Antzerkia arratsaldean

Arratsaldean, berriz, Tomaxen Abenturak pailazoak izango dira *Hiru ipuin* eskaintzen. Sarrerak doakoak izango dira eta alde aurretik kiroldegian jaso daitezke. Hala ere, edukiera delata umeak bakarrik joatea eskatu du Udalak, eta, lagunduta joanez gero, heldu bakar batekin izan dadila.

Ikuskizuna amaitzean, txokolate-jana izango da plazan, eta nork bere edalontzia eraman beharko du. Ondoren, egunari amaiera emateko, Lantzeko Inauterietako dantzak egingo dituzte horiek dakizkiten herritarrek.

### Otsailaren 23ko egitaraua

Urdelardero egunean, 10:30etik 19:00etara arteko ekintza guztiak Herriko Plazan egingo dira.

#### Herriko Plazan

- 10:30. Umeen kalejira.
- 11:30. Txistor-jana plazan.
- 17:00. Tomaxen Abenturak pailazoak: *Hiru ipuin*. Sarrerak doakoak izango dira.
- 18:15. Txokolatea plazan –nork bere edalontzia eraman beharko du hara–.
- 18:30 Lantzeko Inauterietako dantzak.

## Bideo jokoen programazio tailerra kultura etxean

Martxoaren 5 eta 12rako antolatutako ikastaroa 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat izango da, Bibliotekan

### I.B ESKORIATZA

Martxoaren 5erako eta 12rako –domekak biak– bideo jokoen programaziorako tailerra antolatu du Eskoriatzako Udalak, 8 eta 12 urte bitarteko haurrendako –Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailakoetara–.

Tailer honetan bideo jokoen programazioko pieza desberdinak ikasiko dituzte haurrek: pantaila interaktiboaren funtzionamendua, objektuak erabiltzea eta objektuei mugimendua ematea, hain zuzen ere.

Saioak domeka arratsaldeetan izango dira, Bibliotekan, 16:30etik 19:30era bitartean. Modu ludikoan egingo dira, helburua haurrek ondo pasatzea baita.

Tailerrean parte hartzeko izen-ematea otsailaren 16tik martxoaren 3ra bitartean izango da zabalik, eta, horretarako, [gazteria@eskoriatza.eus](mailto:gazteria@eskoriatza.eus) helbidera idatzi edo kultura etxera 943 71 46 88 telefonora deituta edo bertara joanda egin daiteke. Tailerrearen prezioa hamar euro da, eta lehenengo saioan ordaindu beharko da.



GOIENA

## Sua lau edukiontzitan

Domeka gauean edukiontzi batzuei su eman zieten Eskoriatzako Jose Arana kalean, eliza parean, eta Udalak salatu egin du gertaera; gaineratu du eguraldi haizetsuak arriskua handitu zezakeela. Bestalde, goraipatu egin du suhiltzaileen eta ertzainen azkartasuna eta udalbatzak salaketa formala egingo duela azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak.

### Torradak eta pellak egiten ikasiko dute kultura etxean

Ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Talogile taldeak otsailaren 22rako, eguaztena, torradak eta pellak egiten ikasteko; 16 urtetik gorakoentzako. Tailerra kultura etxean, jubilatuen sukaldetan emango da, eta 18:00etan hasiko da ikastaroa. Plazak mugatuak diren arren –12 pertsonarendako, gutxi gorabehe-

ra–, oraindik lekua dago bertan izena emateko, eta bertara joan nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu.

Izena emateko azken eguna otsailaren 20a, astelehena, izango da, eta, horretarako, kultura etxera deitu behar da, 943 71 46 88 telefonora, edo mezu bat bidali [kultura@eskoriatza.eus](mailto:kultura@eskoriatza.eus) helbidera. Saioa gazteleraz emango da eta ikastaroak bi alderdi izango ditu: teorikoa, batetik; eta praktikoa, bestetik.



Jose Arana eraikinaren balkoian galeria bat egin dute, haurrek harearekin jolas egin dezaten. ARIZMENDI IKASTOLA



Egoitza eraberrituko gune ezberdinak. ARIZMENDI IKASTOLA

# Espazio irekien aldeko apustua

Sei hilabete modulu aurrefabrikatuetan pasa ondoren, amaitu dituzte obrak dagoeneko, eta arkitektura pedagogiaren zerbitzura jarri nahi izan dute Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunea eraberrituta. Gustura geratu dira emaitzarekin

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Urtearekin batera estreinatuta dute eraikin berria Jose Arana haur eta profesionalak. Arizmendi Ikastolako Eskoriatzako Jose Arana guneko eraberritze lanak uztailearen 4an hasi zituzten, eta urtarrilera arte, lanek iraun bitartean, Huhezi Unibertsitateko Dorleta eraikinaren ondoko zelaian jarritako modulu aurrefabrikatuetan izan dira haurrak. Gustura izan dira bertan, eta, Huheziko partetik harrera beroa jaso duten arren, bueltatu dira Jose Arana egoitzara, eta oso pozik daude bertan egin dituzten aldaketak guztiekin.

Jose Arana gunean hamasei aste dituztenetik sei urte bitarteko Haur Hezkuntzako 115 haur daude gaur egun, eta guztiek erabiltzen dituzten guneetan aldaketak izan dira. Lanak

egiteko arrazoia, funtsean, eraikinaren arkitektura pedagogiaren zerbitzura jartzea izan da; espazio zabalagoa jarrita, umeen beharrak hobeto errespetatuko diren asmoarekin. Honela azaldu du Amaia Arrietak, Jose Arana guneko arduradunak: "Gutziz eraberritu dugu Jose Arana eraikina. Gure proiektu pedagogikoarekin bat egiten duen eredu arkitektonikoa ezarri gura nahi izan dugu, eta helburua lortu dugula uste dut. Eraikinak berak ezaugarri berezi batzuk ditu, beste eraikin batek ez dituena, eta eraikina-

**DESKANTSU ETA AKTIBITATE MOMENTUAK ERRESPETATZEKO TXOKO EZBERDINAK**

ren sustraiak guk nahi genuenera uztartzen ahalegindu gara...".

**Umeen beharren alde**

Guneak beirateekin banandu dituzte, hala adin askotariko haurren arteko interkomunikazioa bermatzeko eta umeek libreki aukeratu dezaten non eta norekin egon nahi duten.

Deskantsu eta aktibitate momentuak errespetatzeko, *imaginationarium* eta lasaitasunerako txokoak jarri dituzte, beste hainbat jokoz eta jolasez gainera. "Umeen aurpegietan ikusten da aldaketa onerako izan dela. Umeak lasaiago daude espazio zabalean jolasean, eta nabari da gusturago daudela egin ditugun gune berrieekin. Espazio zabalegoa izanda, jolaserako askatasun handiagoa dute, eta, lanek asko iraun duten arren, merezi izan

du itzarotea", azaldu du Amaia Arrietak.

**Zailtasunez betetako lanak**

Jose Arana eraikina ondare kulturala da, eta XIX. mende hasierako margoak ditu. Hori horrela, kontuz ibili dira lanak aurrera eraman dituzten langileak. "Lanak hasi aurretik, bi urteko negoziaketak izan ditugu, batez ere, Aldundiarekin, etxean dauden pintorengatik; izan ere, munduan halako bost bakarrik daude, eta, izugarritzko balioa

ditenez, hori guztia ondo zaintzea helburu nagusietako bat zen, eta eraikinak bere balioa ez galtzea. Uste dut eraikinak izugarri irabazi duela aldaketarekin...".

**Herritarrei zabalik**

Urtarrilean herritarrendako eta gurasoendako bisitak egin dituzte: "Eskoriatzar asko aspaldi sartu barik zeuden eraikinera, eta harrera bikaina izan dugu, jendeari asko gustatu zaio aldaketa".



## Sei hilabetez, aurrefabrikatueta

Huheziko Dorleta eraikin ondoko zelaian jarritako modulu aurrefabrikatueta izan dira sei hilabetez, lanak egin bitartean, eta egoitzara bueltatu arren, esperientzia bikaina izan dute bertan.

# Umore absurdoa Zaldibarko oholtzan domekan

Madrilgo Juancallate konpainiak 'Egurgilea ez da diseinatzailea' antzezlanaren erango du Zaldibar antzokira. 19:00etan izango da, helduendako

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Domeka honetan, otsailak 19, Madrilgo Juancallate antzerki konpainiak *Egurgilea ez da diseinatzailea* antzezlanaren erango du Zaldibar antzokira.

Joan Estrader egilearen lanak umore absurdoa lantzen du, eta ordubete iraungo du saioak; gaztelaniaz da. Carlota Marquina eta Juan Cardosa diseinatzaileen laguntzarekin egindako obra helduentzako da. Sarrerak lau eurotan eros daitezke kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.



Obraren momentu bat. JUANCALLATE

**Era bitxian aurkeztua**

Ikuspegi absurdu eta bitxian oinarrituta, Joan Estraderrek diseinatzaile baten burmuinean sartuko ditu ikusleak; hauei erakutsiko die beharrendaren eta jakin-minaren bitartez forma simple eta sortzaileak irudika-

tu daitezkeela. "Objektuen sinpletasanari omenaldia eginez, inguruan ditugun objektuen bitartez proiektatzen dugu geure izaera", dio Joan Estrader egileak.

## Inauterietako herri bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte

Inkernu eta Goxo Txiki tabernetan erosi daitezke, eta horiek erosteko azken eguna otsailaren 22a izango da

**I.B** ESKORIATZA

Otsailaren 25ean izango da Inauterietako herri bazkaria, pilotalekuan. Plater bakarra izango da: okela-paella; eta postrerako, berriz, tarta. Bestalde, jatekoaz gain, sagardo kupela ez da faltako, azken urteetan moduan, eta Imanolek eta Unaiak girotuko dute trikiti eta pandero doinuekin bazkalostea.

Helduek hamabost euro ordainduko dituzte txartelak eta 14 urtetik beherakoek, zazpi euro. Astelehenean hasi ziren saltzen.

Inkernu eta Goxo Txiki tabernetan erosi daitezke txartelak, eta mahaiak erreserbatu nahi duenak ere aukera du horretarako, kultura etxera deituz, 943 71 46 88 telefonora, *kultura@eskoriatzak.eus* helbidera mezu bat idatziz edo Whatsappez, 650 49 51 66 telefonora idatziz edo deituz.

Inauteri-zapaturako herri bazkarirako txartelak otsailaren 22an kenduko dituzte tabernetatik, eta mahaiak erreserbatzeko azken eguna, aldiz, otsailaren 24a izango da.

## Aste Santuko oporraldirako begiraleak behar dira

Apirilaren 10ean, 11n eta 12an aisialdi ekintza ezberdinak egingo dituzte Txirikilla elkarteak

**I.B** ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Txirikilla aisialdi elkartearekin batera Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara bitartekoentzako haurrei zuzendutako hiru eguneko aisialdi eskaintza prestatzeko asmoa du.

Apirilaren 10ean, 11n eta 12an 10:00etatik 13:00etara bitartean hainbat ekintza egingo dituzte: kirol ekintzak, sukaldaritza, ginkanak, jolasak, igerilekua... eta begirale taldeak programatu eta aurrera eramango ditu. Programa hau prestatzeko begirale bila dabilta, eta interesatuek curriculumak bidali dezakete *gazteria@eskoriatzak.eus* helbidera edo Tortolis ludotekara. Ezinbestekoa izango da euskalduna izatea eta 18 urtetik gorakoa izatea, eta, Eskoriatzakoek lehentasuna izan arren, hainbat ezaugarri hartuko dira kontuan: begirale titulua izatea, ikasketa eta esperientzia izatea, besteak beste.

## Eskoriatzako gimnastak lehenengo fasea jokatzeko prest

Eskoriatzako gimnasia erritmikoko kirolariak Arrasateko Uarkape frontoian izango dira bihar; benjamin mailako eskolarteko B mailako lehenengo fasea jokatuko dute, 10:40an. Haiez gain, goizeko txapelketan alebinek eta infantilek ere hartuko dute parte.

Eskoriatzako taldeko parte hartzaileak hauek izango dira: Irati Koskorrotza, Nahiare Carrasco, Nora Berezibar, Norah Murillo, Ainhize Saenz de Viteri, Maren Urrutia, Jone Etxaniz, Itziar Bengoa, Sara Otegi, Noa Gonzalez eta Oihana Koskorrotza. Arratsaldean, berriz, 17:10ean, benjaminen erakustaldia eskainiko dute.

# LEINTZ GATZAGA | 21



GARAZI OROBENGOA

## Haizetearen eragina

Domeka gaueko haizete gogorrek kalte handiak eragin ditu Debagoien osoan. Hala ere, Leintz Gatzagan, zorionez, ez du aparteko arazorik eragin eta normaltasunez igaro dute astea herrian.

Kalte bakarra irudian ikusten dena da: goiko semaforo alboan dagoen panel informatiboa lekutik atera zuen, hain zuzen ere.

## Denis Itxaso eta Maite Cruzado Gatz Museora etorriko dira

Otsailaren 27an izango da bisita, gatzaren ekoizpena eta merkaturatzea diruz lagundu edo ez erabakitzeko

**Eneko Azurmendi** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udala Gobernuak legealdi honetarako –hiru urte falta zaizkio– duen helburu nagusietako bat da herriko gatzaren ekoiztea eta Euskal Herri mailan merkaturatzea.

Horretarako, HAZI fundazio publikoarekin hitzarmena sinatuta, aurrerapauso garrantzitsu bat egin du. Izan ere, hitzarmen horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak 50.000 euroko diru laguntza emango dio. Proiektu honen bigarren fasea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza lor-

tzeari izango litzateke. Helburu hori izango du, hain zuzen, Denis Itxaso Kultura, Turismo, Gaztedi eta Kirol eta Lankidetzako diputatuak eta Maite Cruzado Turismo diputatuak otsailaren 27an Leintz Gatzagara egingo duten bisitak.

"Gure helburua fundazio bat lortzea da, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundia batzen dituen. Hori da proiektuaren aurrera eramateko ikusten dugun bide bakarra. Beraz, ea Aldundia batzen den", adierazi du Eneko Zankada alkateak.

## Soran Etxean egingo da Inauterietako bazkaria, urtero legez

Abenduaren 25ean ospatuko dituzte inauterietako Gatzagan. Aurtengo gaia *Baso sorgindua* izango da eta horren gaineko mozorroa prestatu beharko dute herritarrek, bakoitzaren interpretazio librea.

Egun horri begira, bihar, zapatua, 11:00etan hitzordua dute Ludotekan herriko gurasoek eta

haurrek. "Apaingarriak jarriko ditugu, datorren asteburura begira. Gaia kontuan hartuta, zuhaitz bat egitea, adibidez", azaldu du Aitziber Gorosabelek, Gurel elkartearen kidea.

Bazkariari dagokionez, Soran Etxean izango da, azken urteetan bezala. Nagusien menuak 15 euro balioko du eta haurrenak, berriz, 10 euro. Izena emateko, hotelera bertara gerturatu behar da. Bazkalostea Humberto disko jartzaileak alaituko du.



Lierni Altuna alkatea Arabako Foru Aldundiko ordezkariekin ur biltegi berria atzean dutela. MAITE TXINTXURRETA

## Luzaroan esperotako ur depositua inauguratu dute

Ibarrako biztanleak urez hornitzeko depositu berria inauguratu zuten egubakoitzean Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariak. Duela bi legegaldiko eskaerari erantzunez egin dute eta ur depositu zaharraren edukiera laukoizten du

### Maite Txintxurreta ARAMAIO

Mila metro kubikoko edukiera dauka Aramaioko ur depositu berriak, eta dagoeneko bi hilabete daramatza funtzionamenduan. Urtebete iraun dute hura eraikitze lanek, eta Ibarrako biztanleei ur beharrak asetzera dator.

Pasa den egubakoitzean egin zuten inaugurazio ekitaldi ofiziala Aramaioko Udaleko zein Arabako Foru Aldundiko ordezkariekin. Lierni Altunak gidatutako bisita izan zen eta bertan izan ziren Josean Galera, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza diputatua; Amaia Barredo, Ingurumen Saileko zuzendaria; eta Ane Martinez de Antoñana, Ingurumen Saileko teknikaria.

Honela azaldu zituen depositu berriaren ezaugarriak Josean Galerak: "Depositua berri bat eraikitzearen alde egin dugu, mila metro kubikokoa, lehenagoaren edukiera laukoizten duena eta kota altuago batean da-

goena, modu horretan presioak ahalbidetu dezan ura hobeto eta leku gehiagotara iristea. Honek ahalbidetuko du Ibarra ez ezik, etorkizunean gertuko beste auzo batzuk ere hornitzea. Beraz, Aldundiaren eta Ingurumen Sailaren betebeharra izan da, kasu honetan, Aramaioko herria laguntzea eta ur edangarriaren hornikuntza bermatzea biztanle guztiei".

Galerak azaldu du depositu berriarekin bermatuta dagoela datozen 25 urteotako ur hornikuntza, gutxienez.

### Aspaldiko eskaera gauzatu

Duela bi legegalditik dator Ibarrarako ur depositu berri bat eraikitze eskaera, Aramaioko

**DEPOSITUKO LANEK INTZIDENTZIAK SORTU DITUZTEN ARREN, ARAZORIK GABE ARI DA FUNTZIONATZEN**

Udalak beharrezkotzat jotzen baitzuen, orain artekoa zaharrituta zegoen eta.

"Ibarrak zuen depositua zaharra eta txikia zen, eta orain, gaur egun dauden biztanleendako eta etorkizunean etor daitezkeenendako depositua daukagu. Lehenago, eguraldi txarrarekin filtrazioak egon ohi ziren sarri, eta ura, agian, zikinago ere joaten zen; orain, berriz, garbigo doa. Lehengoa baino gorago dagoenez, ura indar handiagoz helduko da. Aurrerapausoa da", azaldu zuen Lierni Altunak.

### Urtebete azpiegitura egiteko

Lehenik, Udalak lurra erosi behar izan zituen. Ondoren, Arabako Foru Aldundiak baiezkota eman zuen, eta duela urtebete hasi zituzten azpiegitura berria egiteko lanak.

Azken urtean, ur mozketak izan dira depositu berriaren lanen eraginez, baina Altunak azaldu du arazorik gabe ari dela funtzionamenduan.



Gantzagara bidean eroritako zuhaitza errepedea oztopatzen. ARAMAIOKO UDALA

## Asteleheneko haizeteak hainbat kalte eragin ditu inguruan

Zuhaitzak erori ziren bidera, baina Aldundiaren, udal langileen eta herritarren lanarekin konpondu zuten arazoa

### X.G. ARAMAIO

Asteleheneko haizete bortitzak gogor astindu zituen Aramaioko bazterrak, eta eroritako zuhaitzek hainbat kalte eragin zituzten errepedeetan eta argindarren hornikuntzan.

Eguneko lehen orduetan hainbat errepede moztuta zeuden. Oleta eta Albina inguruan Arabako Foru Aldundiko langileak bidetik oztopoak kentzen aritu ziren. Horrez gain, Gantzagara, Ametzura eta Arexolara doazen bideetan ere, jausitako zuhaitzek ibilgailuak pasatzea eragozten zuten.

### Argiteria arazoak

Haizeak gogor jotzerakoan ohikoa izaten da argindar hornikuntza arazoak egotea. Udalak argindar sorgailu propioa jarri zuen pasa den urte bukaeran, eta astelehenean lehendabizikoz erabili zuten. Lau ordu inguruz

ondo funtzionatu zuen, Ibarrako eta hainbat auzotako argindar arazoari konponbidea emanda, baina handik aurrera arazoak eman zituen. Orain, makinaren mantentze-lana daraman enpresako teknikariet dagokie arazoaren jatorria ikertzea.

### Udalaren esker hitzak

"Gure haranean udalak eta herritar ezberdinen artean ahalik eta azkarren Arexola, Gantzagara eta Ametzuko bideetan jausitako zuhaitzak kendu ziren. Ondoren, Foru Aldundiko langileen laguntza izan genuen. Aramaion, zorionez, etxean motozerrak dituzten bizilagunak ditugu, eta lagungarria da. Baina horren gainetik, elkarriz laguntzeko beti prest dauden herritarrak ditugu, eta Udalaren izenean eskerrak ematen dizkiet, beste behin", adierazi du Lierni Altuna alkateak.

## Arbel Kooperatiba dendari euskaldun baten bila ari da

Aramaioko Arbel Kooperatibak pertsona euskaldun baten beharra du, hain justu, dendari lan egiteko.

Horrenbestez, interesa dutenek curriculuma bidal dezakete [arbel@arbel.eus](mailto:arbel@arbel.eus) helbidera otsailaren 25a baino lehen. Zalantzarik izanez gero, 945 44 51 19 edo 688 69 57 63 telefonora deitu daiteke.

## Astearte gauean lapurretan egin zuten Anboto tabernan

Azken urtean jasan duten laugarren lapurreta izan da. Hain zuzen, 05:00 inguruan bi ezezagun leihotik sartu ziren, alarmaren txirrina desaktibatuta, eta makina txanponjaleko dirua eraman zuten.

Añai tabernan ere lau aldiz sartu dira uztailetik hona, eta, bi kasuetan, makina txanponjaleko dirua izan dute helburu.



Zigoitian egindako lan txukunagatik orain arteko puntuaziorik altuena jaso zuen Xabi Igoak. ARABAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA

# Bitik bi garaipen herriko Bertso Eskolakoentzat

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketako lehen bi finalurrekoak Manex Agirrek eta Xabi Igoak irabazi dituzte. Domekan lehen itzuliko azken saioa egingo dute Dulantzín eta Paula Amilburu bere maila onena plazaratzen ahaleginduko da

## Xabi Gorostidi ARAMAIO

Aramaioko Bertso Eskolan lan aparta egiten ari dira, eta emaitzak hor daude: bi finalurreko, bi garaipen. 2017ko Arabako Txapelketan duten ordezkariak zabala ere horren erakusle da. Hamazortzi bertsolarietik sei aramaiokarra dira, baina, horretaz gain, Iñaki Viñaspre abetxukoarra ere Aramaioko eskolan aritzen da. Hori guztia kontuan izanda, bi finalurrekotan, bi garaipen, eta bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren postu bana pilatu dituzte.

## Igoa garaile Zigoitian

Aurtengo txapelketako bigarren finalurrekoa Zigoitian jokatu zen, sei bertsolarietatik hiru aramaiokarra zirela. Bertan Xabi Igoa izan zen puntuaziorik altuena jaso zuena (239 puntu), eta, garaipenari esker, bigarren itzuliko 5. finalurrekoan abestuko du, martxoaren 12an, Laudion. Egindako saio borobilari esker, orain arte egindako kan-

taldietako puntuaziorik onena jaso zuen. "Saioan zehar larri antzean nengoen, eta behin amaituta ez nuen poztasun handirik transmititu ingurukoengan. Baina behin jasotako puntuazioa ikusita, pozik eta itxaropentsu, bigarren itzulira begira".

Iñaki Viñaspre ere fin ibili zen eta 230 punturekin bigarren postua eskuratu zuen. Andere Arriolabengoa laugarren geratu zen. Saio gorabeheratsua izan zuela azaldu du. "Oso azkar pasa zitzaidan saioa. Zortziko handian eta bakarka egindako kantaldiekin oso gustura geratu nintzen, baina ez, aldiz, puntukako erantzunetan".

Iker Agirreren kasuan, saioak aurrera egin ahala seguruago sentitu zen oholza gainean. "Blokatu samar hasi nintzen, baina amaieran pozik bukatu nuen egindako saioarekin", esan du.

## Paula Amilbururen txanda

Domekan Dulantzín jokatu da hirugarren finalurrekoa. Bertan

abestuko du Paula Amilburuk, oraindik debutatu ez duen aramaiokarra. Amigdala ebakuntza egin berritan helduko da, eta zalantzak ditu saio osoari eusteko gai izango ote den. Horrez gain, aurtengo txapelketa beste batzuetan baino gogo gutxiagorekin hartu duela aitortu du: "Aurtengo bertso eskoletan irakasle hasi naiz. Afiziotik ofiziora pasatzean, motibazio gutxiagorekin noa txapelketara".

## Bigarren itzulia

Dulantzín saioarekin amaituko da fase finaleko lehen itzulia. lehen saioetako garaileek definituta dute bigarren itzuliko zein plazatan abestuko duten, eta gainontzeko parte hartzaileek jasotako puntuazioaren arabera abestuko dute batean edo bestean.

Seigarren eta azken finalurrekoak Aramaion jokatu da, eta herritarren babesa klabea izan daiteke finalerako txartela lortzeko.



Datorren egubakoitzean landatuko dituzte fruta-arbolak Haur Hezkuntzakoek. UDALA

## Baserritarrekin batera pago motzen garrantzia ezagutzera

Aspalditik Zuhaitz Eguna izan dena Natura Eguna izatera pasa da, baserritarren lana balioan jartzeko

## X.G. ARAMAIO

Aspalditik daramate Udalak, San Martin Eskolak eta Guraso Elkarteak Zuhaitz Eguna elkarlanean antolatzen. Aurten, ordea, ekimenari bueltatxo bat eman, eta beste ikuspuntu batetik lan-tzea erabaki dute.

"Azken 60 urteetan %30tik %80ra pasa da lurzorua estalduran zuhaitzek duten presentzia. Ganaduak bere lekua behar du, eta mendi punta inguruetan zuhaitzik gabeko eremuek paisaia polita uzten dute", azaldu du Jon Ugartek, Mendi eta Ingurumen zinegotziak. Hori

dela eta, baserritarren lanean eta horrek naturan duen eraginean jarriko dute fokua hemendik aurrera.

## Zapatuan lehen irteera

Gaur, pago motzekin lotutako bi ikus-entzunezko landuko dituzte Lehen Hezkuntzako ikasleek; horietako bat Aramaion ikazkin aritutako Basilio Ugarteri buruzkoa izango da.

Bihar goizean 09:30ean San Kristobalera abiatuko dira. "Udalaren jabetzako lur batzuetara joango gara, pagoen adarrak moztera", azaldu du Ugartek.



NIRE USTEZ

MANEX ARRIOLABENGOA

## Tik-tak

Natura aztertzean, unibertsoan zehar, erritmoaren presentziaren lehenengo aztarnak aurkitzen ditugu; gaua egunarekin txandakatzean, itsasoetako olatuak joan-etorrian dabiltzanean, bihotz taupadetan edota gure arnasketan, besteak beste. Horregatik, erritmoak denboran zehar errepikakorrak diren mugimenduekin harreman zuzena eta estua duela esan dezakegu.

Are gehiago, erritmoa naturaren zutabe indartsuenetako bat dela esango nuke, bizitza ezin baita erritmorik gabe ulertu. Espazioaren eta denboraren arteko ordena eta proportzioa da, eta honek ez dio arte munduari bakarrik eragiten. Naturaren oreka lege bezala ere funtzionatzen du, bizitza mugimenduekin sorraraziz.

Ondorioz, bizitzaren adar guztietan agertzen da erritmoa. Gainera, bere kabuz bizi da, eta gure esku dago eskaintzen digun espazio eta denboran mugitzea. Musikan gertatzen den moduan, erritmoaren interpretazioak sortuko baitu gure bizitzaren askatasuna.



Gazte bat adineko pertsona bati laguntzen, Mizpirualde egoitzan. JULEN IRIONDO

## Emandakoa baino diru gehiago, laguntzetarako

Udalaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako 51.000 euro ditu 2017ko aurrekontuak, iaz beste; 31.404 euro banatu zituzten 2016an, 25 onuradunen artean. Erakundeen artean osatutako laguntza sarea goraiatu du Ander Alberdik

**Julen Iriondo** BERGARA

Gizarte Zerbitzuen alorrean, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzen tramitaziorako erraztasunak ematen ditu Udalak, baina bereak dituen laguntzak ere banatzen ditu, horrez gain. Hain justu ere, hori da Udalaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (UGLL) kasua; prestazio ekonomiko hau premia puntualak, batez ere etxebizitzako gastuei –alokairua, hipoteka, argia, ura, gasa...– aurre egiteko ematen den laguntza da, eta izen (GLL) eta izaera bereko Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren osagarri da –Jaurlaritzarenak banatzen dira lehenengo, 107.550 euro iaz, eta Udalarenak banatzen hasten dira haiek bukatzean–.

Zentzu honetan, 2016an 51.000 euro izan zituen Udalak Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan –kopuru bera da aurreko–, eta 31.404 euro banatu zituzten horietatik. Ogasun batzordeko buru eta Gizarte Zerbitzuetako ba-

tzordeko kide Ander Alberdik dio eskatzaileek "baldintzak ez betetzea –eroldaren epeak ez betetzea, ondasunak izatea, beste laguntza batzuk jasotzea...–" dela Udalaren laguntza hori agor ez dadin arrazoiak: "Dauden baliabideak erabiliz, eskatzen duten herritar guztien eskaerei irtenbidea eskaintzen zaie eta, indarrean dagoen legedia betez, inor ez da baztertuta geratzen".

GLLen kasuan, ondorengoak dira eskatzaileek bete beharreko baldintzak: "Laguntza eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta gutxienez eskaera egin baino sei hilabete lehenago EAEko edozein herritan erroldatuta egotea; uneko elkarbizitza uni-

**"GURE ARTEAN BIZI DIREN ETA BEHARRA DUTEN GUZTIEI LAGUNDU BEHAR DIEGU"**

tatea gutxienez eskaera egin baino urtebete lehenago eratu-takoa izatea, salbuespenak salbuespen; eta 18 urtetik gora izatea, salbuespenak salbuespen; eta laguntzaren helburu diren premia puntualak aurre egiteko nahikoa baliabide ez izatea". Izen bereko Udalaren laguntzetan aldatzen dena da azken bi urteetan herrian erroldatuta egotea eskatzen dela.

Alberdik nabarmentzen du erakunde desberdinen artean egituratutakoa dela gizarte zerbitzuen alorreko azpiegitura eta laguntza multzoa: "Urte askotako lanaren ondorengoa da, pertsona eta erakunde askoren lan itzelaren ondoren antolatutako sarea eta zerbitzua. Beti ere pentsatuta, eta gaur ere hori zaindu behar dugu, gure gizarteari eta gure artean bizi diren eta beharra duten guztiei lagundu behar diegula". Udaletxean edo Udalaren webgunean eskura daiteke laguntzaren gaineko informazio gehiago.

## Asanblada irekia egingo du bihar Sortuk

Herria "martxan" jartzeko "konpromiso zehatzak" proposatuko dituzte, 'Herri proiektua' sortzeko

**J.I. BERGARA**

Bergara "gainbehera" doala dio Sortuk, eta horren erakusle jartzen du berriki EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartutako udal aurrekontua, beste inoren iritzirik kontuan hartu gabe aurrera ateratakoa, diotenez. Kritikatzen dute, adibidez, Arrizuriagan "proiektu bat egiteko aurrekonturik ere" ez dagoela.

Sortuk dio Bergarak *Herri proiektua* behar duela, "herrian konpartitua eta adostua", eta bi hilabete daramatzatela euren "oinarri sozialarekin" proposamen bat lantzen –dokumentua Arrano tabernan eskura daiteke–. Bihar, zapatua, aurkeztuko dute, 09:30ean Aranzadi ikastolan.

*Bergara 2026, bizimodu ona egin, eragin izenekoarekin* proposatuko dute konpromiso zehatzak "praktikara" eramatea; adibidez, "energia garbiaren alde", bultzada ematea "ehunka herritarrek" Goiener moduko egitasmoekin bat egiteko, eta ondoren Udalak eta enpresek. Biharko bilera orain arte landutakoa herritarrei azaltzeko da, *Herri proiektuak* "guztion artean" egindakoa behar duela, duten proposamena ez delako "aldatu ezin daitekeen totema".

## Aratusteetan murgiltzeko gonbidapena merkatariari

Pellen eta torraren martitzeneko ikastarorako, gaur izena eman daiteke oraindik ere

**J.I. BERGARA**

"Festa giroa ahalik eta txoko eta kale gehienetara zabaltzeko asmoz", Bergara Bizi ekimenaren barruan, herriko saltokietako erakuslehoak apainduta ikusi nahi dituzte Aratusteetan. Horretarako, kit bat eta kartela banatuko dituzte; apainketa lanak otsailaren 22rako egin behar dira eta martxoaren 1era bitartean mantendu. Inauterietako kita lortzeko, bakoitzak bere kaleko ordezkariari eskatu behar dio; Bedelkarreko bazkideek doan eskuratuko dute, eta bazkide ez direnek 10 euro ordainduta.

Horrez gain, martitzenean, 18:00etatik 20:00etara, Gure Ametsa elkartearen egingo den pellen eta torraren ikastarorako gaur arte eman daiteke izena –doan, 943-77 91 59 zenbakian–.

**Aratusteen hasiera**

Bergarako Musika eta Dantza Eskolako dantzari, txistulari eta trikitilariak Sorgin dantza eskainiko dute eguenean, 19:00etan San Martin plazan hasita. Hartza ere aterako da, domadorearekin. Horrez gain, Aratusteetan ohikoak diren txerriekiekin egindako pintxoak egongo dira hainbat tabernatan.

## Beharpenetako azken prezioen azoka bihar frontoian

Bedelkarrek antolatuta, neguko beharpenetako azken prezioen azoka egingo dute bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan. Hamaita izango dira denera postua jarriko duten komertzioak: Amua, Anezka, Gracian, Igarza, Iratxo, Jo'ka, Junbiju, Laket, Mirari, Subijai eta Xuxu. Askotariko produktuak eskuratu ahal izango dira, beraz.



Aurreko azoka bat. IMANOL SORIANO





Domeka Azokaren aurreko edizio bat. IMANOL SORIANO

# Lehengoeak segitzen dute, berriak badatoz

Etzi egingo dute berriro Domeka Azoka, berrerabiltzea, trukea eta artisautza bultzatzea helburu dituenena. 2014an hasi ziren egitasmoarekin, eta indarrean jarraitzen du, ohiko bilakatu diren postuekin, eta gehitu zaizkien berrieekin

**Julen Iriondo** BERGARA

Oraingoan ere makinatxo bat izango dira San Martin plazan jarriko dituzten postuak; makinatxo bat, askotarikoekin -11:00etatik 14:30era-. Hiru urte egingo ditu ekainean Azoka Bergaraten dinamikaren barruan sortutako egitasmoak, eta erosten artean jarraitzaileak dituen bezala, postuen bestaldekoen artean ere badu harrera hona. Bi adibide dira Sandra Morillas eta Jone Santamaria, biak herrikoak, lehena ia edizio denetan izan dena, oraingoan aurrenekoz egongo dena bigarrena.

**Lehenengoan ez, beste denetan**

Sandra Morillasek kasualitatez egin zuen topo azokarekin aurreneko aldiz egin zenean, ez zuen haren berririk. "Oso ideia ona" iruditu, eta ordutik ez du hutsik egin, postua jartzen dutenen artean: "Bi ume dauzkat, eta arropa bota egiten nuen, edo gorde. Baina ume gehiago ez badut izan behar, gorde zerta-

rako? Beraz, postua jartzea erabaki nuen. Euro batera jartzen dut dena, eta etortzen zait jendea, agian, diru asko ez duena, eta eurei ere lagundu egiten diet".

Eta arrazoi gehiago: "Birziklatu egin behar delako ere egiten dut; baita nire umeei erakusteko gauzak ezin direla hain erraz bota, berrerabili egin behar direla. 4 urteko umea nirekin etortzen da azokara, oso gustura egoten da, lagundu egiten dit, eta ondo pasatzen dugu". Eta berari ere ondo datorkio lortzen duen dirua: "Euroka, ehunetik gora ateratzen ditut aldiko. Bi edo hiru bezero finko ditut, zuzenean nigana etortzen direnak".

**Aurreneko aldiz**

Lehendik ere buruan zerabilen Jone Santamariak Domeka Azokan parte-hartzea, eta oraintxe erabaki du urratsa egitea: "Beti erakarri izan naute bigarren eskuko azokek-eta. Eta Bergaran lehen aldiz egin zenetik, aspalditik eduki dut buruan parte

hartzea, eta oraintxe izan da momentua, denbora izan dudalako etxean garbiketa egiteko eta erabiltzen ez ditudan arropa denak biltzeko".

Arropa gutxi erosi arren, beti "lau gauza berak" erabili eta gainerakoak bazterrean geratzen direla dio: "Beste pertsona batek hartzen du eta eman diezaioke beste erabilera bat, sinpleki berarentzat berria delako". Bigarren eskuko filosofiarekin erabat egiten du bat Santamariak.

Trukerako aukera baztertu gabe, oso prezio txikietan jarriko ditu etxetik eramandakoak 28 urteko gazteak: "Euro baten, bitan... Diruagatik ez duzu egiten; kontua da hara joatea, jendearekin egotea, giroa...". Printzipioengatik bai: "Erosi-bota-erosi horrek kezkatzen nau. Eta arropekin badira beste bide batzuk, edukiontzi zuriarekin-eta, baina bigarren eskuko azokek ez dute hemen beste leku batzuetan adinako indarrik, eta bultzatzeari ondo deritzot".



GOIENA

## Zuhaitzak bota, batez ere

Aurreko aste amaierako eta oraingoaren hasierako haizeteak botatako zuhaitzak utzi zituen, batez ere, Bergaran. Boluan hiru akazia, eta 47. atariko teilatutik gertu geratu zirenez, zatika erretiratu zituzten. Inguru bereko igogailuetako batean, berriz, txapa bat altxa zuen haizeak.

JOLAS





JOKO ETA JOSTAILU GUZTIETAN %30

Aprobetxa ezazu aukera!

Barrenkalea 27 · BERGARA · 943 76 46 48

# Lokatza, emakumezkoen txirrindularitza bultzatuz

Bergarako ziklismo elkarteak jendea bizikletaren mundura erakartzeko lanean dihardute etengabe, eta emakumeen presentzia eskasak kezkatzen ditu. Lanketa horren baitan, San Martzialera kronoigoera antolatuko dute aurten, nobedade modura

## Maite Txintxurreta BERGARA

Begarako Lokatza ziklismo elkarte ez da lehiara soilik bideratutako elkarte bat, inondik inora ere. Euren zeregina ziklismoaren kultura zaindu eta esparru guztietara zabaltzea da.

Bada, arlo honetan elkartek duen erronka nagusietako bat emakumeen txirrindularitza sustatzea eta emakumeak Lokatza parte hartzea animatzea da. Egungo egoeraz galdetuta, elkarteak presidente Jon Unamunok azaldu du iaz alebin mailan bazela parte hartzen zuen neska gazte bat, baina aurten dagoeneko ez. Eskolar mailan, aldiz, badihardu neska batek. Kopuru hori handiago izatea nahiko lukete, baina.

## Hitzordua San Martzialen

Aurtengo egutegian beste proba bat txertatu du Lokatza ziklismo elkarteak: San Martzial egunean –ekainak 30, egubakoitza, ez erromeria egunean– egingo duten emakumezkoen San Martzialera kronoigoera. Arratsaldean izango da proba hori, eta kadeteak, gazte mailakoak eta nagusi mailako txirrindulariak ikusteko aukera izango da egun horretan Bergaran.

Txirrindularitza elkarteak presidentek aurreratu du txi-



Iaz Bergarako kaleetan egin zuten Demasa kriteriuma. MIREN ARREGI

rrindulariak Bergarako herri-gunean hasiko direla, lautadan, eta ondoren San Martzial mendian gora egingo dutela, Lamaño-Etxeberri nekazari turismoa dagoen tokiraino, bertan izango baita helmuga.

## Aurrekoak

San Martzialgo kronoigoera ez da izango, baina, Lokatzak antolatzen duen emakumezkoen lehen proba; aurrez ere hainbat lasterketa eta hitzordu prestatu izan dituzte, emakumezkoen txirrindularitza ikusarazten eta herrian zabaltzen lagundu du-

tenak. Hor dago, esate baterako, 2010ean lehenengoz egin zuten Osintxuko lasterketa, kategoria guztietako txirrindulariekin. 2012ko edizioan, egin zuten azkenengoan, proba hura Espainiako Koparako puntuagarria izan zen.

Horrez gain, Unamunok gogorarazi du 2014an eta 2015ean Gipuzkoako Itzuliko etapa bana Bergaran egin zutela.

Iaz ere Euskal Herriko puntako emakumezko txirrindulariak bildu zituen Bergaran 2016ko Kilometroak jaiaren bueltan antolatu zuten Demasa kriteriumak.

## Lagunarteko hockey partiduak domekan Labegaraletan

Lagunarteko bost partidu jokatuko dituzte Hanka Labankako kategoria desberdinetako taldeek Labegaraletako kiroldegian. Benjamin mailakoek jokatuko dute lehenik (10:00); ondoren, kadeteek; gero, alebinek; eta segidan, infantilek. 14:00etan, Euskal Liga-ko seniorren txanda izango da. Ribabellosako Dragons taldearen aurka jokatuko dute guztiek.

## Eskubaloiko BKEk Eibarren kontra jokatuko du etxean

Bihar, zapatua, eskubaloiko talde nagusiak Haritza Eibar Eskubaloia taldea hartuko du Labegaraletan (17:30). Mahoneroak zortzigarren daude taulan, 12 punturekin –bi postu gorago dagoen aurkariak baino bi gutxiago–. Etxeko azken partiduak galdu egin dituzten arren, joera aldatzen saiatuko dira.



Borislavova, eskuinean. MIKEL MUJIKA

## Mariya Borislavova igerilaria hirugarren izan da Gipuzkoakoan

Begarako igerilari gazteak "pozik" itzuli dira asteburuan Legazpin jokatutako Gipuzkoako alebin eta benjamin mailako txapelketatik, Mikel Mujika entrenatzaileak esan duenez. Izan ere, emaitza onak eskuratu dituzte. Nabarmenezkoena Mariya Borislavova benjaminaren podiuma izan da, hirugarren geratu baita 50 metroko bular igeriketa proban.

## Finalerdietara sailkatzeko azken bi partiduak

Soraluce lau t'erdiko txapelketako azken final-laurdenak martitzenean izango dira

## M.T. BERGARA

Asteon jokatuko dute Soraluce lau t'erdiko pilota txapelketako hirugarren final-laurdenak.

Promes mailan, partidu parekatu samarra jokatuko dute Gartzia eta Elolak. Lehen partizialean 7-0 galtzen hasi bazen ere, Elolak partiduari buelta eman zion, eta 14-22 irabazi zuen, finalerdietara pasa lortuta.

Gero, nagusien partiduak etorri zen, Santxoren eta Prietoren artekoa. Kasu horretan, bigarrenak orkatila bihurritu zuen 6-8 irabazten zihoala, eta Santxok 20. tantoa egitean erretiratu egin behar izan zuen.

Datorren martitzenean jokatuko dituzte azken final-laurdenak. 19:30ean hasita, promes mailan, Jon Alberdik eta Unatx Riolek jokatuko dute eta nagusietan, berriz, Aitor Etxeberria eta Iker Salaberria arituko dira aurrez aurre.

Bestalde, gaur, 19:30ean, bi partidu izango dira Udaltalekuan. Lehenengo, nagusien bigarren mailako partiduak jokatuko dute: Bergara-Eibar. Horren ostean, berriz, emakumezkoen gazte mailako palako Uda-berri txapelketari hasiera eman go diote, Bergara-Intxurre partiduarekin.

## Umeei zuzendutako bizikleta festa

Bihar, zapatua, otsailak 18, umei zuzendutako bizikleta festa izango da, Lokatzak antolatuta, Seminarioko jolastokian, arratsaldean. 16:30ean hasiko da, eta ordu horren bueltan edo lehentxeago pasatu daitezke bertatik izena eman nahi dutenak –izen ematea doan izango da–. Opariak izango dira bizikleta festan parte hartzen duten

neska-mutiko guztientzat, eta, horretaz gain, herriko hiru txirrindulari profesional ere izango dira bertan. Mikel Aristi, Eneko Lizarralde eta Julen Irizar izango dira txirrindulariak. Hala, umeek eurekin egon eta argazkiak ateratzeko aukera izango dute.

Ohikoa den moduan, bizikletarekin egiteko zirkuitu bat jarriko dute, eta, adin-taldeka

sailkatuta, itzuliak egingo dituzte neska-mutilek. Musikaz girotuta izango da festa.

Begararen laugarrenez egingo dute halako bizikleta festa bat, eta berriki, joan den asteburuan, Antzuolan egin dute lehenengoz. Txirrindularitza haurrei gerturatzea eta bizikleta gainean goza dezaten dira ekimen horren helburuak, eta belaunaldi berrietako neska-mutirik Lokatzaren parte izatera animatu nahi dituzte.

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



Udaleko kirol arduradunen eta kirol elkarten arteko bilera, eguaztenean. O.E.

## Berdintasunak eta ingurumenak pisua hartu dute diru laguntzetan

Udaleko Kirol Sailak kontuan hartuko ditu bi irizpide horiek herriko kirol elkarteak diruz laguntzerakoan

O.E. BERGARA

Diru laguntzen gaiarekin hasi zuten Udaleko Kirol Saileko arduradunek herriko kirol elkarteetako kideekin eguaztenean Agorrosinen egin zuten bilera. Iñaki Ugarteburu teknikariak aipatu zien 90.000 euro banatu dituela aurten Udalak, iaz beste. Eta banaketan bi irizpide gehiago hartuko dituztela kontuan: "Taldean zein antolatzen diren ekintzetan berdintasuna egotea kontuan hartuko da; laguntzaren %5 hartuko luke horrek, gutxi gorabehera. Ingurumen balioak ere neurtuko dira". Igor Oiarbi-

de zinegotziak gaineratu zuen aurtengo deialdia martxoan egitea dela asmoa. Eskaria egiterakoan aurkeztu beharreko papearak eta epeak errespetatzeko eskatu zien Ugarteburuk elkarteetako kideei.

Kiroleko plan estrategikoarekin hasita daude eta datozen asteetan elkarteekin bilerak egingo dituztela esan zuen Ugarteburuk. Bestalde, kirol egutegia zehazten ari dira Udaleko eta elkarteetako ordezkariak eta kirola kalera ateratzeko ekintzak antolatzeko gonbidapena jaso zuten elkarteetako kideek.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

## Santa Ageda eta Stoltz

Bergaran, eta Euskal Herri osoan, Santa Ageda bezperan abesten dira koplak, zer ikusi handirik ez daukatenak martiri siziliarrarekin. Zalantzan dago bi bular edo bakarra kendu zotien, bere birjinitatearen defentsan.

Gure kasuan, San Joxepe erretiratu elkarteetako kideok bertso umoretsuak kantatu ohi ditugu, maila handikoak izaten direnak, eta beti errespetutsuak; aurtengoak izan dira Xabier Osarenak, aipatzen zituztenak herriko arduradunak, tabernariak, eta azaltzen zituztenak zaharminak eragindako gure problemak.

Baina bertso hau abesten genbiltzala... *Nahiz ta dirurik ez daukagun poltsikoan ordaintzeko, borondatea ez zaigu falta esker onak emateko* ...gogoratu nuen Santa Ageda dagoela San Pedroko Stoltz organoaren gain-gainean, mihiztatuta bertan; eskultura galanta eta ederra, esaten bezala: "Mila esker zuen laguntzagatik".

Bertso hori, beraz, horretarako egindakoa ez izan arren, oso egoki doakio.



Aurreko edizio bateko sari banaketaren argazkia. GOIENA

# Sortzaileendako urteroko plaza, Koldo Eleizalde

Zabalik dago lanak aurkezteko epea; lehiaketan parte hartu ahal izateko adin mugarik ez dago. Lau dira alorrak: ipuina, komikia, bertsoa eta interpretazioa. Garrantzi berezia ematen diete ahozkoiei: "Hizkuntzarentzat are inportanteagoa da"

Julen Iriondo BERGARA

Aurtengo 32. edizioa du Koldo Eleizalde lehiaketak: "Sorkuntza bultzatzeko asmoz, sorkuntzari plaza bat eskaintzeko asmoz, herritarrei sortzaile izateko gonbidapen bat eginaz antolatzen dugu; azken batean, hizkuntza batentzat oso-oso garrantzitsua da sorkuntza bultzatzea eta herritarrek sortzaile izatea", dio Udaleko Euskara Zerbitzuko buru Estepan Plazaolak –Euskara batzordeak antolatzen du–.

Eta diziplina askotan bultzatzen dute sorkuntza; izan ere, idatzizko zein ahozko generoetako lanak aurkez daitezke: idatzizkoen artean daude ipuina eta komikia; eta ahozkoetan, bertsoa eta kontaketa edo interpretazioa –azken horretan aurkez daitezke antzerki lanak, kontakutako ipuinak, umorezko pasadizoak, txiste saioak... Parte-hartzearen arabera, erabaki dezakete genero horiek bereizita baloratzea–. Batean edo bestean hasteko, "lehenengo urrats

modura", Koldo Eleizalde bere funtzioa betetzen duela dio Plazaolak.

"Hasteko" dio, parte-hartzaile gehienak ikasleak izaten direlako; dena den, adin denetara zabalduko lehiaketa da –eta ez, gainera, herrian jaio edo bizi direnentzat bakarrik, baita bertan lan egiten edo ikasten dutenentzat–. Eta "hasteko", ze izaten dira gero sorkuntzarekin harremanetan jarraitu eta lan txukun gehiago plazaratzen dituztenak ere: "Koldo Eleizalden parte hartu duten askok, nazio mailako lehiaketetan ere parte hartu izan dute eta sariak lortu izan dituzte". Elene Etxaniz edo Uxue Agirre aipatzen ditu, adibidez, Euskara Zerbitzuko buruak.

**80tik gora urterekin**

Baina, esan bezala, adin mugarik ez dago lehiaketan parte hartu ahal izateko, generoa edozein dela ere: "Ipuin idatzian, adibidez, bost kategoria ditugu, hasi txikienetatik eta nagusie-

netara; azkenaldian ez, baina, bere garaian, 80tik gora urterekin Natalio Juaristik, adibidez, parte hartzen zuten".

Ipuin idatziekin bakarrik hasi zen lehiaketak genero aniztasunean asko irabazi du urteekin. Aurtengo nobedadea da bertsoen alorreko lanak paperean zein grabatuta aurkeztu ahal izango direla. Hain justu, ikusi eta entzuteko moduko euskarrirei atea ireki izana da azkenaldiko apustuak bat: "Bereziki ahozkoan sortzaile izateari, ahozkoa lantzeari eta ahozkoasuna aberasteari garrantzi berezia eman nahi diogulako; joan gara, adibidez, bertsoen lanketa eskoletan sartzen, ipuin kontaketa... Azkenean, hizkuntzarentzat idatzizkoa inportantea da, baina ahozkoa are inportanteago; orduan, hori bultzatu nahi dugu".

Apirilaren 5era arte aurkez daitezke lanak –egile bakoitzak nahi beste, genero bakoitzean–. Argibide gehiago Udalaren webgunean dago eskura.



Ikuskizunaren pasarte bat. GOIENA

# Txapeldun baten alderdi guztiak taula gainean

Organik dantza konpainiak El Pont Flotant antzerki konpainia valentziarrarekin eta Kepa Junkera musikariarekin batera sortu duen diziplinarteko ikuskizuna taularatuko du gaur, otsailak 17, Zabalotegi aretoan, 20:00etan hasita

## Maite Txinturreta BERGARA

Gaur, egubakoitza, otsailak 17, Natalia Mongek zuzentzen duen Organik konpainiaren *Txapeldun* dantza eta antzerki ikuskizuna izango da Zabalotegi aretoan. 20:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrerak lehentxoago irekiko duten leihatilan erosi daitezke, bakoitza zortzi euroren truke.

Batez ere, gazteei eta helduei zuzendutako ikuskizuna da Zabalotegin taularatuko dutena. 50 minutu inguru irauten du eta diziplinarteko emanaldia da, testua, zuzeneko musika, bideo-proiektzioak eta umorea uztartzen dituena.

## Musika, dantza eta antzerkia

*Txapeldun* ikuskizuneari Eneko Balerdi dantzaria da protagonista nagusia, eta, dantza gain, antzerki interpretazioa ere jorratzen du. Organikeko zuzendari Natalia Mongeren esanetan, "taulararen gainean bakarrik egoteko, interprete indartsua

behar du izan, eta horrelakoa da Balerdi". Haren interpretazioa gorputz mugimenduetan eta keinuetan oinarritzen da, horixe baita Organiken ezauzgarri bereizgarria.

Organik taldeak Valentziako El Pont Flotant antzerki konpainiarekin jardun du ikuskizun horretan. Estatu mailan zein nazioartean kritika oso onak jaso dituen laukotea da El Pont Flotant.

Horrez gain, Kepa Junkera musikari bilbotarra arduratu da ikuskizunerako musika originala sortzeaz, Eneko Balerdi interpretearekin batera. Junkerak, era berean, musikari moduan parte hartzen du ikuskizuneari bertan. Hala, trikiti doinuak

## PROIEKTU HONEKIN "KONPAINIA SENDOTU ETA ZABALDU" GURADU ORGANIK KONPAINIAK

izango dira nagusi soinu bandari dagokionez.

## Lehiakortasunaz hausnarketa

Izenburuak adierazten duen moduan, ikuskizunak txapeldun baten bizipenak kontatzen ditu taula gainean, euskal pilota oinarri hartuta, nahiz eta, errealtatean, lehiari irabaztean oinarritzen den kirolaren mundua orokorrean ordezkatzeko aitzakia den kirol hori. Emanaldian, baina, txapeldun horren gloria uneak eta arrakastak ez ezik, kontrako aldea ere erakusten dira: bakardadea, presioa, beldurrak eta hausnarketa.

Bada, ikuskizun horrekin bigarren galdera plazaratu nahi diete ikusleei, horiei buruz hausnartu dezaten: *Zer esan nahi du txapeldun izateak? Zergatik nahi dugu irabazi?*

Organikek proiektu honekin "konpainia sendotu eta estatu mailan zein nazioarteko mailan zabaldu" gura du, hamar urtetik gorako ibilbidearen ostean.

## Banatu dituzte Amodiozko gutunen lehiaketako sariak

Saridunek jendaurrean irakurri zituzten gutunak martitzeneko ekitaldian, musikaz lagunduta. Eider Perez izan da irabazlea, eta bigarren saria Ane Labakak eta Iñigo Legorburuk elkarbanatu dute. Bergarar onenarena Elena Lakarentzat izan da eta gazte saria Izar Odriozolarentzat. Esaldi onenaren irabazlea, Maria Lopez, ezin izan zen joan.



Lakaren errezitaldia. M.T.

## Tapoi Fest, hardcore zaleen jaia, bueltan da kartzela zaharrean

Asteburu honetan egingo dute Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak* irratsaioak antolatzen duen Tapoi Fest jaialdiaren seigarren edizioa. Hasteko, gaur, egubakoitza, Jon Andoni del Amok *Party&Borroka* liburua aurkeztuko du (19:00).

Kontzertuak bihar izango dira, zapatua. 19:00etan hasita, Drop eta Colapso taularatuko dira. 21:00etan, berriz, afari irekia izango da -prezioa: 2 euro-, eta horren ostean, Screaming For Change, Metralleta, Criatura eta Kuma No Motor taldeen emanaldiak. Segidan, Olarius&Brothers rock DJak. Gaueko emanaldietarako sarrera 5 euro da.

## Amaia Santamariaren erakusketak gaur zabalduko ditu atak

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpitan, Amaia Santamaria bergararraren *Berrinterpretazioak* erakusketa inauguratuko dute Aroztegi aretoan. Instalazio eran aurkeztutako argazkiz eta proiektioz osaturiko erakusketa da Santamariarena. "Prozesua irudien gainjartze bat izan da; esate baterako, ikuslearen itzala proiektatzen da, argi bat, erreflexu bat...", dio artistak. Gorputz irudiak dira nagusi, baina irudi unibertsalak, hau da, ez dutenak identitate bakar bat erakusten, osotasun bat baizik. Argazkiak hainbat formatutan daude aurkeztuta. Martxoaren 5era arte bisitatu daiteke mostra.

## Etxarri-Aranazko abesbatzaren emanaldia bihar

Etxarri-Aranazko (Nafarroa) abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan. 20:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrera doan izango da. Alicia Armandarizek zuzentzen duen abesbatza hori beteteranoa eta prestigio-duna da, eta abenduan abesbatzen sari nagusia irabazi zuen Zumarragan.

## Agortu dira Aratuste kontzerturako sarrerak

Astelehen honetan jarri zituzten salgai, Kutxabanken webgunean eta Zabalotegi aretoan, otsailaren 24an Udal Bandak eta Bergarako Orkestrak Udal Pilotalekuan emango duten aratuste kontzertu bereziko sarrerak. Bada, salgai jarri eta hiru orduen buruan guztiak saldu zizuten. 22:30ean izango da emanaldia.

## Diablues Eta Bluecifer zuzenean Etxagi tabernan

Gaur, egubakoitza, Diablues Eta Bluecifer bergararren kontzertua izango da Etxagin (22:30). Bikotea Donostiako Jazzaldian jotzeko lehiaketa batean parte hartzen dabil, eta, lehen sailkapena igaro ostean, martitzenean, hilak 21, Tabakalera joko dute. Eta, hain zuzen, emanaldi horretan sailkatzea lortzen badute, uztailko Jazzaldian arituko dira.



# **GALDEGAZTE DENBORALDI BERRIA**

**GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENeko GAZTEEKIN SAIOA**

EGUAZTENEAN, OTSAILAREN 22AN, 21:30EAN

**GONBIDATUA: TXERRA BOLINAGA (RIP TALDEKO KIDEA)**

**goiena**<sup>“</sup>  
ZU HEMEN ZAUDE



Basalde auzoaren sarreran dagoen belardia, autobus geltokiaren atzealdean. Industrialdea bertan egitea proposatu dio Udalak Mariezcurrena enpresari. MAIDER ARREGI

# Industrialdea, Ingurumen Sailaren onarpenaren zain

Basalde auzoan, Zorroztarrieta inguruko lurretan, industrialdea egiteko aukera berria sortu da. Izan ere, autobideko lanak martxoan hasiko dira eta betetze-lanak egiteko posibilitatea egongo litzateke bertan. Herriko lau enpresak dituzten terreno arazoak eta beharrak ikusita, Udalak aukera hau aproposa izan daitekeela ikusi du eta industrialdea egiteko lehen pausoak eman ditu, autobideko enpresarekin batzartuta

## Maider Arregi ANTZUOLA

Mariezcurrena enpresak martxoan hasiko ditu autobideko lanak. Hala, Udalak industrialdea egiteko aukera berria sortu dela ikusi du. Izan ere, betelanak Antzuolan bertan egiteko tokia badagoela dio Beñardo Kortabarria alkateak: "Betelanak hemen egin edo Aretxabaletan egin, enpresarendako alde ekonomiko handia dago. Eta Antzuolak industrialde baten beharra dauka. Hazten ari diren lau enpresa ditu eta horietako bik jada terreno arazoak dituzte. Horri irtenbidea eman gura dugu; beste norbaitek kanpotik etorri gurako balu, aukera ere izango luke".

Herritarrekin izan berri da Udala eta eurei ere iritzia eskatu die. "Lurjabeekin, herritarrekin eta Hirigintza batzordearekin aztertu dugu gaia. Nekaza-

ritza lurrak birkalifikatu eta industriarako lurra lortzeko asmoz jardun dugu; eta zerbait egin beharra badagoela jaso dugu. Aukera orain etorri zaigu eta urratsa egin nahi dugu".

Mariezcurrena enpresarekin hartu-emana ona dela azaldu du alkateak: "Enpresarekin adostu dugu edozein urrats egin aurretik baimenik izango ote dugun jakin beharra daukagula. Azken bileran adostu genuen Ingurumen Sailarekin eta Ur Agentziarekin kontsultak egitea. Erantzunaren zain gaude. Gero, negoziazioekin hasiko ginateke; izan ere, guk industrialdea eraikitzea gura dugu, eta ez betelana bakarrik egitea bertan".

## 114.000 m<sup>2</sup> gaur egun

Goizper, Elay, Matz-Erreka eta Oerlikon dira herriko lau enpresa handienak eta hazten ari

direnak. Horien artean 114.000 m<sup>2</sup>-ko industrialdea dago egun Antzuolan. Baina, esan bezala, dagoeneko lur industrialaren beharra dute; bereziki, Elayk eta Matz-Errekak.

## EAJ ere ados

EAJk ere beharra ikusten du eta proposamen interesgarria dela dio Luis Javi Telleriak: "Lehenik eta behin, ingurumenagatik. Izan ere, kamioien sartu-irtenak gutxitu egingo lirateke. Eta bestetik, guk ikusten genuen industrialde baten beharra herrian eta halaxe jaso genuen uztailean egindako plan estrategikoan. Enpresak hazten ari dira, baina baita joaten ere. Ez da industrialde handia, baina momentuko beharrei erantzuteko gai da. Borondate politikoa baldin badago, posible da tramitazio guztia egitea".



Industrialdearen behin-behineko planoak. ANTZUOLAKO UDALA

## 21.000 m<sup>2</sup>-ko bi plataforma

Industrialdean bi plataforma egiteko aukera dago. Baina beste bat egitea ere aukeren barruan legoke. Udalaren planteamendua, baina, garbia da: "Urbanizatzea, asfaltatzea, argindar eta telefono sarea... ez dugu nahi betelana bakarrik egitea".

# Txirrindularitza sustatuz txikitxoenen artean

Arrakastaz egin dute lehen bizikleta festa Antzuolan. Herriko haur, gaztetxo zein helduenei zaletasuna gerturatzeko asmoz eroan dute festa Bergarako Lokatza elkarteko kideek. Eneko Lizarralde txirrindulariak bere esperientzia partekatu zuen

**Miren Arregi** ANTZUOLA

41 neska-mutikok hartu dute parte Antzuolako lehen bizikleta festan. Eskolako patioan antolatutako zirkuituari bueltaka, errepideko bizikletak probatzeko aukera ere izan zuten, txirrindularitza gertuagotik ezagutzeko. Murias taldeko Eneko Lizarralde txirrindulari bergararra ere izan zen Antzuolako neska-mutikoekin eta garrantzitsutzat jo zuen horrelako ekintzak egitea: "Ematen du dena futbola dela, eta horrelako ekintzak beharrezkoak dira. Sekulako giroa egon da, gainera, Antzuolan, eta ederra izan da". "Erreferentziak neska-mutikoekin harremanetan ipintzea garrantzitsua izaten da, umeei gustatzen zaie", gehitu zuen Lokatzako presidenteorde Xabier Uribealgok. Emakumezkorik, baina, ez dago Lokatza, eta hor ere ari direla ahalegina egiten azpimarratu zuten: "Bergaran emakumezkoen lasterketa bat antolatzen dugu urtero, eta, emakumezkoak txirrindularitzara gerturatzeko helburuarekin, ikastetxeetan hitzaldiak egiten ere ari gara".

Euskal Herrian txirrindularitza errotuta dagoen kirola da, baina, azken urteetan, jaitziera igarri dute Lokatza Ziklismo Eskolan. Horrek kezka sortu zuen Eskolako kideengan eta hortik abiatuta hasi ziren bizikleta festak antolatzen: "Orain, Murias taldea ere hasi da ezagunago egiten, Bergaran bertan lau profesional ditugu eta hori ez da European toki askotan gertatuko, seguru", zioen Uribealgok.

**EMAKUMEZKOENGANA IRITSI GURA DUTE LOKATZAKOEK; HALA, LASTERKETAK EGITEN DITUZTE**



Gurasoak eta gaztetxoak eskolako patioan. IMANOL SORIANO



Zirkuituari bueltaka bi neskatila. IMANOL SORIANO



Zirkuituan hiru mutiko. IMANOL SORIANO



NIRE USTEZ

IÑIGO MARTINEZ DE OKARIZ

## A8M

Gipuzkoako Mendi Federazioak 2016an Gipuzkoan zehar egin diren 55 mendi lasterketak ingurugiroarengan duten eragina aztertu ondoren, hiru bat ondorio atera ditu bertatik. Lehenak diosku euretako erdia baino gehiagok babestutako inguruetatik pasatzen direla.

Bigarrenak, berriz, kalte ondorio handirik ez dutela egiten bertan. Eta hirugarrenak, prebentzio neurriak hartu behar direla lasterketak jasangarriagoak izan daitezen.

Txalotzekoa da, dudarik gabe, Federazioak egindako azterketa, sentsibilitatea adierazten duelako.

Antzuolako zortzi milak (A8M) ere ez dauka inpaktu handirik, lasterketa oso gizatiarra den inguruetatik pasatzen delako, baina badu beste inpaktu bat galdu beharko ez lukeena, eta da Antzuola urtero Euskal Herriko mapan jartzen gaituen lasterketa dela.

Pena bat izango litzateke herrirako berau galtzea, eta ziur nago konponbide bat egongo dela hori ez gertatzeko, eta 2018koa seigarren A8M izateko.



MAITE TXINTXURRETA

## Batzar emankorra Diputazioarekin

Atzo batzartu ziren EH Bilduko eta EAJko zinegotziak Marisol Garmendia Mugikortasun diputatuarekin. Bilera emankorra izan dela azpimarratu du alkateak. Izan ere, Iraetako tunelean iaz eroritako harria kentzeko konpromisoa hartu du Diputazioak. Bergarainoko bidegorri zatia autobideko lanak bukatzean egingo dutela ziurtatu du Garmendiak.

## Emakume bat kontratatze lan eskaintza

Lanbidek hala eskatuta, emakume bat kontratatze lan eskaintza aurkeztu du Antzuolako Udalak. Eskaera Lanbideren bidez egin behar da nahitaez. Eta eskaera egiteko epea otsailaren 17an, gaur, bukatzen da. Hiru hilabeterako lana da eta herriko barandak margotzeko lanak egiteko izango da.

## Fantasiako eta beldurrezko filmen emanaldia domekan

Otsailaren 19an, domekan, fantasiako eta beldurrezko film laburren bildumaz (2014) gozatzeko aukera izango da. Bertsio originalean eta euskarazko azpтитuluekin ikusteko aukera izango da film laburren sorta. Emanaldia Torresoroa aretoan arratsaldeko sei eta erdietan izango da eta sarrera doakoa da.

# Oroimena lantzeko saioak laster eguneko zentroan

Zerbitzuak eskaintzen dituen plaza guztiak beteta egonik, arlo kognitiboa lantzeko premia duten herritarrendako eskaintza berezia ipini gura dute martxan arduradunek. Interesatuek eguenera arte dute udaletxean izena emateko

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Azken urteetan gora egin du, nabarmen, Elgetako eguneko zentroko erabiltzaile kopuruak. "Orain dela bospasei urte behe-rakada handia izan genuen", azaltzen du Udaleko Ongizate Saileko arduradun eta eguneko zentroko langile Mirari Larrañagak. "Erabiltzaile bakarra izatera heldu ginen uda batean, eta Elgetan bakarrik ez egoteko enpresa berak kudeatzen duen Antzuolako zentrorra eramaten genuen erabiltzaile hori".

Elgetako zentroak zazpi plaza ditu, eta gaur egun zortzi erabiltzaile ditu. Horietako batek eguerdiko bazkari zerbitzua bakarrik erabiltzen du. Horrez gain, bi lagun daude itxarote-zerrendan. Plaza kopurua handitzerik ba ote dagoen aztertze eskatu dio Udalak Diputazioari. "Jakín nahi dugu ea modu batera edo bestera zerbitzua zabal dezakegun. Zaila izango da, metro karratuen araberako ratioak



Elgetako zentroko erabiltzaile taldea Ane Etxeberria laguntzailearekin, asteon. L.Z.

egoten direlako, baina itxarote-zerrenda dugu eta zer egin aztertu gura dugu", dio Larrañagak. Antzuolan oroimena lantzeko tailerrak egiten dituzte eta emaitza oso ona dela dio udal arduradunak. "Itxarote-zerrendan

dugun pertsonetako batek badu premia hori, eta zerbitzua emateko moduetako bat izan daiteke. Eskaintza, dena den, irekia da. Bost laguneko gutxieneko taldea behar dugu tailerra martxan jartzeko".

## "Beharra gero eta handiagoa izango da"

**MIRARI LARRAÑAGA**  
ONGIZATE ZINEGOTZIA

Egun osoko zerbitzua ematen dute Elgetako zentroan.

**Beteta dago, orduan, Elgetako eguneko zentroa.** Pentsatzekoa da zerbitzuak gero eta erabiltzaile gehiago izango dituela. Gure gizartea nagusitzen ari da. Elgeta ez da salbuespena. Gertatzen ari da.

**Nondik datoz egungo erabiltzaileak?** Bost erabiltzaile elgetarrak dira, bat Angiozarkoa eta bi eibartarrak. Herritarrek



ELGETAKO EH BILDU

lehenetasuna dute beti, baina erabiltzaile batek plaza hartzen badu ezin zaio kendu, eta uste dut beharra gero eta handiagoa izango dela.

**Egun osoko zerbitzua da?** Zentroa 09:30etik 17:00etara dago martxan, eta aurretik eta ondotik garraioa egiten dugu. Terapeuta astean behin etortzen da eta aste osorako ekintzak prestatzen ditu. Bazkari, siesta eta dutxa zerbitzuak ere badaude.

## Bina orduko hamar saio

Elgetako eguneko zentroan eskaini gura dituzten oroimena lantzeko saioetan adimen kognitiboa estimulatzeko dinamikak egingo dituzte. Zentroko terapeutak gidatuko ditu saioak, eta izenematea zabalik da udaletxean hilaren 23ra arte. Bi orduko hamar saio izango dira –astean bat–, eta doan parte hartzaileendako. Egutegia parte-hartzaile kopuruaren eta aukeren arabera zehaztuko dute.

Argibide gehiagorako, deitu 943 76 80 22 telefono zenbakira.

## Elgetako lau lekukotasun berri Argentinako kereilan aurkezteko

Frankismoak egindako krimenen testigantzak jasotzeko bulegoa beste bi astez egongo da zabalik udaletxean

**L.Z. ELGETA**

Kereilari gisa aurkezteko lau testigantza jaso ditu Elgetako Udalak urtarrilaren 16a ezkerko zabalik dagoen bulegoan. "Gerra garaiko krimenak salatu dira. Bi bideoz jaso ditugu eta bi idatziz", azaldu du Ainhua Bernabe teknikariak. "Alaba batek bere aitaren fusilamendua salatu du, baita osaba baten desagerpena ere. Beste familia batek bi anaien espetxeratzea eta baserria erre izana salatu ditu". Kasu horietako batzuk ezagunak zirela dio Bernabek, baina beste batzuk ez, eta guztiak zeudela salatu barik eta kereilan sartu barik. "Oso pozik gaude bulegoak izan duen harrerarekin. Esker-rak eman nahiko genizkieke gerturatu diren guztiei; batez ere, bihotza eta etxeko ateak zabaldu dizkiguten biktimei eta

senitartekoei. Udalak, orain, lekukotasunak aztertu, txostenak prestatu eta dagokien auzitegitan aurkeztuko ditu".

**Beste bi aste zabalik**

Udalak jakinarazi du beste bi astez egongo dela zabalik bulegoa. "Salaketa aurrera doala ikusita, akaso, oraindik pausoa eman ez duten biktimek animatuko dira etortzera", dio Bernabek; izan ere, diktadura garaiko krimenen gaineko testigantzak ere jaso nahiko lituzke Udalak. Argibide gehiagorako, interesatuek bi aukera dituzte: 943 76 80 22 eta [turismoa@elgeta.eus](mailto:turismoa@elgeta.eus). "Prozesu luzea izango da eta traba asko aurkituko ditugu, baina Udalak ez du etsiko salaketa hauek aurrera eramateko egitasmoan, eta babes osoa eskainiko die biktimei".

## Festa eta zalaparta ekarriko dute aurten ere Inauteriek

Astebete barru ospatuko dute mozorroren festa Elgetan, eta hainbat ekintza daude iragarrita dagoeneko

**L.Z. ELGETA**

Kolorearen eta irudimenaren festa dira Inauteriak, eta Elgetan astebete barru ospatuko dituzte. Barikurako mozorro kalejira iragarri dute Herri Eskolako arduradunek. Ikastetxetik eman-go diote hasiera, 15:00etan. Domingo Iturbe kalean gora egingo dute eta jarraian San Roke kalean behera plazara iritsiko dira. Dantzak egingo dituzte han. Euria bada, frontoian egingo dute dantza emanaldia. "Mozorrotzeko gairik ez da egongo, librea izango da", jakinarazi du eskolako zuzendaritzak.

Jarraian, 16:00etan, Maala guraso elkarteak txokolate-jana eskainiko du, eta Udalak buruhandiak iragarri ditu 16:30etik 17:30era. Festak Spaloia kafe antzokian izango du segida, Mariskal DeJairen saioa baitu aurreikusita Udalak. Dantzara-



lazio Inauterietako lau mozorro txiki. L.Z.

ko saioa izango da, 17:30etik 19:30era.

Domekarako, Inauteriek in lotutako Herrixa Dantzan berezia iragarri du Patxi Monterok, eta martitzenerako txokolate-jana eta bingoa antolatuko dituzte erretiratuek Ozkarbi elkartearen.



# Herriko haurrak, grafiti eta tatuaje artean

Udal Gobernuaren helburua da egunerokotasunean hain ohikoak ez diren ekintzak haurrei helaraztea eta, bide batez, euren sormena lantzea; horregatik, pasa den asteburuan grafitiak egiten ibili ondoren, oraingoan tatuaje mundua ezagutuko dute

**Eneko Azurmendi** ELGETA

Elgetako Udala herriko haurrei afizio ezberdinak ezagutarazteko ahaleginetan dabil, ohikoak ez diren ekintzak erakutsiz eta, bide batez, euren sormena lantzeko aukera emanez.

Hori dela eta, pasa den asteburuan grafiti tailerra egin zuten gaztelekuan eta 9 eta 12 urte bitarteko hamabi haur inguruk hartu zuten parte. Oier Peñagarikanok eman zuen tailerra, eta, haren hitzetan, haurrak oso gustura eta parte-hartzaile ibili ziren. "Asmoa zen umeen sormena lantzeko tailer bat egitea, baina, azkenean, grafitiak egitera mugatu ginen. Espiraik ikusi zituzten momentuan zoratu egin ziren, eta hori nahi izan zuten, ez zen aukerarik egon prozesua bere osotasunean lantzeko. Hala ere, ondo pasatu zuten, eta hori da garrantzitsuenak", adierazi du.

Funtsean, pankarta bat egin zuten eta grafiti mundua gehiago ezagutzeko aukera izan zuten herriko haurrek. "Nik eurei utzi nien euren sormena landu eta nahi zutena egin zezaten. Orain, egin genuen pankarta Inauterietan plazan jartzea da asmoa. Horrez gain, grafiti munduaren gainean zeuzkaten zalantzak argitu nizkien, galdetzen zidaten heinean", azpimarratu du Peñagarikanok.

## Oraingoan, tatuajeak

Grafitiak ezagutu ostean, asteburu honetan tatuaje munduan murgiltzeko aukera izango dute. Bihar, zapatua, izango da tailerra, 17:00etan, gaztelekuan.

"10 eta 12 urte bitarteko umei zuzenduta egongo da saioa, baina ate guztiak zabalik izango dira, edonork sartu nahi badu. Helburua izango da tatuaje mundua azaltzea, nondik datorren *tattoo* hitza, nondik datozen tatuajeak, nola tatuatzen den, nire zaletasun hori nondik datorren,



Umeak Oier Peñagarikanorekin, pasa den astean. GOIENA



Umeak pankarta egiten. GOIENA

zergatik sartu nintzen mundu honetan, eta abar", dio tailerra eskainiko duen Xabier Elgezabal tatuatzaileak.

Umeekin tatuaje munduaren gaineko ikastaro bat emango duen lehenengo aldia izango da Elgezabalentzat. "Niretako, kontu berria da hau. Hala ere, gogotsu nago", nabarmendu du tatuatzaileak. Gaineratu du emeek ere interesa badutela mundu honekiko. "Izan ere, ge-

roz eta gehiago ikusten den gauza bat da, hondartzara edo igerilekura doazenean, tatuaje asko ikusten dituzte, eta interesa pizten die horrek. Horregatik, polita izango da zer galdetzen didaten ikustea eta euren interes hori partekatzea", adierazi du.

Hiru tatuaje simulatuko dituzte tailerrean eta, horrez gain, haurren galderei erantzungo die Elgezabalek.



Etsaiakeroak, kontzertu batean. UNAI HUIZI

## Etsaiakeroak eta askoz gehiago gaur Spaloia kafe antzokian

Hardflip, Gudazaleak, Space Jam eta Etsaiakeroak taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:00etan

**E.A.** ELGETA

Kontzertu borobila izango da gaur gauekoa. "Hilero kontzertu indartsu bat egitea da asmoa eta gaurkoa izango da lehenengoa", adierazi du Xabi Ulaziak, Spaloia kafe antzokiaren arduradunak. Zazpi euro da sarrera, leihatilan bertan.

Lau talde izango dira kontzertuan, baina izen nagusia Etsaiakeroak da, Etsaiak talde ezagunaren izen berria da eta. "Gogo izugarria dugu kontzerturako. Talde berria dugu, proiektu berria, eta sekula baino gogo handiagoz igoko gara Spaloiko agertokira", azaldu du Etsaiakeroak taldeko *Auo* abeslaria.

Azaroan aurkeztu zuen Etsaiakeroak taldeak bost abestiko saio bat, Durangoko Azokara begira. "Nik uste dut kañeroagoak garela orain, makarragoak eta metalzaleagoak", adierazi du *Auo*-k.

Proiektu berrian, *Auo* bera da abeslaria, Txus Lozano eta Dann Hoyos dira gitarra-joleak, Jorge Gararria baxu-jolea, Nikola Goñi bateria-jolea eta Axular Arizmendi perkusionista.

Elgetan joko duten bigarren aldia izango da. "Etsaiak taldea ginenean, gaztetxean jo genuen kontzertua eta esperientzia ederra izan zen. Gogoratzen naiz elurra zela eta kostata iritsi ginela Elgetara", dio *Auo*-k.

### Space Jam-ek, bertsioak

Space Jam taldeak talde klasi-koen bertsioak eskaintzen ditu eta, gainera, publikoaren parte-hartzea sustatzen du. "Gau ederra pasatuko dugu guztiok; beraz, animatu eta parte hartu", animatu ditu herritarrak *Auo*-k.

Hoyos eta Lozano Etsaiakeroak taldeko kideek talde horretan ere jotzen dute.

## OHARRAK

### Umeendako ipuinen ordua gaur liburutegian

Bi saioa izango dira: 5 urtetik gorakoendakoa, 16:40tik 17:15ak arte; eta 2 urtetik gorakoendakoa, 17:25etik 18:00etara.

### Bihar, Mendi Mendia Racing jaia

11:00etan, auto erakusketa plazan; 12:00etan, triki-poteoa; 14:00 inguruan, baba-jana kiroldegian -75 pertsonak eman dute izena-; eta, 20:00etan, DJ Elvis Cainoren emanaldia gaztetxean.

### Martxoaren 8ko ekintzak prestatzeko batzarra

Herri batzarra deitu du Udalak Martxoaren 8ko ekintzak proposatzeko, baloratzeko eta adosteko. Martitzenerako deitu dute batzar hori, hilak 21, 18:00etan, udaletxean.



Autobusen geltoki pareko zatiko lanak egiten hainbat langile astelehen goizean. O.E.

## Autobusen markesina berriak Zubillagan

Auzoaren irisgarritasun eta urbanizazio lanen lehen fasea bukatzeaz dute. Hauen ostean hasiko dira auzoaren erdigunetik Elorregi aldera doan zatia konpontzen eta irisgarritasun beharrei erantzuten. Erdiguneko lanak datorren urtean egingo dituzte

### Oihana Elortza OÑATI

Errepideak konpontzeko erabiltzen diren makinak eta obretako langile ugari ibili dira egun hauetan Zubillaga auzoan. Lurzorua ari dira konpontzen, txukuntzen. Autobusendako markesina berriak ere jarri dituzte eta dagoeneko ez zaie askorik falta auzoaren eraberritze lanen lehen fasea bukatzeko. Datozen egunetan bukatuko dituzte fase horretako lanak.

### Irisgarritasuna

Fase ezberdinetan ari dira egiten Zubillaga auzoaren eraberritze lanak. Hiru fasetan banatu dituzte. Auzoaren sarreran, Oñatitik Elorregirako noranzkoan, hasi zituzten lanak, lehen fasekoak, eta horiek bukatzen ari dira orain. Azken hilabeteetan, Ulma Forjatik auzoaren erdigunerantz doan errepide zatian ibili dira lanak egiten. Sarrera horretatik Arotzena baserri parean dagoen zubirainoko zatian, hain zuzen ere. Autobuseko mar-

kesinak jarrita daude dagoeneko eta helduleku batzuk ere jarriko dituzte. Errepideko zuloak tapatu, lurzorua txukundu eta espaloietan irisgarritasun lanak egin dituzte.

Bigarren faseko lanak lizitazioa atera dituzte. Fase horretan sartuko da erdiguneko zubi horretatik industrialdearen hasieran dagoen zubirainoko zatia; auzo-etxetik Martezkua baserri bitartekoa, alegia. Zati horretan sartzen dira, adibidez, frontoiaren eta ermitaren aurrealdea. Irisgarritasun lanak izango dira zati horretan egingo dituztenak ere, eta, adibidez, oinezkoendako bideak berritu egingo dituzte. Berdeguneak ere txukunduko dituzte. Pasa den

### ZUBILLAGAN, OLAKUAN ETA SAN LORENTZON EGINGO DITUZTE AURTEN ERABERRITZE LANAK

asteko Tokiko Gobernu Batzordean onartu zituzten proiektuaren baldintzak, lanak esleitzeko prozedurari hasiera emanda. Lan horiek urtea bukatu aurretik egingo dituzte. Eta behin horiek bukatuta, hirugarren fasea geldituko da egiteko, auzoaren erdigunean egin beharreko eraberritze lanak, zehazki. Gune horretako obrak, baina, datorren urtean egingo dituzte.

### Eraberritze lanak

Zubillaga auzoaren eraberritze lanen bigarren faserako 160.000 euro bideratuko ditu Udalak. Auzo horretan ez ezik, herriko beste zenbait auzo edo gunetan ere egingo dituzte antzerako lanak urtea bukatu aurretik. Olakua eraberritzeko lanak egiteko, esaterako, 262.000 euro daude gordeta eta San Lorentzo auzokoak egiteko, 250.000 euro. Horrez gain, urtean sor daitezkeen irisgarritasun beharrei edo eskaerei erantzuteko 50.000 euro daude jasota aurrekontuan.

## EAJk 'Laguntza Plana' proposatu du, sozioekonomia garatzeko

Berrikuntza teknologikoa eta merkataritza elektronikoa proposatzen ditu "merkataritza eta lan eremua zabaltzeko"

### O.E. OÑATI

"Tokiko ekonomia eta enplegua sustatu eta oñatiarren enplegarritasuna hobetzeko helburuarekin" sozioekonomiaren alorrean lau lan-ildo jorratzen jarraituko dutela adierazi dute Udaleko jeltzaleek: enplegua eta ekintzailetasuna bultzatzeko urteko planaren garapena, Oñatiko Turismo Plan Estrategikoa berrikuntza, herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko Lehiatila-Bakarra izeneko udal zerbitzuaren ezarpena eta tokiko merkataritzari, autonomoei, lehen sektoreari eta enpresa ertainei zuzendutako berrikuntzarako aholkularitza programen sorrera. Diote Udalarik dagokiola enpresa txiki horien egungo egoera "indartzeko eta hobetzeko egitasmoak" proposatzea, "baita belaunaldiarteko erreleboa ahalbidetuko

duen irtenbideak eskaintzea ere". Eta *e-Commerce* merkataritza elektronikoa bitartez "aholkularitza eskainiko duten programak indartzea" planteatzen dute, "guztien lehiakortasun eta eraginkortasuna hobetu ahal izateko". Hori egiteko, bi bide proposatzen dituzte: banakako aholkularitza eta Oñatiko sal-tokientzat plataforma komuna sortzea.

Hori guztia egiteko, baina, tresna egokiena "leihatila bakarra" izeneko udal zerbitzua dela berretsi du Udaleko talde jeltzaleak prentsa oharrean. "Zerbitzu hori martxan jarzteak sektore hauek garai berrietara egokitutako zerbitzua eskaintzeko aukera izatea eta berrikuntza teknologikoan oinarrituz sareetan duten presentzia areagotzea ahalbideratuko luke", jeltzaleen iritziz.

### Altsasuko gazteen testigantzak entzungo dira bihar

Altsasuko gazteen testigantzak entzuteko hitzaldia antolatu du Fan Hemendik taldeak biharko, zapatua. Kultura etxean izango da, 11:30ean. Altsasuko gertaerak nola izan ziren, herrian nola bizi duten eta gazteengan izan duten eragina eta ondorioa izango dute mintzagai handik etorriko diren hainbat gaztek. Hitzaldiak tertulia ere izan gura du.

### Mugikorraren erabilera etxean nola arautzeari buruz

Telefono mugikorraren erabilera eta etxean adostu beharreko arauak zeintzuk izan beharko lirakeen eztabaidatuko dute, besteak beste, hilaren 27an Euskaldun Berria gelan egingo duten hitzaldian. Udalak eta ikastetxeek elkarrekin antolatu duten hitzaldia da. Izena hilaren 22a aurretik eman behar da zenbaki honetan: 943 03 77 00.

### Hermansaloñakoan lokalean arratsaldez bakarrik egongo dira

Hermansaloña elkarteak ordu-tegi berria du. Astelehenetik aurrera arratsaldez egongo dira bakarrik, 18:30etik 19:30era bitartean, hain zuzen ere. Lokala bera Oñargi bulegoaren ondoan dago eta arropa batzeko edukiontzia pixka bat aurrerago dute. Hara edozein unetan bota daiteke arropa; Caritas elkar-tearentzat izaten da gehiena.

### Pultsometroa nola erabiltzen den erakutsiko dute

Pultsometroaren erabilera azaltzeko tailer teoriko eta praktikoa egingo dute datorren astean. Zubikoa kiroldegian egingo dute ikastaro hori, hango fitness gelan. Otsailaren 24an izango da, 17:30etik 19:00etara. Gimnasiako monitoreak izango dira irakasleak. Plazak mugatuak dira eta aurrez eman behar da izena kiroldegian. Abonatuendako, doan.



Oñatitik errefuxiatuen kanpalekuetara heldu den laguntza eskertzeko argazkia, Chios-en. HOTZ OÑATI



Oñatitik bidalitako diruarekin sukalde ibiltari bat jarri dute martxan. HOTZ OÑATI



Mutikoa jasotako motxilarekin. HOTZ OÑATI

# Elkartasunezko urtebete egin du Hotz Oñatik

Hogei herritarrek osatzen dute Hotz Oñati taldea, baina herritar askoren laguntza izan dute urtean zehar ekitaldiak antolatzeke edo kanpainetan parte hartzeke. Eguenean lehen urteurreneko bilera irekia egingo dute Euskaldun Berria gelan, 18:00etan

## Oihana Elortza OÑATI

Europar gertatzen den krisi humanitarioari erantzuteko eta laguntza bideratzeko sortu zen Hotz Oñati taldea duela urtebete. Egun, hogeit hamar boluntario aktibok osatzen dute taldea eta Europar blokeaturik dauden errefuxiatuei laguntzeko dirua eta materiala biltzen aritu dira. Herritar askok hartu du parte antolatutako kanpainetan eta ekintzetan, eta urtebetean janari, produktu eta arropa tona asko batu dituzte. Baita errefuxiatuen guneetan hango beharren arabera erabili dituzten euro asko.

Herritar bat baino gehiago izan dira errefuxiatuen kanpalekuetan boluntario lanak egiten.

Jasotako eta bidalitako guztiaren kopuruak ere eman ditu Hotz Oñati taldeak: Atenasera janariz eta produktu higienikoz betetako hamasei palet; Calais-erara, tona bat janari eta manta; Siriara, 100 ohe koltxoi eta neguko osagai eta katiusekin betetako palet bat. 1.162 motxila bidali dituzte errefuxiatuen kanpalekuetan dauden umeendako; eskolako materiala, barruko arropa, galtzerdiak eta jostailuak zeuden motxiletan. Hotza heldu

baino lehen jaso zituzten motxila horiek haurrek, eta Hotz Oñati taldekoak "oso harro" daude hori lortu ahal izan dutelako. Kanpainak izan duten erantzuna, Mendi Martxako diru laguntza, azokako postuak, pintxo-pote bereziak, hitzaldiak, txosna... laguntza herriko eragile eta talde ezberdinetatik jaso du elkarrekin.

Himaya gobernuak kanpoko emakume talde batek familia kaltetuendako hamalau pisu ditu Grezian eta batek Oñati izena du. 45 laguneko euro bana ematen dute hilero, alokairurako.



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

## Normala ala ez; da, eta punto

Badira zakila duten neskak eta bulba duten mutilak. Horrelaxe da. Hau da Chrysallis Euskal Herria elkarteak egin duen kanpaina berria trans haurren egoera jendarteratzeko eta honegatik aitortza bat zor zaio, bai horixe! Esan behar dut gai hau betidanik interesatu izan zaidala eta honen inguruko eztabaida eternalak izandakoa naizela. Eta berba egin izan dut DBHn dauden hainbat gazterekin, eta uste eta sineskeriaz betetako mundu batera jauzi egiten dutela ematen du. "Nik ez dut hau ezin daitekeela izan..." (usteen jolasa balitz), "Nik ez dut sinesten gizon batek alua eduki dezakeenik..." (erlijioa balitz). Normaletik atera eta galdu egiten gara. Baina gai hau ez da sinesmen kontua; ez da uste kontua. Jendeak sufritu egiten du. Landu beharko da gaia gazteen eta guztion artean... Normalen mundu honetan ez dago "aukerarik" (nahirik?) horrelako gai bati ganoraz eta benetan heltzeko. Jende normalak, gauza normalak eta normal, eta nahiko. Konturatuko al gara "normalok" ere normatik normala baino gehiago urruntzen garelako normalen?

## Gaztelekuko materiala herriko taldeek berrerabiliko dute

Irazan antzerki guneak, Antixena gaztetxeak eta Ilunpetan argazki taldeak hainbat gauza hartu dituzte

### O.E. OÑATI

Argiteria berritzeko lanak egin dituzte urtarrilean gaztelekuan eta gunea txukuntzeko eta espazioak berrantolatzeke ere aprobetxatu zituzten itxita egon ziren egunak. Gaztelekuan zegoen materiala aztertu eta dagoeneko behar ez dutena baina oraindik erabiltzeko moduan dagoena, herriko taldeen esku uztea erabaki dute.

Jon Lopez gazteria saileko teknikariak azaldu du argazkilaritzarako materiala asko da-

goela, adibidez: "Pilatuta ditugu argazkilaritzarekin zerikusia duten gailu guztiak eta Ilunpetan taldeak eramango dituzte, euren erabiltzeko". Handitzeko, argi mahaia, kubetak, likidoe-tarako ontziak eta argazkilaritzako papera hartuko du Ilunpetan taldeak. Irazan antzerki guneak, berriz, hamabi foku dituen bi barra, dagokion harteria berezia eta dimeroarekin. Antixena gaztetxeak, bestalde, bi bozgorailu eta tabernako kafe makina berrerabiliko ditu.

## Hitzarmena sinatu dute Kilometroak 2017k eta Ekoliok

Kilometroak 2017k eta Ekoliok sinatu duten akordioak jasotzen du Txantxiku Ikastolako jangelako olio Ekoliok jasoko duela aurrerantzean, eta ikastolan bertan edukiontzi bat jarriko dutela ikasleek erabiltzeko olio eraman dezaten. Jasotako olioak biodiesel bihurtuko dute gero, eta herritarrendako izango da.

## Eguen Gizen eguna mozorrotuta ospatu gura dute Pake Leku

Inauteriak oso gustukoak dituzte Pake Leku erretiratuen elkarteak. Eguen Gizen eguna aurretik ere ospatuko dute, adibidez. Jatekoak eta edatekoak prestatzeaz gain, dantzaldia ere antolatu dute hilaren 23rako, eta mozorrotuta joateko dei berezia egin dute. Otsailaren 28an Tolosara egingo dute irteera.

# Euskadiko txapelketan jokatzeko txartela lortuta

Eskubaloiko kadete mailako neskek igoera fasea jokatu berri dute Zumaian, eta, hiru partiduetatik bi irabazi ostean –Urdaibairi eta Usurbili–, gorengo mailan jokatzeko dute hurrengo denboraldian, euren adineko talderik indartsuenen kontra

**X. Urzelai/ M. Bikuña** OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloia bogan dago. Oraingo honetan, baina, kadete mailako neskek izan dira protagonista. Igoera fase bikaina jokatu ostean, Euskal Ligarako txartela lortu dute Zumaian. "Fase perfektua izan da. Atzetik egindako lanaren emaitza da. Sari bat guretzako. Baina, bereziki, lehenengo urteko kade- teendako, eurak direlako Euskal Ligan jokatzeko eta disfrutatuko dutenak", esan du taldeko entrenatzaile Andrea Gartziak.

**Lehena galdu**

Kantxan, jokoan, ez ezik psikologikoki ere talde indartsua dela erakutsi du. Pulporen kontra lehen partidua galdu ostean, burua tente ipini eta aurre egiteko gai izan ziren. "Elkarrekin afaldu genuen eta egoerari buelta eman behar geniola adostu genuen. Presioa alde batera utzi behar genuela", dio.



Aloña jokalariek eta entrenatzaileak, aldagelan ANDRE GARTZIA

Pentsatu eta egin. Zapatuan, Euskal Ligatik jaitzita Usurbilen kontra irabazteko gai izan ziren. Sufrituz, baina irabazi. "Markagailuan aurretik egon ginen beti, baina minutu baten

faltan berdindu egin zuten. Horri ere aurre egin genion".

Domekakoa, azkena, hil edo bizikoa zen. Eta Aloñak bizirik mantentzea erabaki zuen, eta Euskal Ligan jokatzeko.

## Lider sendoa dela erakutsi gura du Basaurin Izarraitz Aloñak

Sailkapenaren bigarren lekuan dagoen taldearen kontrako lehia gogorra jokatzeko du bihar, zapatua

**M.B OÑATI**

"Gogorra. Oso gogorra izango da. Guk irabazten badugu lau puntuko abantaila eta gol alde alde izango ditugu. Hortaz, Basaurik presio handia izango du". Berba horiekin laburtu du Izarraitz Aloñako Rafa Zuluetak zapatuko partidua (18:15).

Lehenengo –Izarraitz Aloña– bigarrenaren –Basauri– kontra, eta, jokoan, sailkapeneko lehenengo lekua eta igoera faserako zuzeneko txartela. "Eurak dira liga irabazteko hautagai nagusiak, eta, biharkoa ez badute

irabazten, egoera asko konplikatu zait", dio Zuluetak.

Izan ere, oñatiarrek ondo baino hobeto hartu diote neurria kategoriari eta zalantzan jartzen hasi dira hautagai nagusien lana. Zubikoan jokatzeko partiduan (28-28) ikusi zen bi taldeen arteko parekotasuna.

Txapelketa bukatzeko zazpi partidua falta dira eta biharkoak marka dezake sailkapeneko postuak nola geratzen diren. "Liga irabazten duenak txartel zuzena izango du Lehenengo Nazionalera igotzeko faserako", diote.

## Gimnastak eskolartekoan

Aloña Mendiko 29 gimnastak parte hartuko dute Arrasaten jokatzeko diren txapelketan eta erakustaldian: 16 eskolarteko txapelketan eta 13 benjamin mailako erakustaldian. Taldeka –alebinak, infantilak eta benjaminak– eta banaka –infantilak eta benjaminak– askotariko koreografiak egingo dituzte, adinaren arabera banatuta.



LIDE OSINAGA

## Zer moduz bizi izan zenuten igoera fasea?



**ANDREA GARCIA**  
ENTRENATZAILEA

"Bost urte daramat Oñatin. Asturiastik etorri nintzen eta esan dezaket hemen lan oso ona egiten dela harrobiarekin. Kualifikatutako entrenatzaile gutxi ditugu. Ostera, lan egiteko gogo handia dutenekin dihardugu. Etorrizunerako, harrobia ondo zaindu behar da".



**INTZA OSA**  
JOKALARIA

"Ez genuen inolaz espero, baina aurretik egindako lana kantxan erakusteko gai izan ginen. Eskubaloia bizi dugu: etxean, eskolan, kalean... Gainera, gure entrenatzaileak senior mailako jokalariek dira eta guretzako erreferente. Askok ikasten dugu eurekin".



**AMAIA UGARTE**  
JOKALARIA

"Oso pozik gaude. Pulpori irabaziko geniola uste genuen eta beste biak galdu. Eta, alderantziz izan zen. Kantxara disfrutatzera irten ginen momentuan hasi ginen daukagun onena ematen. Lehen urteko kadetea naiz eta Euskal Ligan jokatzeko saria da".



ALOÑA MENDI

## Aloñaren koloreak Sahara aldean

Saharako Mahbes herriko futbol jokalariek Aloñaren koloreak defendatzen dituzte urtarilla ezker. Azkoagaingo mantentze-lanetan dabilen saharar baten eskariz, elkarteko hamabost jantzi, hainbat bufanda eta futboleko kirol materiala bidali ditu haraino futbol sailak.



Hiru emakume argazki zaharrei begira. GOIENA

# 1.000 herritar inguruk bisitatu dute erakusketa

Artixa taldeak egindako argazki zaharren erakusketak "sekulako arrakasta" izan du: "jendeak interes handia erakutsi du, oso pozik geratu dira, jende askok zoriondu egin gaitu eta iradokizun asko jaso ditugu", azaldu du Xabier Ugartek, Artixa taldeko kideak

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Bi astez egon da irekita Artixa taldeak antolatutako argazki zaharren erakusketa, kultura etxean, eta taldeko kideak oso gustura azaldu dira erakusketak izan duen erantzunarekin. "Balorazioa oso ona da. Zenbakiak ere oso baikorrak dira. Bisita orduetan, 783 pertsona pasatu dira erakusketatik. Horrez gain, ikastetxeetatik 14-18 urte bitarteko 200 bat neska-mutiko igaro dira, Mikel Alberdi taldekidearen azalpenak entzunez. Beraz, publikoa izateaz gain, pedagogikoa ere izan da", adierazi du Ugartek. Horrez gain, jende askorentzat bi aste epe motzegia izan da eta hori "seinale ona" dela azpimarratu du Ugartek.

Polita eta, batez ere, interesgarria izan dela adierazi diete herritarrek Artixa taldeko kideei. "Batez ere, jende nagusia da hurbildu dena eta gauza asko gogoratzekoa izan dela esan digute: pertsonak, lekuak... Herriaren bilakaera ikustea oso

polita izan da. Izan ere, oso ondo islatu da Oñatiren bilakaera", onartu du Ugartek.

Erakusketa gehienbat jende nagusiak bisitatu duen arren, orotariko publikoa izan da. "Gurertako, oso garrantzitsua da publiko orokor bat eduki izana, ez jende nagusia bakarrik", dio.

**Eskerrak**

Artixa taldeko kideek eskerrak eman nahi izan dizkiete erakusketa bisitatu dutenei eta hitz onak eskaini dizkieten herritar guztiei. Horrez gain, argazkilaria ere ez dituzte ahaztu nahi izan. "Eskertzekoa da hau guztia posible egin duten argazkilarien lana. Kasu askotan, ez dakigu argazkilaria nor den, baina ezin

**GEHIENBAT JENDE NAGUSIA EGON DEN ARREN, OROTARIKO PUBLIKOA IZAN DU ERAKUSKETAK**

ditugu aipatu barik utzi gureak: A. Arlanzon, J.M. Arzuaga, P. Elorza, eta Plazola", zehaztu du Ugartek.

**Aurrera begira, baikor**

Erakusketa honek izandako erantzun onak aurrera jarraitzeko indarrak ematen dizkiela onartu du Ugartek. "Datorren urterako beste erakusketa bat egingo dugu, seguruenik. Hori bai, gauza monografikoak eginez. Izan ere, oraingoa oso orokorra izan da, eta hurrengorako, beharbada, izan daiteke bi edo hiru gai hartu eta gai horiek hobeto lantzea, nahiz eta argazki gutxiago egin", dio.

**Eskaria**

Herritarrei dei egin die etxean dituzten argazki zaharrak uzteko. "Gura duenak eroan ditzala argazki zaharrak kultura etxera, gutun-azal batean, izen-abizenak eta telefonoa adierazita eta argazkia identifikatuta". Argazkiak itzuliko dituztela agindu dute.

## Tio Teronen Semeak taldearen 'FreshCool' antzezlanak, bihar

Foruen plazan izango da dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna, eguerdiko hamabietan

**E.A. OÑATI**

Tio Teronen Semeak taldeak *FreshCool* antzezlanak eskainiko du bihar plazan, 12:00etan.

"Dantza, umorea, musika eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia da *FreshCool*, eta koplak batzuk ere badaude", adierazi du Antton Fernandezek, Tio Teronen Semeak taldeko kideak.

Bederatzi-hamar euskal dantza eskaintzen ditu antzezlanak, "modu serioan" hasi eta ondoren "eraldutzen" joaten direnak", gidoi baten barruan.

Lagun kuadrilla baten istorioa kontatzen du obrak, arratsalde pasa dauden batean izaten dituzten gorabeherak, arazoak eta abenturak azalduta.

Horrez gain, zuzeneko musikaz gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek: "Perkusioak pisu handia dauka antzezlan honetan, eta txistua, klarineta eta beste hain-

bat instrumentu ere erabiltzen ditugu", nabarmendu du Fernandezek. Hala, lau musikaririk –Eider Olasagasti, Joseba Etxegoien, Gorka Daguerresar eta Mikel Zubiria– eta hamabi antzezlek –Aritz Salamanca, Iker Sanz, Mederi Orbiso, Ander Domingo, Antton Fernandez, Xuban Irargorri, Jon Irargorri, Aritz Olarte, Ekain Susperregi, Eneko Iparragirre, Mikel Urdampileta, Unai Etxebeste, Haritz Olaziregi, Beñat Begiristain eta Alai Goñi– osatzen dute taldea, antzezlea den Aritz Salamancaren zuzendaritzapean.

**Publiko orokorrarentzat**

Fernandezek azaldu du publiko orokorrari zuzendutako lana dela, haurrek zein helduek gozatu dezaketela obrak eta, bide batez, plazara gerturatzeko dei egin die herritarrei.

## Dirty Brothers eta The Sinners taldeak, bihar Antixena gaztetxean

Fan Hemendik mugimenduko Altsasuko gazteei elkartzuna adierazteko antolatutako egitarauari bukaera emateko antolatutako kontzertua izango da bihar 19:30ean Antixena gaztetxean egingo dena.

Dirty Brothers taldeak Durangoko Azokarako argitaratu zuen azken lana, *Mondra Calling* izekkoa. Punc-rock doinuak jo-

rratzen dituzte, gehienbat, disko honetan. Taldekideen esanetan, "aurreko lanak baino gogorragoa da, baina, aldi berean, nahiko melodikoa ere". Musika aldetik ez dute eredu zehatz bat jarraitzen. "Lauzprobost edo bospasei eredu ezberdin ditugu, denetarikoa abestiak daude diskoan, batzuk azkarrak, besteak lasaigoak, ska ukituak ere bai...".

Beraiekin batera The Sinners talde beasaindarra igoko da ohol-tza gainera. Street-punk taldeak oi! estiloko bi disko ditu.

## 'Kaput' umorezko antzezlenerako sarrerak salgai daude

Otsailaren 24an, egubakoitza, *Kaput* antzezlana izango da Santa Ana antzokian, 20:00etan, Ganso & Cia taldearen eskutik. Sarrerak salgai daude *bibe.me* webgunean, 6 eurotan.

"Bi pertsonaiaren bidaia bat kontatzen du lanak; hobeto esanda, bidaia gelditua. Agertokiaren erdian gelditzen dira protagonistak, ez aurrera eta ez atze-

ra. Beraz, taula gainean ikusten ditugu haien pozak eta tristurak, dituzten arazoak eta nola konpontzen dituzten arazook, edo nola saiatzen diren, behintzat", dio Gorka Gansok, antzerki taldeko zuzendari eta aktoreak.

Publiko orokorrari zuzendutako antzezlana da, umorea ardatz duena. Gure helburua ikusleei barrea eragitea da. Gai dramatikoek aritzeko ere umorea eta barrea sekulako bidea dira". Bi pertsonaia dira protagonistak eta ez da hitzik erabiltzen obran.



lazio lasterketako irteera puntuan atleta guztiak; oilarrek berehala egin zuten aurrera. IMANOL SORIANO

## Goatzeko zortzi miliak... azkenak izan daitezke

**MENDI LASTERKETA** Domekan egingo dute Antzuolako 8 Miliak lasterketaren bosgarren edizioa, eta ikusteko dago azkena izango ote den. Lasterketa ostean hausnarketa prozesu bati ekingo diote; domekara begira ez dago favorito nabarmenik

**Xabier Urzelai** ANTZUOLA

"Domekarako ez dute eguraldi oso ona eman, baliteke euri apur bat egitea, baina basoan ibiltzeko giro ona egingo du, bai korrika egiteko, baita lasterkariak animatzeko ere", adierazi dio GOIENARI Aritz Saidik aste barruan. Ibilbidean lokatza badago ere, horrek ez ditu antolatzaileak ezustean harrapatuko; egutegiko lasterketa goiztiarretakoa izanda, dagoeneko ohituta daude negu gogorrera.

Hala, domekan 250 lagun inguru batuko dira Antzuolako plazan (10:30), irteera puntuan. Eta, lasterketak betiko formatuari eutsiko dio: Irimitok itzulia egingo duen lasterketa azkarrak, 13 kilometro ingurukoa.

**Azkena, seguruenik**

Bost urte hauetan ibilbide polita egin du lasterketak, eta horren erakusle da dorsala guztiak 24 ordutan banatu dituztela. Tristeia izango litzateke desagertzea, baina lana dago atzean, eta hori baino gehiago, ardurak hartu behar dira: "Labur esanda, hori

da arazo handiena, lagun talde bat gara, eta probaren erantzukizuna gure gain hartu behar dugu. Aseguru osoena dugu,

baina halako lasterketetan beste erantzukizun batzuk ere izaten dira". Bada, gozatu, baliteke azkena izatea.

### "Aurten ez dago favorito nabarmenik"

**ARITZ SAIDI** LASTERKETAKO ANTOLATZAILEA

**Domekara begira, dena dago gertu?**

Bai; azken egunotan egitekoak diren lantxo batzuk ditugu, baina dena dago gertu.

**Haizeteak kalteak eragin dituzte ibilbidean?**

Bai, zuhaitz batzuk erori eta kalte batzuk egon dira. Egunotan inor ibilbidean zehar entrenatzen ibili bada, akaso, larritu ere egingo zen, baina egon dadila lasai, domekarako dena egongo da-eta garbi.



A.SAIDI

**Azken urteotako irabazle Iñigo Alzola ez da etorriko. Favorito nagusirik?**

Ez, ez dugu aparteko favoritorik. Guretako, favorito nagusia herrikide eta laguna den Jon Iturbe da. [Barre] Azken urteotan aurre-aurrean ibili da, eta orain du lasterketa irabazteko aukera ona. Adarra ere jotzen diogu horrekin, baina, bueno, badakigu zelako mailatzarra duen, ez du ezer erakutsi beharrik.

## Iker Eskibel, Contadorrekin eta Bassorekin aurkezpenean

**TXIRRINDULARITZA** Astelehenean aurkeztu zuten, Madrilen, Fundacion Alberto Contador Polartec taldea

**X.U. OÑATI**

Iker Eskibel ziklista eskoriatzarren taldea izango den Fundacion Alberto Contador Polartec aurkeztu zuten astelehenean Mostolesen. Ekitaldian, Eskibelek aurreratu zuen "pozik eta ilusioz" dagoela.

Taldearen babesle eta hornitzaileez gain, junior mailako 13 txirrindularik eta 23 urtetik azpikoek taldeko 16 txirrindularik hartu zuten parte ekitaldian, eta aipatzekoa da Trek-Segafredo taldeko lider Alberto Contador txirrindularia eta Ivan Basso italiar ziklista ohia ere aurkezpenean izan zirela.

**Eskibel, lanerako gertu**

Eskibelek GOIENARI aurreratu dio aurkezpena ondo joan zela: "Pozgarria izan zen erreferente diren bi txirrindularirekin egotea. Bestalde, ibilbide berriari



Eskibel, Contadorrekin. I.ESKIBEL

gogor ekiteko prest nago, eta debuta otsailaren 26an Espainiako Kopako Don Benito lasterketan egingo dut, Extremaduran. Lanerako gogoz nago".

Hala, ziklista gazteekin osatutako taldeari beteranotasuna emango dio Eskibelek.

### **FUTBOLA** Arizmendik Mutrikun hasiko du igoera fasea

Ligan nagusitasun handia erakutsi ostean, Arizmendik domekan hasiko du igoera fasea, etxetik kanpora, Mutrikun (16:00). Igoera faseko multzoa sei taldek osatzen dute, eta tartean daude Ordizia, Touring, Anaitasuna, Ostadar eta Mutriku, biharko kontrarioa. Fase berri honetan beste hamar jardunaldi jokatu dituzte.

### **SASKIBALOA** MU Iruñera, zortzigarren garaipenaren bila

Azken bi partiduak irabazi ostean, bolada onean dira Josu Larreategiren mutilak. Dagoeneko zazpi garaipen batu dituzte ligan, eta mailari eusteko borrokan zortzigarren garaipenaren bila joango dira domeka eguerdian Iruñera. Kantxa zaila da Sarrigurengoa: Venta de Baños taldeak oraindik ez du etxean partidurik galdu.

### **ESKUBALOA** Oilarren arteko borroka Basaurin

Liga amaitzeko zortzi jardunaldi geratzen badira ere, asteburuan oilarren arteko borroka izango da, bigarren dagoen Basaurik (30) Izarraitz Muñoz Aloña Mendi (32) hartuko du-eta Basaurin (Zapatua, 18:15) -zaleek bi autobus bete dituzte-. Ford Mugarri Arrasatek etxean jokatuko du bihar (17:00), Urdanetaren kontra.

### **HOCKEYA** Hanka Labanka eta Dragons lehian, domekan

Domeka goizean hockeyko hainbat lagunarteko jokatuko dituzte Bergarako Labegaraietako kantxan. 10:00etan benjaminen jokatuko dute, 11:00etan kadete mailakoek, 12:00etan alebinek eta 13:00etan infantil mailakoek. Eta, 14:00etan Euskadiko Liga barruan Ribabellosako Dragons eta Hanka Labanka izango dira aurrez aurre.

# Oñatin, aizkolari eta harri-jasotzaile onenak

**HERRI KIROLAK** Domekan Euskal Label Binakako Aizkolari Txapelketako finalerdiak jokatu dituzte, eta horrekin batera gazte mailako harri-jasotze txapelketako finalak ere egongo dira ikusgai; 11:30ean hasiko dituzte saioak

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Oñatiko herri kirolen zale taldeak puntako hitzordua prestatu du domekarako –euririk ez bada Foruen plazan egingo dute eta euria bada Zubikoan–. Jaie-tan erakustaldiak izaten dira, baina ez dute aparteko presiorik izaten. Ez da domekako kasua izango, bai aizkolari eta baita harri-jasotzaileek ere asko izango dute-eta jokoan.

Aizkolariei dagokienez, Euskal Label Binakako Txapelketako finala dago jokoan. Lehenengo finalerdian aurrez aurre izango dira Atutxa eta Mugartza II.a eta Lopez de Azpilikueta eta Otaño: "Azken bi urteotan Atutxa eta Mugartza izan dira irabazleak, eta aurten ere faboritotzat joko nituzke", dio Angel Villar antolatzaileak.

Bigarren saioan, oster, Vicente-Saralegi bikoteak Irazuren eta Mindegiaren kontra neurtuko ditu indarrak: "Hor, berriz, bikote gaztea ikusten dut indar-



Atutxa eta Mugartza, 2014ko urrezko aizkorako finalerdian. GIOENA

tsu, Vicente eta Irazu. Dakitenek diote Vicentek hartuko diola Atutxari erreleboa".

**Egin beharreko lana**

Aizkoran bikote bakoitzak 24 enbor izango ditu zain, bost era-

tan ebakitzeko. Erlojuaren aurka enbor bana ebakiko dute, zutik txanda librean ibiliko dira, abiadura saioa izango dute, zutik eta etzanda enbor bana ebakiko dute eta sei enbor txanda librean ebaki beharko dituzte

## Harri-jasotzaile gazteen arteko finala

Aurten lehenengoz egin dute gazte mailako harri-jasotzaileen arteko txapelketa, eta domekan finala jokatu dute Oñatin. Horrenbestez, aizkolarien arteko lehiarekin batera, harria jasotzen ibiliko diren artean ere asko egongo da jokoan, txapela bera.

**Zarautz vs Aizarnazabal**

Aizarnazabalgo eta Zarautzko ordezkari bana izango da zein baino zein gehiago harria jasotzen: Xabier Peñagarikano eta Iñigo Eizagirre, hain zuzen. Bada, Villarrek hor ere garbi du noren alde egingo zukeen apustu: "Egia da Peñagarikano ez dudala aspaldian ikusi, baina aurreko saioan Beasainen izan nintzen –finalerdia egon zen



Xabier Peñagarikano, ahalegin betean. X.P / FACEBOOK

jokoan– eta Eizagirre oso indartsu ikusi nuen. Atera kontuak, 22 urte baditu ere 92 kiloko gizontzarra da, kolpe handia duena. Bada, oso zail ikusten dut hari irabaztea.

Harri-jasotzaileek lau harri izango dituzte lanerako. Harriko bi minutuko txandak egingo dituzte: 125 kiloko koadroa, 125 kiloko kopa, 113 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

**Mondra-Martutene**

Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Aretxabaleta-Ostadar**

Domeka. 16:30. Ibarra.

**Touring-Aloña Mendi**

Zapatua. 16:30. Erreter.

ERREGIONAL PREF.

**Urola-Mondra**

Zapatua. 16:00. Zumarra.

**Intxurre-Aretxabaleta**

Zapatua. 11:45. Alegia.

**Beasain-Bergara**

Domeka. 17:00. Igartza.

LEHEN ERREG. IGOERA

**Amara Berri-Antzuola**

Domeka. 17:30. Donostia.

EMAKUMEZKOAK, IGOE

**Mutriku-Arizmendi**

Domeka. 16:00. Mutriku.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

**Mondra-Bergara**

Zapatua. 18:30. Mojategi.

**ARETO FUTBOLA**

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Aretx.UDA-Erandiotar.**

Zapatua. 17:30. Ibarra.

**Atxurre-Eskoriatza**

Zapatua. 18:00. Bakio.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Bilkoin-Mondrate**

Gaur. 20:30. Legorreta.

**SASKIBALOA**

EBA

**Valle de Egues-MU**

Domeka. 12:00. Sarrigu.

EUSKADIKO BIG. MAILA

**Natra Oñati-Arizti**

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZK. SENIOR MAILA

**Astigarraga-MU**

Zapatua. 18:00. Astigarra.

GIP. BIGARREN MAILA

**Añorga-Soraluce BKE**

Zapatua. 16:00. Donostia.

G. HIRUGARREN MAILA

**Chicano Bulls-MU C**

Zapatua. 20:00. Donostia.

**CD Internacional-Aloña**

Gaur. 20:15. Donibane.

**ESKUBALOA**

EUSKADIKO GIZONEZK.

**Basauri-Izarraitz M.**

Zapatua. 18:15. Basauri.

**Ford Mugarri-Urdaneta**

Zapatua. 17:00. Iturripe.

EUSKADIKO EMAKUME.

**Aloña Mendi-Ereintza**

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIOR.

**Soraluce BKE-Haritz**

Zapatua. 17:30. Labegar.

**ERRUGBIA**

EUSKADIKO GIZONEZK.

**Arratiko-ART**

Zapatua. 16:00. Arratia.

**PILOTA**

**Aretxabaletan:**

Gaur. 19:00. Bi partidu.

**Oñatin:**

Gaur. 18:45. Hiru partidu.

Zapatua. 16:15. Bi

partidu.

**Bergaran:**

Gaur. 19:30. Bi partidu.

**GIMNASIA ERITMIKOA**

ESKOLA ARTEKOA

Zapatua. 10:40. Uarkape.

Arratsaldean, berriz,

erakustaldia egingo dute.

**MENDI LASTERKETA**

ANTZUOLAKO 8 MILIAK

Domeka. 10:30. Plazan.

Haurrendako moto

lasterketa 11:00.



Bergarak eta Mondrak ligan jokatuako derbiaren une bat. IMANOL SORIANO

## Derbiarekin estreinatuko dute Kopa Mondrak eta Bergarak

**FUTBOLA** Kopako lehenengo jardunaldia derbiarekin dator; Mojategin jokatu dute, bihar, 18:30ean

**X.U. ARRASATE**

Mondrako eta Bergarako neskek Kopa barruan neurtuko dituzte indarrak zapatuan (18:30, Mojategi). Eta, ligan ikusitakoak ikusita, partidu parekatua izango denaren itxura du, aurten bi talde horiek elkarren kontra jokatu duten bakoitzean berdindu egin dutelako [Mojategin 0-0, eta Ipintzan 1-1].

**Mondrak eta UDAk etxean**

Bi talde horiek ezin dute asteburuan barkatu, atzealdeko taldeen kontra jokatu dute-eta. Mondrak azken postuan dagoen Martuteneren kontra bihar (16:30), eta Aretxabaletak Ostadarren kontra domekan (16:30). Aloña Mendik, berriz, Errenterian jokatu du bihar (16:30).



Astean grabatu dute *Altzoko erraldoia*-ren gaineko filmaren azken sekuentzia, Pirinioetan. DAVID HERRANZ

## Moriarti ekoiztetxearen azken filma bukatzeaz da

Sei hilabete dira 'Altzoko erraldoia'-ri buruzko filma editatzen hasi zirela. Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendu dute Jose Mari Goenagarekin eta Andoni de Carlosekin batera idatzitako gidoia. Udaberrian zinema jaialdietan erakutsi gura dute

### Aitziber Aranburuzabala OÑATI

*Aundiya* da hasiera baten jarri dioten izena, baina ez daude seguru hori izango den behin betikoa. Maiatzean bukatu zuten, Euskal Herrian zehar kilometro asko eginda, zortzi asteko errodajea. Asteon grabatu dute azkeneko sekuentzia.

Muntaia bukatzeko ez zaie askorik falta, eta behar duten denbora inbertitzen jarraituko dutela dio Aitor Arregi zuzendariak. Horrelako egitasmo handi batek denbora eta mimo handia eskatzen du, baina gozatzen ari dela dio. "Une honetan, muntaia amaitutzat egotetik oso gertu dago. Sei hilabete goaz editatzen, eta astean grabatu dugun sekuentziarekin edizioa borbiltzea lortuko dugu. Gidoiak elurretan grabatzea eskatzen zuten, eta elurrraren zain egon gara; era berean, aktoreetako bat beste film baten egon da orain arte. Elur asko eta egunetan iraunkorra zena behar genuen eta azpiegitura, eta material

guztia eramaten duten kamioiak heltzeko moduko toki baten izan behar zen derrigorrean. Horregatik, Pirinioetan, Beret herrian egon gara. Elurraz gainera, mendian zegoen herririka bat ere behar genuen grabatu, eta hantxe egin ditugu hiru egun. Elurretakoez gainera, aurretik grabatzeko astirik izan ez genuen beste batzuk ere grabatu ditugu; esaterako, karramatoa paisaia ezberdinetan. Errodaje plana oso estu zegoen; horregatik, lantalea berriz elkartutakoan grabatzeko utzi genituen. Eguaztenez heldu ginen etxera".

**Musika eta efektuak ere labean** Pascal Gaigneri eskatu zioten musika egiteko. "Hiru aste

**HILABETE INGURUAN IRUDIEN MUNTAIA, MUSIKA, SOINUA ETA EFEKTUAK BATUTA IZANGO DITUZTE**

barru hasiko gara elkartzeko. Pauta batzuk markatu genizkion eta lan potoloena ari da egiten orain. Guztion artean osatuko dugu filmaren beharretara. Horrez gainera, bestelako soinukonponketak ere egin behar dira".

Paraleloki, Madrilen ari dira efektu bereziekin lanean. "Erraldoiaren ezaugarrietara egokitzen ari dira Eneko Sagardoi aktorea, eta XIX. garaia dela erakusteko, anakronismoak kentzen ere bai. Hiru errailetan goaz orain, baina hilabete inguruan errail berean batuko gara".

**Jaialdietan promozionatu guran** European ohikoa da filmak zine jaialdien bidez promozionatzea. Aurrekontu handirik ez dutenei ate asko zabaltzen dizkie. "Berlin pasatuta dago, Cannes justu samar, Venezia eta Donostiara eramanez gure gurek. Distantzia hartu barik kritikoa izatea zaila da, baina taldekook *feeling* ona dugu filmarekin".



Dantzariak eta Erramun Martikorena abeslaria *Oskara* ikuskizunean. GORKA BRAVO

## Gizakiak duen kulturarekiko beharraz gogoeta, dantzarekin

Kukai taldearen 'Oskara' ikuskizuna Amaia antzokian, bihar, zapatua, 19:30ean; sarrerak hamar eurotan

### A. A. ARRASATE

Kukai dantza taldeak eta Markos Morauk, La Veronal konpainiako zuzendariak, elkarrekin sortu dute. "Ezberdinen arteko elkarlanak sustatzea da gure lan moldeetako bat. Oraingoa Europako sortzaile garrantzitsuenekin egin dugu", dio Jon Mayak, Kukai taldeko zuzendariak.

### Dantza eta musika zuzenean

Euskal Kulturaren hainbat parte islatzen ditu ikuskizunak, dantza tradizionalak dantza garaikidearekin ezkondu. "Gure kulturari erreferentziak eten-

gabekoak dira. Ikusten ditugu, esaterako, jantzietan, elementu tradizionalak, agerikoak dira; berdin gertatzen zaigu musikan, orokorrean, oso atmosferikoa da, baina tartean Mikel Laboa, Maddi Oihenart eta musika tresna tradizionalak ere agertuko dira. Oro har, ikuskizunak gizakiok dugun kulturaren beharrraren gaineko gogoeta planteatzen du. Bost dantzari izango dira Amaia antzokiko agertokian, eta, horiekin batera, orain dela gutxi arte Kalakan taldeko kide izan den Thierry Biscary musikaria ere bai".

## GBH musika talde britaniarra, Oñatiko gaztelekuan martxoan

Herstura, Willis Drummond, Skakeitan eta Lagrimas de Sangre taldeen kontzertuetarako ere sarrerak salgai

### A. A. OÑATI

Punk estiloan aitzindaria den GBH talde britaniarraren birak geldialdia egingo du Oñatiko gaztelekuan. Martxoaren 9an 22:00etan izango dira The Friday's Crew taldearekin. Sarrerak hamar eurotan eros daitezke, Oñatiko Boga, Ona eta Xagu tabernetan.

Hasierako formazioko Colin Abrahall (ahotsa) eta Colin Jock Blyth (gitarra-jolea) daude gaur egun ere. Ross Lomas bajo-joleak eta Scott Preece bateria-joleak osatzen dute laukotea.

### Bestelako estiloetako eskaintza

*Metamorfobia* lana aurkeztuko du Oñatiko Herstura taldeak otsailaren 25ean, 22:00etan. Willis Drummond eta Skakeitan taldearekin batera osatu dute kartela. Zortzi eurotan daude sarrerak salgai.

Era berean, eskuragarri daude rap oldartsua ikur duten Lagrimas de Sangre kataluniarrak martxoaren 17an eskainiko duen emanaldirako sarrerak. Oñatiko Arrano eta Ona tabernaz gainera, Arrasateko Iluntz eta Jai Zale tabernan, zortzi eurotan.



# 80ko hamarkadaz, Txerra Bolinagaren lekukotza

Otsailaren 22an (21:30) estreinatuko dute eskualdeko ikastetxeek eta Goienak elkarlanean egin duten 'Galdegazte' elkarrizketa saioaren hirugarren denboraldia. Arrasateko Institutuko hiru ikaslek RIP taldeko Txerra Bolinaga gonbidatu dute

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
Urduri eta gogotsu sartu ziren Arrasateko Institutuko Maria Osés, Ane Guridi eta Kimi Lopez de Aretxaga ikasleak Goiena telebistako platora. "Gure herriko musikaren historian, baita nazioartekoan ere, eragin handia izan zuen RIP taldeak; eta euren bizipenak gazteen artean zabaltea beharrezkoa ikusten dugu. Ikonotzat ditugu RIP taldekoak, eta horregatik aukeratu genuen Txerra Bolinaga", kontatu zuten ikasleek.

Gonbidatuak lotsa apur batekin jaso zituen ikasleen aurkezpeneko miresmen hitzak; eta, hura ere urduri zegoela aitortuta, galdera zerrendari erantzuteko prestutasuna erakutsi zien.

**Drogek markatutako belaunaldia**  
Orain dela 37 urte jaiotako taldearen hastapenekin ekin zioten solasaldiari. "Aramaioko jaietan erabaki genuen kuadrillako lagun batzuek taldea sortzea. Double Cero izena jarri genion hasieran, eta beste talde batzuen bertsioak egiten genituen. *Portu*-k ekartzen zituen kantuen zirriborroak oinarri hartuta hasi ginen gureak sortzen. Ez genuen uste kantuek, egun, bizirik iraungo zutenik. Harrigarria da hitz askok zentzua dutela oraindik".



Guridi, Lopez de Aretxaga eta Osés ikasleak, Bolinagarekin eta aurkezlearekin. M. B

Taldekideen arteko harremanaz galdetuta, lagun onak zirela kontatu zien Bolinagak. "Ez dut ukatuko haserretzen ez ginenik; orokorrean, droga kontuengatik sortzen ziren harreman txarrenak. Heroinaren eragin zuzena bizi izan genuen gure belaunaldikook; ez naiz damutzen egindakoagatik, gerorako asko ikasi dudalako".

**Geroago etorritako ospea**  
"Punken artean ginen ezagunak, gure itxurek ez zuten bestelako lagunak egiteko askorik lagun-

tzen. Ez genuen musikatik dirurik ateratzen, gasolinaren truke jotzen genuen gehienetan; eta ligatu ere, apenas. Ospea geroago heldu zitzaigun".

Gaur egunera etorrita, Gasteizko Piztu Punk taldean jarduten duela kontatu zien. "Ahal dudan bitartean batera jotzen jarraituko dut, baita kontzertuetara joaten ere. Asko aldatu da giroa; lehen, basatiagoa zen dena. Etorkizunerako asmo zehatzik ez dut, *carpe diem* da nire leloa, eta, are gehiago, Jul anaia galdu nuenetik".

## Otsaileko Kooltur Ostegunak borobiltzeko, Luma donostiarrak

Bilboko Atom Rhumba taldea, Amorante bakarlaria eta Miren Tirapu aktorea izan dira Arrasateko gaztetxean

**A. A. ARRASATE**  
Orain dela bi urte sortutako egitasmoa da Luma. Donostiako bikote rockeroa da; bateriarekin eta gitarrarekin osatutakoa. "Zeresan handia ematen dabil, zuzeneko bitxi eta indartsuak

eginez. Taldearen bilakaera jasotzen duen *Airwalk EP* izeneko lana kaleratu berri dute. Otsailan hasi dituzte aurkezpen kontzertuak eta horietako bat da datorren astean Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan es-

kainiko dutena", azaldu du Iker Barandiaran antolatzaileak.

Lumaren eskaintza freskoa dela dio Barandiaranek. "Zuzena eta erraieratik ateratakoa da. Estilo asko hartzen ditu bere baitan, eta horietako bat 70eko hamarkadako rocka da, benetakoena. Aurrez argitaratutako *Club EP* lanak Euskal Herriko eta Espainiako toki askotan jartzeko aukera eman die, eta askotariko taldeekin partekatu dute agertokia: The Bellrays Belako, Capsula, No Age...".

## Goiena Klubaren txokoa

### Euroliga Goiena Klubean!



**BASKONIA - EA7 EMPORIO ARMANI MILAN**  
**Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu**  
Martxoaren 2an, 21:00etan Buesa Arenan jokatu den partidurako.

### PARTE HARTZEKO: OTSAILAREN 27RA ARTE

**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Baskonia"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.  
Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### AZPEITXI JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA *Jatetxea*

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko Udalarari esker

*'Idiot Txou' antzezlanaren ikusteko sarrerak ditugu.*

Amaia Antzokian, Arrasaten. | Otsailaren 26an, 19:30ean

#### PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 21ERA ARTE)

**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "antzzeria"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.  
Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...





Bazkideku zaituzte: 2017 osoa: 55 euro.  
Deitu: 943 25 05 05. [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



ESKER ONA




**Roberto Merino Pinacho** 


2017ko otsailaren 11n hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

ESKER ONA



**Margari Arejolaleiba Zabala** 


2017ko otsailaren 11n hil zen, 93 urte zituela.


Eskerrik asko etxekoan izenean egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

*Gure begiradei, keinu goxo bat gure muxuei, irribarre bat. Ze maitatuak sentitu garen ama, amama. Egunero, beti, gogoratuko zaitugu.*

Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

ESKER ONA



**Felisa Aldanondo Elkoroarrutia** 

Juan Ugarteren alarguna

2017ko otsailaren 15ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2017ko otsailaren 17an.

ESKER ONA



**Mertxe Lazpiur Urkizu** 

Ramon Azpeitiaren alarguna

2017ko otsailaren 14an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko otsailaren 17an.

ESKER ONA



**Carmen Alkorta Iturzaeta** 

Tomas Goitiren alarguna

2017ko otsailaren 13an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko otsailaren 17an.

ESKER ONA



**Iñaki Altuna Agirrebeña** 


Ana Maria Ibarzabalen alarguna


2017ko otsailaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Bihotz-bihotzez eskerrak gure ondoan egon zareten guztioi, senideen partez.

Arexabaletan, 2017ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA



**Ramon Bidaburu Otadui** 

'Txarra'

2017ko otsailaren 15ean hil zen.

*Gizon on bat juan jaku.*

Urtebetetzeak taldeko lagunak. Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA



**Ramon Bidaburu Otadui** 

'Txarra'

2017ko otsailaren 15ean hil zen.

*Festa giruen eta irriparra sekula galdu barik, zuk hasitako bidien ekinien jarraitetan dou. Mila esker, Txarra!*

Maritxu Kajoi eta Santamas komisiñuak. Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA



**Iñaki Altuna Agirrebeña** 

2017ko otsailaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

*Iñaki, zuk ereindako elkartasun haziak loratu daitezten lanean jarraituko dugu.*



Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA



**Ramon Bidaburu Otadui** 

'Txarra'


2017ko otsailaren 15ean hil zen.


*Bizitza nola izan liteke hain injustu, hain krudela... Gaur AEKri mina dario zu agurtzean honela, baina hain zinen tipo apala ikasle fin ta fidela... Beti gogoratuko zaitugu zauden lekuan zaudela.*



Debagoienako AEK-ko ikasle eta irakasleak. Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA




**Ramon Bidaburu Otadui** 

'Txarra'

2017ko otsailaren 15ean hil zen.

*Beti gogoan izango zaitugu.*



Herri-Gain elkarteak. Arrasaten, 2017ko otsailaren 17an.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Traktore gainean ezkongaiak**

Alex Gorosarri eskoriatzerra eta Leintz Gatzagako Ane Zubillaga traktore gainean heldu ziren Marisa jatetxera, lastoz betetako traktore batean. Ederto ibili ziren denak.

**2. Aramaioko kondaira mitologikoak**

Debagoieneko mintzalagunek asko ikasi dute Aramaiori buruz Amillaga elkarteko Libe Ramilaren eskutik. Egondako desagerpenei buruzko azalpenak entzun zituzten, esaterako.

**3. Zilarrezko ezteiak**

Bergarako Begoña Oyarzabalek eta Jeronimo Casquerok ezkondu zireneko 25. urteurrena ospatu dute hilaren 14an. Zorionak bioi, familiako kideen partetik!

**4. 30 urte elkarrekin mendira joan barik**

Kurtzetxiki, Bedoña, Urkulu, Apotzaga, Untzilla, Azkoaga. 4 orduan. Jesus eta Oier aita-emeek eta Cesar eta Sergio anaiek ondo merezitako bazkaria izan zuten gero, familiarean.

**5. Aramaion santa-eskean**

Arriolarrak eta arexolarrak ederto ibili ziren baserriz baserri kantari. Elkartearen bazkaldu zuten denek, gustura. Oskar Elizburu kopia kantariari eskerririk asko, denen partetik!

**Kontatu, kontatu!**

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astearen argitaratuko ditugu.

## #DIOTENEZ

**URTEURRENA**

Bergarako **Pol Pol** mendi taldeak 75 urte beteko ditu aurten eta liburu batean jaso gura dituzte urte hauetan guztietan egindakoak eta ikusitakoak. **Migel Anjel Elkoroberezibar** idazle bergararra ari da horretan. Urte asko dira eta jasotzeko material asko du, baina **abendurako** liburua prest egotea nahi dute. Ordura arte, baina, bestelako ekintzak ere egingo dira, urteurrena gogoan: datorren

hilabetean, martxoan, esaterako, mendi **astea** egingo dute.

**EUSKAL HERRIKO ITZULIA**

Euskal Herriko Itzuliaren **etapa** bat Elgetatik eta Bergaratik pasako da: **30 kilometroko erlojupekoa**, Eibar-Eibar, eta hauxe **ibilbidea**: Eibar-Karabieta-Ubera-Bergara-Eibar. Apirilaren 3an hasiko da aurtengo Euskal Herriko Itzulia, Iruñean, eta **apirilaren 8an** bukatuko da, Eibarren. Azken etapak

**zeharkatuko** ditu Elgeta eta Bergara.

**IKUSMINA**

Bergarako Udal Musika Bandak urtero **Inauterietarako** prestatzen duen kontzertuak ohiko arrakasta izan du aurten ere. **Bi** orduetan **saldu** zituzten sarrera guztiak. **900** lagunendako edukiera du Udal Pilotalekuak eta ordu pare baten saldu ziren **sarrera** guztiak. **Kontzertua** hilaren 24an da.

**IRTEERA**

Aloñako **Igoerako** antolatzaileek **irteera** antolatu dute probaren ibilbidea ezagutzeko edo erreparasatzeko. **Eguna** eta **ordua** zehaztu dituzte: martxoaren 26an, domeka, 08:30ean, Foruen plazan. **Deabruak** ez du atsedenek hartzen!

**SASKIBALOIAN**

Bergaran aurten ere egingo dute **hirunako** saskibaloia torneo.

Aurten ere buru-belarri ari da hori antolatzen Marian **Mellado** eta ez du hutsik egingo herriko kirol ekintzen egutegian. **Ekainaren** azken asteburuan izango da, 24an eta 25ean. Aurreko urteetan egin duten moduan, herriko plazan saskiak jarriko dituzte eta izena ematen duten **taldeen** arteko **partiduak** antolatuko dituzte gero. Saskibaloian jokatzeko **gogoko** duten herritar guztiendako egongo da **zabalik** izen-ematea.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA  
**Jon Cano Pavo**  
Otsailaren 22an, 25 urte. Zorionak, "tio" Jon! Oso ondo ospatu zeure eguna eta patxo asko familia danaren partetik! Segi zaren modukoa izaten eta ez aldatu inoiz. Muak.



ANTZUOLA  
**Ekhi Cabo Mundiñano**  
Otsailaren 22an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta kandelei fuerte egin putz! Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Inarren partetik.



ANTZUOLA  
**Aiala Zabalo Garcia**  
Otsailaren 21ean, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi bat etxeko partetik, eta segi betiko neska jatorra izaten.



BERGARA  
**Yeray Hernandez Franco**  
Otsailaren 21ean, 3 urte. Zorionak aitiba-amamen, gurasoen eta Alexandraren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat!



BERGARA  
**Xabat Arando**  
Otsailaren 21ean, 3 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko danon, baina bereziki, Maddiren partetik. Ondo pasatu.



ARETXABALETA  
**Mabel Sanchez Aguado**  
Otsailaren 20an, 26 urte. Zorionak, Mabel! Oso ondo ospatu zure eguna eta muxu asko, familiaren partetik. Muak.



BERGARA  
**Nora Perez Zabaleta**  
Otsailaren 19an, 4 urte. Zorionak, Nora, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat! Etxeko guztiak eta, bereziki, Irati, Elene, Erik, Jurgi eta Ane.



OÑATI  
**Julen Irizar Azkune**  
Otsailaren 19an, 2 urte. Zorionak, Julen! 2 urtetxo, txapeldun! Ondo-ondo ospatu eguna eta mila patxo potolo, etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Haizea Sanchez Roman**  
Otsailaren 19an, 6 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure egunean! Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Heleneren eta Tatarren partetik!



BERGARA  
**Nahia eta Xabat Teran**  
Otsailaren 18an, 6 urte. Zorionak, Ugarrixako familiaren partetik!



ARRASATE  
**Danel Gonzalo Maria**  
Otsailaren 18an, 10 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat familiaren eta, bereziki, Anderren eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA  
**Lole Pavo**  
Otsailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, amama Lole! Patxo asko familia guztiaren partetik eta urte askotarako. Muak!



ARRASATE ETA BERGARA  
**Noa Laiseka Leturia, Garazi eta Libe Ugarte Leturia**  
Otsailaren 18an, 8 urte. Zorionak, hirukote! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta mila patxo potolo jaso zuen zortzigarren urtebetetzien. Narra, Jon, Ximun, Hur, aita, amatxo, amama, aitona, tio eta tia danak.



ARRASATE  
**Juan Antonio Delgado**  
Otsailaren 18an, urtebetetzea. Familiaren partetik, zorionak eta asko maite zaitugu!



OÑATI  
**Maitane Ugarte Erostarbe**  
Otsailaren 17an, 29 urte. Zorionak, Maitane. Oso ondo pasatu zure egunian. Urte askotarako! Guztion partetik, muxu handi bat!



OTXANDIO  
**Haizea eta Bidatz Larragoiti Ibabe**  
Otsailaren 17an, 12 urte. Zorionak, neskek! Asko gure zaituet. Muxutxuek.



ARETXABALETA  
**Danel Lopez Fernandez**  
Otsailaren 17an, 6 urte. Zorionak, Danel! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat, etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA  
**Oihane Gorosarri**  
Otsailaren 17an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta txoko-marrubizko muxu pilo-pilo bat, etxeko danon partetik! Mua!



OÑATI  
**Intza Elorza Zabala**  
Otsailaren 16an, 9 urte. Zorionak, txiki! Txoko marrubizko patxo potolo bat, familia danaren eta, bereziki, Oihanen partetik. Asko maite zaituau!



OÑATI  
**Irati Pelayo Osa**  
Otsailaren 16an, 9 urte. Zorionak, Irati! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



BERGARA  
**Manex Olabarria Arrizabalaga**  
Otsailaren 16an, 7 urte. Zorionak eta patxo pilo bat etxeko pirata txikiari, etxeko partetik. Egun polita pasatu.



BERGARA  
**Malen Pineda Martin**  
Otsailaren 16an, 7 urte. Zorionak, *prima Malen!* Primeran ospatuko dugu eguna! Muxu potolo bat tio Daviden, tia Anaren eta, handiena, Mararen partetik!



OÑATI  
**Oxel eta Oihana Uribarren**  
Oxelek urtebete urtarriaren 5ean. Oihanak 6 urte otsailaren 16an. Zorionak, Oxel eta Oihana, aitaboren, amatxoren eta familia guztiaren partetik. Ederro pasatuko dugu danok elkarrekin! Muxu handi bat!



OÑATI  
**Itziar eta Aimar Murgiondo Murillo**  
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bat etxeko partetik.



BERGARA  
**Mara de Goñi Campos**  
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost muxu erraldoi etxeko guztien eta, bereziki, Noaren partetik.



ARRASATE  
**Lier Toston Lopez de Bergara**  
Otsailaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Lier! Hiru urtebete ja! Hain txiki eta hain handi... Ondo-ondo pasatu, maitia. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA  
**Iratz eta Jare Berezibar Epelde**  
Iratzek otsailaren 5ean, 5 urte eta Jarek otsailaren 14an, 8 urte. Zorionak, Iratz eta Jare. Musu handi bana familixako partetik.



ARETXABALETA ESKORIATZA  
**Olatz Maidagan eta June Guenetxea**  
Olatzek otsailaren 13an eta Junek otsailaren 15ean. Biek 12 urte! A ze para! Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunian. Muxu asko-asko, batez ere, Oihanen partetik.



OÑATI  
**Elene Aramendi Fuente**  
Otsailaren 10ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure bostgarren urtebetetze egunian. Muxu asko-asko, batez ere, Oihanen partetik.



BERGARA  
**Noa Revilla Urrutia**  
Otsailaren 10ean, 3 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Ainararen partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 17

### ELGETA Ipuinen ordua

16:40an 5 urtetik gorakoendako eta 17:25ean 2-4 urte artekoendako. Euskaraz. *Liburutegian, aipatutako orduetan.*

### OÑATI 'Jendaurrean nola hitz egin' tailerra

Jabetze Eskolako ena saioa. *Euskaldunberri gelan, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Odoloste dastatzea

UDAKo kideen ekimena. Aretxarteko komertzioetan txartelak banatuko dituzte aurreko egunetan. *Pagaldaixenan, 18:30ean.*

### ARETXABALETA Bandaren emanaldia

Leizarra musika eskolako kideen kontzertua. *Agustindarren komentuan, 18:30ean.*

### BERGARA 'Party & Borroka' liburuaren aurkezpena

Jon Andoni del Amo egileak aurkeztuko du. *Gaztetxean, 19:00etan.*

### OÑATI Viva Bazooka taldea

Espressionistak, esperimentalak eta saikaezinak, erritmo jostagarritz betetako zuzeneko biziak eta indartsuak ematen maisu dira gitarra eta bateria formatuan. Doan. *Ona tabernan, 20:00etan.*

### ARETXABALETA Bakarrizketa saioa

Miguel Angel Marin eta Albert Boira komikoen saioa. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 20:00etan.*

### BERGARA 'Txapeldun!'

Organik taldearen ikuskizuna. Dantza eta antzerkia bateratzen ditu. Txapeldun baten une gazi-gozaok kontatzen ditu. Sarrerak, zortzi euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

### ARRASATE Ipuin erotikoak

*Hotzikarak* delako ipuin kontaketa, helduendako. Gozamen erotikoaren historia ipuin musikatuaren bidez. Doan. *Kulturaten, 20:00etan.*

### ELGETA Etsaiakeroak, Sugoi eta Space Jam Session taldeak

Talde ezagunen kantuen bertsioak egingo dituzte. Tributu taldeak dira. Sarrerak, zazpi euro. *Spaloian 22:00etan.*

### BERGARA Diablues & Bluecifer taldea

Hilaren 21ean Donostiako Tabakaleran egingo duten kontzertua prestatzeko emanaldia egingo dute. Donostiako lehiaketan sailkatuko balira, Jazzaldiaren programan sartuko liriteke. *Etxagi tabernan, 22:30ean.*

## ZAPATUA 18

### ARAMAIO Natura Eguna

Pago motzak lepatuko dituzte San Kristobal inguruan Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei. *Eskola ondoan, 09:30ean.*

### ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Jolas erraldoiak, karaokea, San Blas opilak eta gailetak egitea... Parte-hartzaileek adostuko dute zein ekintza egin. *Musakolan, 10:30ean.*

### ELGETA Elgetako hiru piloturen aldeko ekintzak

Asier Untzetabarrenetxea, Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua gidarien denboraldiak laguntzeko ekintzak egingo dituzte. *Mendizaleen plazan, 11:00etan.*

### OÑATI Altsasuko gazteen hitzaldia

Gertatutakoaren testigantzak entzun ahal izango dira. *Kultura etxean, 11:30ean.*

### ARETXABALETA Ipuin kontaketa

Izaskun Mujikak *Ipuinen lapikoa* delako saioa egingo du. Doan. *Liburutegian, 11:30ean.*

### OÑATI 'FreshCool' ikuskizuna

Tio Seronen Semeak taldearen umorezko dantza ikuskizuna. *Foruen plazan, 12:00etan.*

### OÑATI Aratusteetako entsegua

Aratuste herrikoiko entsegua. *Larrañan, 12:00etan.*

### ARETXABALETA Txapel Txin eguna

12:00etan, kuadrillen arteko ginkana; 17:30ean, Birloque taldearekin kale animazioa; 18:00etan, torrada lehiaketa; 19:00etan, 2017ko Aratusteetako pregoia, eta, ostean, txapel dotoreenari saria eta torrada lehiaketa sari banaketa ekitaldia; 19:15ean, txistorra, sagardoa eta torradak; 19:30ean, DJ AviTxin. *Herriko Plazan, aipatutako orduetan.*

### ELGETA Tatuaje tailerra

Xabier Elgezabal tatuatzailearen eskutik. Zabalik interesa duten herritar guztiak. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

### OÑATI Pelikula, gaztelekuan

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleen eskutik. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

### ARETXABALETA Torrada lehiaketarako prestatetak

Gaztekoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ARRASATE Bidaieen kronikak

Maddi Urizarrek Bartzelonaraino bizikletan egindako bidaia kontatuko die gaztetxoei. *Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

### ESKORIATZA Sukaldaritz tailerra

Gaztekoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### BERGARA Bizikleta festa

2 urtetik aurrerako ziklista txikiendako jaiak, Lokatzakoekin. Askotariko lasterketak egingo dituzte. *Seminarioan, 18:00etan.*

### OÑATI Dirty Brothers eta The Sinners taldeak

Altsasuko gazteei elkartzatuna adierazteko azken ekintza. Dirty Brothers arrasatearrek *Mondra Calling* delako diskoa aurkeztuko dute. Bestalde, The Sinners beasaindarrek oi! estiloko doinuekin girotuko du zuzeneko. *Gaztetxean, 19:30ean.*



KUMA NO MOTOR

### BERGARA Askotariko kontzertuak VI. Tapoi Fest jaialdian

Drop Colapso, Screaming For Change, Metralleta, Criatura eta Kuma No Motor (argazkian) taldeak. Kontzertuen ostean, DJ emanaldia egongo da, Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.*

### ARRASATE 'Oskara' dantza ikuskizuna

Euskal Herriko kultura tradizionalen du oinarri Kukai taldearen lanak. Sarrera, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

### BERGARA Etxarri-Aranazko abesbatza

Kontzertua egingo dute. *Mariaren Lagundian, 20:00etan.*

## DOMEKA 19

### OÑATI Mendi irteera

Mañaria-Errialtabaso-Urkiola-Mañaria ibilaldia egingo dute, Aloña Mendikoan eskutik. *Postetxeko geltokian, 08:00etan.*

### BERGARA Domeka azoka

Bigarren eskuko materiala saltzeko eta erosteko aukera. *San Martin plazan, 11:00etan.*

### ANTZUOLA A8M lasterketa

Irteera 10:30ean Herriko Plazatik. Haurrendako motortxoan lasterketak, 11:00etan. *Aipatutako lekuan eta orduetan.*

### OÑATI Musika bandaren kontzertua

Inazio Ibarrendok zuzendutako emanaldia. *Santa Anan, 12:45ean.*

### ESKORIATZA Karta jokoa eta pelikula emanaldia

Gaztekoendako ekintza. *Gaztelekuan, 16:30ean.*

### ARRASATE Aratusteetarako prestatetak

Karrozak egiten jarraituko dute eta makillaje ikastaroa ere egongo da. *Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

### ARETXABALETA Pelikula emanaldia

Gaztekoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte bitarteko haurrendako eta senitartekoendako. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Aratusteetako dantzen entsegua

Lantzeko Aratusteetako dantzak. *Pilotalekuan, 18:00etan.*

### ANTZUOLA Helduentzako zinema

Fantasiako eta beldurrezko film laburren bilduma, jatorrizko bertsioak eta euskarazko azpiztituluekin. Doan. *Torresoroan, 18:30ean.*

### ESKORIATZA 'Un leñador no es un diseñador' antzezlana

Madrilgo Juancallate taldearen eskutik. Diseinatzaile baten bizipenak kontatzen ditu. Sarrerak, lau euro. *Zaldibarren, 19:00etan.*

### ARETXABALETA Kintoen dantza saioa

1998an jaiotako neska-mutilen emanaldia. *Herriko Plazan, 19:00etan.*





AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

## Elefantearen burutxo

Mikel Zalbide eta Joshua Fishman soziolinguista handiak solasean. Atzerritarra euskaldunei laguntzera etorria zen eta bazeraman denboratxo bat hemen. Zalbidek galdegin dio: "Nola ikusten gaituzu euskaltzaleak?". Fishmanek erantzun: "Ekintzaile, kementsu. Gauza asko egiten duzue, baina pentsatzeko astirik hartu gabe. Elefante baten gorputza duzue, baina txoritxo baten burua".

Zalbidek ondorioztatzen du ikerketa soziolinguistikoa falta dugula, askozaz denbora eta baliabide gehiago erabili behar genukeela ikertzen, egiten hasi aurretik pentsatzen. Ados nago.

Euskara da hizkuntza gutxituen artean hedatzen ari den bakarretarikoa. Baina inor etorriko balitzaigu galdezka ea nola lortu dugun hori, ez genuke jakingo erantzuten modu sendoan. Ez dakigu zer egin dugun ondo eta zer egin genezakeen hobeto. Ez daukagu jakinduria zientifikoa egin dugunaren gainean. Kasu aurreratu bat izanda, ez gara soziolinguistikan erreferentziatzko adituak.

Baina badira mugimenduak. Soziolinguistika Institutuaren sorrera litzateke urratsik handiena, eta bidean da. Elefanteak behar du bere neurriko burua.

BUKATZEKO



Adela Moyua gelaren inaugurazio ekitaldia Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean. VENANCIO CRISTOBALENA

# Adela Moyua izena, unibertsitateko gela bati

Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean, 2013an hil zen Adela Moyua matematikari oñatiarraren izena daraman gela bat dago joan den egubakoitza ezkerro; emakume izena daraman lehenengo gela da hori, gainera

### Miren Arregi OÑATI

Leioako Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultatean Adela Moyua zenaren izena daraman gela bat dago. Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko egunaren harira, Unibertsitateko Berdintasun Sailak bultzatuta ipini zaio gelari, haren izena. Joan den egubakoitzean, otsailak 10, izan zen inaugurazio ekital-

dia eta han izan ziren, besteak beste, Moyua zenaren senitar-teko eta lankideak. Esaterako, Esther Dominguez, Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanoa; Carmen Corrales, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Aljebra Saileko irakaslea; eta Arantza Urkaregi, Zientzia eta Teknologia Fakultateko Matematika Aplikatu irakaslea eta



Haren izena daraman plaka. V.C

Moyuaren lankidea, hura 1978an Leioara iritsi zenetik. Honela nabarmendu zuen Urkaregik Moyuak bereziki emakume matematikariak balioan ipintzeko egin zuen lana: "Oso egun polita aukeratu dugu Adela gogora ekarri eta berak emakume matematikariak bultzatzeko egin zuen lana azpimarratzeko". Eta erantsi zuen: "Adela oso emakume konprometitua zen. Bere pasioa Fourier-en analisia zen, baina matematikez aparte bizi-tza zegoen. Elkarrekin asko berba egiten genuen matematikez eta matematiketan emakumeen papera indartzeko beharra konpartitzen genuen". Horren adibide da, esaterako, 1988an Uda-ko Euskal Unibertsitatean emakume matematikarien gainean Moyuak egindako hitzaldia.

### Adelaren gizadasuna

Arlo profesionalean egindako lanaz gain, haren izateko modua ere goraiatu zuen Urkaregik. "Gaur gura nuke gogora ekarri Adelaren bizipoza, haren irribarrea, sosegua, patxada lasaitasuna...".

Hain zuzen ere, bide horretatik egin zuten Nikaragutik bidalitako eskutitzaren idazleek. Moyuak Nikaraguako Unibertsitate Autonomoan eskolak eman zituen eta hango lankide batek idatzitako eskutitza ere irakurri zen ekitaldian: "Urte haietan Nikaraguara etortzea ez zen bere bizitza profesionalean meritu bat; sakrifizio bat zen gure herriaren egoera eta garapen maila kontutan izanda eta hor dago bere meritu, bere jakintza konpartitu gura izan zuelako ikas-teko eta kanpora irteteko aukera gutxi zuten ikasleekin".

R.P.S. 17/01/11 LG

**MERKE ALDIA**

Gama altuko  
**2 mō betaurreko progresibo**

**177€**

aurretiko prezioa: 197€

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENERIA  
LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Erlingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

**AZKEN EGUNAK**

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan